



t tipi-ttapa



MODA GEHIGARRIA / 46



BARDOAK PLAZARAKO PREST

la zazpi hilabeteko geldialdiaren ondotik, ortzirale honetan berrartuko dute Bardoak Nafarroako taldeakak bertsolari txapelketa. Ortziralean Goizuetan hasiko dute martxoan koronabirusak geldiarazi zuen lehia. / 30

Ostalaritza gogor jo duen birusa

Sektorean lan egiten duten eskualdeko sei lagunen testigantzak bildu du TTIPI-TTAPAK. / 10

SINADURAK




ZOKKETA / 60



Bakarkako ibilbidean bere azken diskoa aurkeztu du Petti musikari beratarrak / 8

Hatsa elkartea hezkuntza sailaren neurriak aldatzeko lanean / 20

Magna enpresa Erdizera begira jartzeak kezka sortu du Baztanen / 40



Xabi Ibargarai Erratzuko palista profesionalaren ibilbideari errepasoa / 50

BERA LESACA

Agenda 2020

URRIA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

1 ORTZEGUNA

JARDUERAK
Ahalduzte indibiduala eta kolektiboa

18:00 Txokobiko aretoa, Harriondoa
Aforoa mugatua
Adina helduak eta gazteak

Argibide gehiago:
692 18 92 86 Gizarte-ongizate arloa
Antolatzailea: Lesakako Udala
Laguntzaileak: Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Nafarroako Gobernua

LESACA

10 LARUNBATA

MERKATUA
Bertako ekoizleak

10:00-13:00 Beralandetan

BERA

15 ORTZEGUNA

ANTZERKIA
Erlauntza (Vaiven Produzioak)

19:00 Kultur etxean
Iraupena 70 min
Sarrera 7 € (sarrerak salgai egunean bertan)

8 ORTZEGUNA

JARDUERAK
Ahalduzte eta autodefentsa feminista

18:00 Txokobiko aretoa, Harriondoa
Aforoa mugatua
Adina helduak eta gazteak

Argibide gehiago:
692 18 92 86 Gizarte-ongizate arloa
Antolatzailea: Lesakako Udala
Laguntzaileak: Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Nafarroako Gobernua

LESACA

15 ORTZEGUNA

JARDUERAK
Gorputzaren eta emozioen kartografiak

18:00 Txokobiko aretoa, Harriondoa
Aforoa mugatua
Adina helduak eta gazteak

Argibide gehiago:
692 18 92 86 Gizarte-ongizate arloa
Antolatzailea: Lesakako Udala
Laguntzaileak: Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Nafarroako Gobernua

LESACA


15 ORTZEGUNA

ERLAUNTZA

ZUZENDARITZA: MIREIA GABILONDO
BULEA: KEPA ERRASTI
BATERAKOAK: LERREKUTZ, ANTZERKIGARMENTA, MARIANO ARNEDE
BATERAKOAK: ETXERABAI, SARA COZAR

Antolatzailea: Goldatz Berako Emakume Talde Feminista
Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea, Berako Udala eta Berako Kultur Batzordea
OHARRA: Oritu martxo ekitadira erositako sarrerak ez dutela balio honetarako. Martxo sarrerak Kultur etxean itzuli behar dira eta ekitaldi honetarako berriak erosi. Barkatu eragorpenak.

BERA





NIRE TXANDA

HARITZ BERAU MUTUBERRIA

Itzalpeko biolentzia

«Mota askotariko biolentzia armen biolentziaz haratago mila-ka biolentzia mota...». Hala erraten du Kloratita musika taldearen *Biolentzia* kantak. Baina biolentziaz ari garenean, zertaz ari ote gara? Biolentziaz aritu ohi garenean badira burura etortzen zaizkigun hainbat gai, baina badira agerikoak ez diren biolentzia mota aunitz ere, bigarren maila batean kokatu ohi dituztenak, eta guk inkontzienteki biolentzia hitzetik urruntzen ditugunak. Duela hilabete eskas Igor Gonzalez Sola euskal preso politikoa ziegan hilik agertu zen, eta bai, hori ere biolentzia da. Teorian birgizarteratzea helburu duen kartzelari bertze biktima bat gehitu zitzaion, kartzela eta horren giblean dagoen estatu biolentzia agerian utziz. Gainera biolentziaz ari garela, euskal preso politikoek jasaten duten biolentzia gehigarriaz ere hitz egin dezakegu, mendekuan oinarritutako salbuespenezko espetze politika ere biolentzia baita. Bada garaia biolentziaren inguruko lezio etikoak ematen dituzten horiek, lezio etikotik ekintza politikoetara pasatzeko, isilpean mantendu nahi duten biolentziarekin behingoz akitzeko.

**«BADA GARAIA
LEZIO ETIKOTIK
EKINTZA POLITIKOE-
TARA PASATZEKO»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

AEBn euskaraz? barka atrebentzia!

Samuel L. Jacksoni ez al dio inork esplikatu non sartzen den euskaraz hasten bada? popatik hartzera homofobia atera zaiola eta kexu; antzarrak ferratzera bidalita animalia-zaleak aztoratuko lituzke; Jesukristok txiskeroa galdu zuen lekura bidal zezakeen, baina orduan katolikoak muturtuko lirateke. *Fuck you!* ez al zen aski, Trumpek ez ezik, denok ulertzeko?

NABARMENTZEKOAK

ITXASO
ALEMAN
AMAIURANE
SIRERA
IGANTZI

Duela hilabete batzuez geroztik, Itxaso Aleman amaiurtarra da Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako eskualdean Cederna Garalurreko tokiko garapenerako teknikaria.

Igantziar gazteak *Ahizpata-sun artistiko tailerra* tailerra emanen du urriaren 9tik azaroaren 7ra. Emakumeei zuzendutako tailerra, artea eta sormenaren bitartez emozioak landuko dituzte.

ATZERA BEGIRA



2010-09-30 · TTIPI-TTAPA · 527 zk.

Plazaolako trenari buruz hizketan

Orain dela hamar urte Plazaolako trenbideari buruzko erreportajea argitaratu zuen TTIPI-TTAPAK, eta horren barne, trenbidearen ondoan jaio eta bizi ziren Patxi Barriola eta Juan Martin Aleman elkarrizketatu zituen. Trenbidea tikitatik «sobera» ezagutzen zutela kontatu zuten eta beraien lurretatik pasatzeaz gain, «aziendak harrapatzen zizkietelako beti jaleoan ibiltzen» zirela onartu zuten: «behiak, behorrak, ardiak... denetarik harrapatzen zituen». Gehiago ere bai, «labea gehiegi berotzen zenean, ikazkinak kanpora botatzen zuen brasarekin» baserri bat eta lurak erre zirela ere aipatu zuten. Horrez gain, «trena ligatzeko aproposa» zela azaltzeaz gain, kontrabandoaren inguruko anekdota asko kontatu zituzten bi leitzarrek.

Argitaratzailea

TTIPI-TTAPA Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Aranbxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari
Barriola, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranbxa Iturralde,
Aranbxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabala, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberría.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemaneu Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€





KOLABORAZIOAK

MIREN RUBIO ITURRIA

Zenbat putazale zarete?

Nafarroan 30 prostituzio klub baino gehiago eta 700-800 prostituta daudela jakinarazi berri du parlamentuan Javier Remirez Nafarroako Gobernuako presidenteordeak, PSNko parlamentari baten galderari erantzunez. Bertze datu inportante bat ere plazaratu du: 2.000 gizon inguruk ordaintzen dutela egunean emakumeak esplotatzeko. Egunero.

Datu ofizialak dira. Bazterrean jarduten duen errealitate bateko gutxienekoak, alegia. Eta eguneko datua izaki, bertze hainbertzerengatik biderkatu beharrekoa dela bistan da, putazale kopuru erreala batera hurbildu nahi bada. Ezin norbere buruari galdera hauze egin gabe utzi, horregatik: zenbat putazale daude, hortaz? Zenbat zarete?

Garrantzitsua da galdera. Erantzuna bera. Datu horien giblean ez baitago sexu-praktika jakin batzuen gaineko juzgu jakin bat, ezta sexuarekiko irakurketa etikorik egiteko intentziorik ere. Kontrakoa. Pertsonak eta bereziki emakumeak ulertzeko zein modu dagoen ulertzeko gogo bat dago, ez bertzerik.

Datu horien giblean bertze erretratu hau ere badagoelako: egunero gutxienez 2.000 gizaseme prest daude Nafarroan sexu bidez pertsonaren bat esplotatzeko, diru truke norberaren erantzukizuna eta enpatia uxatzeko, eta ea paperak ote

«2.000 GIZON INGURUK ORDAINITZEN DUTE EGUNEAN EMAKUMEAK ESPLITATZEKO»

Horra gure gizartearen zimur sakon bat. Egia zahar bat, prostitutaz solas egiten dugunean ezkututzen dena: zenbat zareten parean duzuen pertsona, emakumea, deshumanizatzeiko gai. 2.000 egunero bai, gutxienez.

dituen, ea norbaitek hor egotera behartu ote duen, ea zenbatgarrena ote naizen... pentsatu gabe, galdetu gabe, guk nahi dugun hori eginazteko prest gaudela. Zaudela.



JOANES ILLARREGI MARZOL

Desfasea

Martxoan konfinatu gintuzten eta, azkar edo motel, baina pasatu ziren bi hilabete eta gehiago etxetik atera gabe. Garai hori amaitzean iritsi ziren deskonfinamendu edo deseskalatzeiko faseak. 0. fasean paseora joan, 1. fasean tabernetako terrazak ireki aforo mugatuarekin, 2. ean kultura «berpizten» hasi zen antzoki eta antzekoen irekiera mugatuarekin, eta 3. eta azken fasean hondartzara joateko baimena eman ziguten. Normaltasun berrira ohitzen hasi ginela zirudienean, ordea, beste fase bat agertu da gure aurrean: desfasea. Eta ez da zehazki guri hainbeste gustatzen zaigun desfasea, herriko pestetan txosnako barran goizeko zortzietan ematen den desfasea. Kurtso hasiera bezala ere izendatu dute batzuek.

Ikasturtea hasi da, eta inork ez dakigu non gauden. Unibertsitaterako matrikula egiteko garaian %75eko aurrez aurreko ikaskuntzaren bermea eskaini zigun EHUK, emandako hitza betetzeko gai izanen zenaren ustetan. Hiru aste igaro dira klaseak hasi direnetik eta campusa zapaldu ere ez dut egin. Beste ikasturte batzuetan hautu propioz gertatzen zen hori, aurrean, ordea, halabeharrez.

Batzuei ordulariak eskuetan leher egin die. Iraila iristear zela, EAEn hezkuntzara itzulera prestatzen aritu beharrean, lehen-dakariordearen postu (ia) gorena nork beteko zuen erabaki-

«LEHENDIK HEZKUNTZAN ZEUDEN HUTSAK AZALERATU DITU COVID-19AK»

tzen ari ziren. %75ko aurrez aurrekotatua bermatu zuten egin genituen guztiok ikasle pisuetako kontratuak, eta hor gabiltza orain, pisuarekin baina aurrez aurreko klaserik eman gabe.

Egun batzuetan sei ordu telematikoki jarraitzea da gure ikasturteko ordutegiak eskatzen diguna. Sei ordu pantaila bati begira egotea, beste pantaila bati hizketan ari zaion irakasle bat ikusiz. Eta irakasleak ere, normala den bezala, ez daude prestatuta egun batetik bestera beraien ikasgaiak telematikoki ematen hasteko, egoera berrira egokitu behar izan dira, baina ez da beraiei dagokiena.

Irailaren 3an Nafarroako hezkuntzako eragileek ikasgeletara itzulera seguru eta adostu bat nahi zutela eskatu zuten, eta irailaren 15ean EAEko Hezkuntza Komunitateak greba deitu zuen, hezkuntzara itzulera aurrez aurrekoa eta segurua izan dadin eskatzeko. Ordutik igaro da denbora eta, gauza gutxi aldatu direla uste dut. Langileei, ikasleei eta hauen familiei ez zaizkie beharrezkoak diren bermeak eskaintzen ikasturtea ganoraz hasteko. Beste behin ere, lehen pertsonen bizi dugunon hitza ez da entzun, ez da errespetatu eta bestelako interesak gure beharren gainetik jarri dira.

Covid-19aren krisiak azaleratu egin ditu lehenagotik hezkuntzan zeuden gabezia, ezin eta hutsuneak. Bertan egunerokotasunean bizi garenon hitza errespetatzea da eskatzen duguna. Hezkuntza Komunitateko zati garen heinean, erabakien parte ere izan behar gara. Horretarako, ordea, Euskal Herriko eskola eredu propioa, euskalduna, herritarra eta burujabea beharko dugu. Ikasturteak nola-hala egingen du aurrera, eta guk ere bide horretan jarraituko dugu, nola-hala.

11 GALDERA LABUR

MAITE, ANA ETA ITZIAR IGANTZIKO BERRIEMAILEAK

«Kafe bat hartuz, gustura aritzen gara berriak biltzen eta idazten»

Nola aurkeztuko zenukete zeuen burua?

Bizitzari umorez aurre egiten saiatzen garen hiru *eroskilo* gara. Umorea izan dadila gure bizitzako perrexila!

Zein dira zuen zaletasunak?

Mahai inguruko saltsa gustatzen zaigu, eta egoera berezi honetan gel hidroalkolikoa gure otorduetan sartzekotan gara (irri artean).

Igantziako berriemaile zarete maiatzaz geroztik. Nola elkartu zineten hirurak?

Igande tonto batean, mari-nittoa hartzen ari ginela, elkar zirikatu genuen eta hementxe gara.

Zergatik erabaki zenuten herriko berriemaile izatea?

Pentsatzen hasita... guk ere ez dakigu!

Nolako esperientzia izaten ari da?

Kafe baten bueltan irri ederrak egiten ditugu berriak bilatzen, eta horiek nola idatzi ezin adostu.

Herri ttikia da Igantzi. Hala ere, azken hamar urteetako bilakae-

rari begiratzuz, biztanleriak goiti egin du...

Ez da harritzekoa! Oraindik ez duzue herria ezagutzen? Igantzi aski herri polita da bere osotasunean.

Herriko bizitasunean sumatzen da igoera hori?

Dudarik gabe! Hementxe gabtza segurtasun distantzia ezin mantenduz...

Erraza izaten al da herriko berriak biltzea?

Bai, auzoetan banatuak ditugun arduradunei esker, berri fresko-freskoak izaten ditugu.

Koronabirusak ekitaldi guztiak bertan behera uztea eragin du.

Horrek gauzak zaildu dizkizue?

Azken aldi honetan, berri guztien sarrera horrelako esaldi batekin hasten dugu: 'egoera berezi hau dela eta...' (irri artean). Eta berriak ere eskas antzera izaten ditugu... Egia erran, gustura emanen genuke sarrera hori erabili beharrik ez duen edozein berri!

Nola bizi duzue bestarik gabeko urte hau?

Hori ere badugu! Baina... bestarik ez da?

Zer du Igantzik bertze herriek ez dutena? Eta zer falta zaio?

Igantziar azkarki! Eta falta... aurten sanmigelak falta izan ditugu.





1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak



IRAKURLEAK MINTZO

Demetriori, oroiminez!

PATZIKU PERURENA

Demetrio Salbarredi hil omen da, zabaldu da Leitzako herrian. Aspaldixkotik osota erretiratua bizi baitzen, bere Mikone-Bordatxuri bihotzekoan. Nola isildu, hiru-lau hitz esan gabe.

Barkatuko al naute, nik baino askoz hobeki ezagutu eta tratatu dutenek.

Ez, ez da erraza haren arimaren alderdi guziak hemen azaltzea, baina, deus baino lehen esanen nuke nik, ezagutu dudana abertzalerik finena, maitagarriena eta erromantikoena izan dela Leitzan. Zenbat oroipen xalo, zenbat, ikastola, txistu, euskal dantza, mendigoizale, erromeria, aberri egun... elkarrekin bizi izandakoak huts-hutsik!

Hara eta hona txistulari talde gaxtearekin ibili zeneko garai hartan ezagutu nuen nik aurreneko aldiz, beste askoren artean, bere seme alaba Andone eta Jokin ere tarteko genituela: Saldiasera, Ezkurrara, Eratsunera, Santa Garazi Uitzikora, Betelura, Aralarko Aberri Egun haundira, Urkizuko txabola... Gero, Karrapeko taberna Guraso Elkartek erabili zuenean ere, ikustekoa izaten zen gizon hark jartzen zuen enpeinua, gure txistuari esker, plazako txikiei igandero Ingurutxo dantza arazten.

Eta nork ez daki Leitzan nola emozionatzen zen gure gizona, ederrago beharrez, bere ohiko hizkera ahazteraino, Garaikoetxea ikustean edozein hitzaldi edo mitinetan. EAJ erdibitu zenean, pena haundiz bazen ere, Garaiko zale amorratua bihurtu baitzen. Oi Danboliñeneko leihopean

beti tente egoten zen ikurrina hark hitz eginen balu!...

Beste pena haundia, ETaren eraginez sartu omen ziguten ziriarena izaten zuen: zorioneko hatxearena. Oraindik sasoiko zela istripuz hil zitzaion seme Iñakirekin ere oso harro zegoen, herriko ekintza abertzale guzietan buru-belarri zebilela ikustean. Karlos Gazteluren ondotik AURRERA K.E.ko buru izan zen bolada luzean, batik bat. Atzenerako *Lehendakari* deitzen bai genion. Beti fin eta errespetuz, baina bai, zorioneko politika, maiz aita-semeen arteko ez bai.

Euskarazaintzakoa ere izana baitzen gure Demetrio erromantikoa. Pentsa! Niri ere bidaltzen zidan urteroko aldizkaria eta; baita Txomin Iakakor-texarena apaiza berastegiar trebeak idatzi zituen lan guziak ere: gure odol RH- garbiari buruzkoak eta erlezaintzaz idatzi zituen bi liburu mardulak, besteak beste. Oi zeinen xaloak biraorik gabeko gure euskara xahar jator hartaz seko maitemindurik dauden xaharrok! Lekutan gelditzen ari zaizkigu, lekutan gelditzen ari zaizkigunez!

Seme Iñaki aipatu dizut lehen. Eta haren hiletan Leitzako eliz atarian ozenki eta goraki esan zituen agur hitzak dauzkat gogoan oraindik, beren oihartzun sarkor eta guzi, gorputza kanposantura abieran zutela: «Egun Aundirarte, Iñaki!». Bai, hara ailegatu zure Egun Haundia ere, Demetrio, gaxte galdu haien gidari erromantiko izan zinen artzain xalo ezin hobea, zu. Seguru pozik eta airoso besarkatu duzuela gaur aita-semeak, batere elkarren eragozpen politikorik gabe, zeuen arima abertzalea onenera

bildurik. Nire doluminik bihotzekoenak familia guziari, eta bereziki seme alabei: Andone, Nekane eta Jokin.

Eskerrik asko

EDURNE GOMEZ

Nahiz eta bukaera luze honetan esku batekin kontatzeko adina hitz eduki, bukaeraraino zurekin eraman dituzu bi hitz hauek: *eskerrik asko*. Ez dut sekula ezagutu, *attuna* Demetrio, zu bezalako pertsona on, zintzo, maitekor, gozo, bakezale eta esker onekorik. Orain, niri tokatzen zait zuri eskerrak ematea. Bai, *eskerrik asko attuna* zu ezagutzeko aukera emateagatik, nire bizitzaren parte izateagatik eta nahiz eta nire bizitza guztia zure ondoan egon, 3 urte berezitan zu zaintzeko aukera emateagatik. Izan ere, opari bat izan da hainbeste momentu polit zure ondoan bizitzea. Eta noski, ezin eskerrak eman gabe gelditu momentu horiek guztiak aurrera eramatea posible egin duen nire senar Eneko. Zuregatik ez balitz, Eneko, ezingo nituen horrelako momentuak bizitu. *Eskerrik asko Eneko* zure ulermenarengatik eta uneoro nire ondoan egoteagatik.

Eta nola ez, bukaera arte *eskerrik asko politte* esan zenion zure alaba kuttun Andoneri. Ezin sekula eskertu zuregatik egin duen guztia. A ze oroitzapen polita eduki behar duen beti. *Eskerrik asko* hainbeste irakasteagatik ama. Oso bide luzea eta gogorra izanda eta egia esan, ez dakit nondik atera duzun horrelako indar eta kemena. Guretzako adibide eta eredu ikaragarri bat zara. *Eskerrik asko* bihotz-bihotzez.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

HEMEROTEKA



«Behin baino gehiagotan haserretu naiz, parrandan adibidez. Nongoa naizen galdetu, 'hendaiarra' erantzun eta 'frantsesa orduan!' erran izan didatenean. Gazteagotan, Zaldibiara joaten nintzen sarri lagun batekin, bertakoa baita bere aita. Eta hamai-ka halako bizi izan genituen. 'Orduan zuek espainolak' erraten genien. Eta sekulako iraina bailitzan hartzen zuten. Oraindik ere, euskaldun bati espainol deitzea isekatzat hartzen da, eta zuri frantses erraten dizute eta ez da deus pasatzen.

MADDI ANE TXOPERENA ARGIA. 2020.09.06

BOTA BERTSOA

BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETAN D MAILAN, 2. SARIA

AITOR AROTZENA ALBITZU

LESAKAKO BERTSOLARIA

Koronabirusaren aurkako txertoa Teletienda

Doinua: Haizak hi mutil mainontzi



*Koronabirus lehenbizi
gero COVID-19
ustekabeen har dezakegu
bihar edo etzi;
Baina ez dezagun etsi
ez dugu hori merezi
horretarako guztiok gure
txertoa bereizi (bis).*

*Birusa bada korona
Txertoari dariona
Errepublikak, berdintasuna
eta zoriona;
desager dadin Borbona
zuzenean dator hona
behar genuen sendagai duin,
merke eta ona (bis).*

*Felipe (e)ta Letizia
Zein bikote berezia!
Dena du xarma, dena glamurra
(e)ta dotorezia;
Baina orain justizia
datorkie merezia
txerto honekin kenduko zaie
tonteri guzia (bis).*

*Errege ta erregina
brillo txuriko domina
Negozio beltz, prentsa arroxa,
odola urdina;
Baina orain imajina
gozoa da ahalegina
legearentzat egitan denak
berdinak bagina (bis).*

*Txista edo aspirina
lanean ari da Txina
hau bai dugula inbento ona,
ez penizilina!
Juan Carlos eta Corinna
jauregi eta pizsina
guztietatik despatxatzeko
hondeamakina (bis).*

*Bostwanako elefantea
eta Fortuna yatea
«Ez da gehiago hau gertatuko»
ozen erratea;
apur dezagun katea,
berorrenzako kaltea:
zergatikan ez zara ixiltzen
hor duzu atea! (bis).*

*Udan bela, negun eski
Zarzuolako amezti
kapritxo hauek izaten dira
guretzat garesti;
ereserkia abesti,
jarri daitezen amesti
botikaz bete eta orratza
sartu ezti-ezti (bis).*

*Gaurko eta emerito
begira zenbat merito
txortaldi baten lehenak izan
ziren eta kitto!
baina ez dugu etsiko
xiringari saka tinko
dirua bueltan eta desager
daitezen betiko (bis).*

*Froilan, Sofia, Leonor
gure kontura daude hor
bere menpeko denen sakela
uzten dute lehor;
arraza garbiko behor
bi mila zaldiko motor
gaurtik aurrera, bertzeen gainetik
ez da izanen nehor. (bis)*

*Maritxalar, Urdangarin
sudur eta esku arin
Bi pieza hauen berri bazuten
Madrilen, Euskadin;
Berdin sexu edo adin
'Retromonarquicocadin' ©
gogotik hartu jende artea
sano bizi dadin. (bis)*

*Franco zenaren oinorde,
inguruko babalore
txertoak ongi lan egiteko
ez daitezen gorde;
oraintxe bada tenore
agur baina ez ohore
denak kanpora bidali egun
bihar baino hobe. (bis)*

*Inda eta Ana Rosa
Bufoia eta panpoxa:
«Monarkia hau beharrezko da,
bertzela kaosa;
koroa eta karroza,
erakunde aproposa»,
kazetariak begi-bistatik
kenduta ze poza! (bis)*

*Telebistan Peñafiel
nagusien zakur fidel
Griso, Piqueras, Pastor, Ferreras
hemen bada nibel!
Orain denak daude goibel
aitzinean zena gibel
ipuina aldatu eta printzea
bihurtu da igel. (bis)*

*Urkullu eta Txibite
hara ze bi satelite!
aunitzik ez dutela agintzen
ongi badakite;
Elkarren arteko pike
mozioa, helegite
deustarako ez dute balio
Hor bada Felipe. (bis)*

*Fuero eta estatutu
oraindik ezin burutu
baina errege-audientzian
hitzak ongi neurtu;
reberentziaz agurtu
eta bizkarra makurtu
etxean buila pixko bat egin
baina gero mutu. (bis)*

*Iragarki hau, mesedez
botika batena denez,
farmazeutiko bati galdetu,
joka (e)zazu senez!
Bi zentilitro gehienez,
nahikoa dirudienez,
sendatu eta topa dagigun
geronen omenez. (bis)*

«Musikatik bizi nahiko nuke, baina baldintza duinetan»

PETTI BERA KO MUSIKARIA

Azken diskoa argitaratu zuen udaberrian Pettik 'Manipulazio estrategiak' izenburuarekin. Bere bakarkako ibilbidean azken lana duela iragarri du beratararak

M.MARTIARENA | BERA

Manipulazio estrategiak izenburuko lana da Pettik (Bera, 1973) argitaratu duen azkena. Petti gisa bere azken lana, musikako bakarkako ibilbideari amaiera emanen baitio lan honekin. Chomskyren pentsamendua, Harkaitz Canoren poesia eta Pettiren musika, hirukia oinarri dituen disko borobila osatu du beratararak. Oinarriari forma emateko ondoan izan ditu Etxeko uzta (Joseba Irazoki eta Igor eta Iñigo Telletxea), Et incarnatus hari-laukotea, Juanxo Zeberio teklatuarekin, Gorka Benitez saxoarekin, Toño Muro eta Angel Unzu gitarrekin eta Maite Larburu koroetan. Uda-berrian eskaini behar zuen aurkezpen kontzertua eginen du udazkenean, urriaren 4an Bilboko Guggenheim museoan. **Diskoa osatu aitzinetik argi zenuen azkena izanen zela?**

Argi ez, baina buruan zegoen ideietako bat zen diskoa prestatzen ari nintzen bitartean. Horregatik egin nahi nuen disko osoago eta beteago bat. Musika guztiz uztea ez dut pentsatua, baina Petti bezala hau da nire azken lana. **Zerk eraman zaitu hori erabakitzera?**

Musikari izanda bizitzea hagit zaila dago. Bizimodu honekin ez duzu segurtasun ekonomikorik, kontraturik gabeko lanak izaten dira gehienak eta azkenean hobe da lan kontuetan zerbait finkoagoa eta segurua-

goa izatea etorkizunari begira. Alegia, musikak gaur egun ematen ez didanak ekarri nau honaino.

Berria egunkariko elkarrizketa batean harakin bezala lan egin nahi zenuela irakurri genuen.

Lehen ere harakin bezala lan egindakoa naiz eta horretan aritzea gustatuko litzaidake. Ez duzu fabrika bezala egun osoz gauza bera egiten, ez da hain monotonoa eta hori gustatzen zait. Nik musikatik bizi nahiko nuke eta jarraitzea gustatuko litzaidake, baina baldintza duinetan.

Zer da musikaria izatea?

Jendeak uste du musikari izatea astean behin ordubete edo

ordu eta erdiko kontzertu bat ematea dela eta gero hurrengo kontzertura bitartean jainkoak bezala bizi zarela. Ez dira konturatzen gibelean dagoen lan guztiaz. Kontzertu batetik bertzerantz entseguak izaten ditut, taldearekin edo bakarka, alde batetik bertzerantz ibili behar dut eta horrek ez du baliorik. Jendeak ez du ikusten lanbide bezala eta aunitzetan ez dute ordaindu nahi izaten. Etxetik ateratzeak gastu bat du: gasolina, peajeak, gitarraren sokaren bat puskatuz gero kontzertua, klaseak hartze... Gauza bat da musikarekin ez irabaztea, baina bertzea da galtzea.



'Manipulazio estrategiak' lana aurkezten ari da Petti. JOSEBA BARRENETXEA

Azken diskoa izanik desberdina izan da?

Mimo aunitzez gehiagorekin prestatu dut, disko borobila nahi nuelako. Jende aunitz dago tartean, musikari bikainak guztiak, betiko lagunez gain orkestra bat ere badago. Orain arte bakarka edo Etxeko Uztarekin egin ditut diskoak eta honetan ur handiagoetan sartu naiz. Orkestra batekin grabatzeko konpositore bat behar da, bere denbora eta dirua eskatzen ditu. Lan egiteko modua eta erritmoa desberdinak izan dira.

Zergatik Manipulazio estrategiak?

Noam Chomsky pentsalariak egindako hausnarketan gainean Sylvain Timsit idatzi zituen manipulazio mediatikoaren hamar estrategiak. Bertan azaltzen ditu manipulaziorako medioek erabiltzen dituzten hamar estrategiak zein diren. Azken batean mediatikoki gurekin nahi dutena egiten dute. Jende guztiarekin ez, baina Internetekin eta prentsarekin hori lortzen dute, manipulatzeko. Chomskyren mezu hori zen azaleratu nahi nuen. Jendeak ezagutzea, jakitea nolako munduan bizi garen eta norbaiti zerbaiterako balio badio, gustura egindako lanarekin.

Pandemia aitzinetik egin izan arren, diskoak zentzu berezia hartu duela diote.

Chomsky egunero aipatzen dugu orain, baina aitzinetik sekulako egunerokotasuna zuen gaiak. Ez da pandemiaren kontua bakarrik, aspalditik mugikorraren bitartez hagit kontrolatuta gaude. Badakite non gauden, zer egiten dugun: errepideko bide sari bat ordaintzerakoan badakite nondik eta ze ordutan pasatu zaren, txartelarekin ordaintzen dugunean, oporretara joaten garelarik... Hori guztia ez da oraingo kontua, urteak daramatzagu horrela, baina ez gara konturatzen. Pandemiak gehiago azaleratu du egunero bizi dugun zerbait eta diskoak hori azaltzen du.

Gertzatzen zaizkigun gauzak eta nola kontrolatzen gaituzten.

Letrak Harkaitz Canok egin ditu, nolakoa izan da elkarlana?

Lehenagotik ere letra batzuk egin izan dizkit, baina hau zailagoa izan da. Disko osoa bere hitzekin osatua dago. Hamar estrategiak hartu, berriatzi, bere terrenora eramane eta poesia bihurtu ditu. Musikatzerako orduan hasi zen elkarlana. Parterik zailena izan da batetik letren metrika eta musika estiloa uztartzea. Bertzetik hitz bat, esaldi bat edo bertso bat gehiago sartu, aldatu ala kentzea. Erabaki horiek elkarrekin hartu ditugu.

Diskoak ezin banatu gelditu zinen.

Zer sentimentu pilatu zitzaizkizun?

Desilusioa izan nuen, bi urteko lana eta aurkezteko tenorea ailegatu zenean ezin deus egin. Frustrazio puntu bat izan nuen, baina urteekin ikasi dugu gauzak sobera gaizki ez hartzen eta ezin bada esperatzen.

Erritmoa galduarazi zizun?

Guztia fresko genuen, hitz guztiak buruz bikain nekizkien eta sekulako gogoia jende aitzinean jartzeko. Denbora pasatzen ari zen bezala nik ez nuen batere gogorik diskoa berriz entzuteko. Denborarekin buruan duzuna ere motteltzen joaten da eta herdoildu ere bai. Berriz jotzen hasi naizen arte ez dut gogorik izan kantuan hasteko eta orain komeriak freskotasuna berreskuratzeko. Kontzertuak eman ahala joan gara erritmoa hartzen.

Nolakoa izan da itzulera?

Hagitz gustura nago eta jendea ere hori erraten ari da. Lesakan egin genuen lehenbiziko kontzertua taldeko guztiek elkarrekin eta hagitz ongi ateraz. Gu gustura aritu ginen eta jendeari ere hori transmititzen saiatu ginen.

Bakarka ere aurkeztu duzu diskoa?

Zaila da hamar lagunek egingako lana bakarrik defenditzea. Saiatzen naiz kanta bakoitzaren mezua ahalik eta hobekien



Petti moduan argitaratuko duen azken lana dela erran du Berako musikariak. JOSEBA BARRENEXETA

transmititzen. Nahiz eta desberdina izan, jendeak ongi hartu du. Orain berriz ere taldearekin izanen ditugu emanaldiak eta bertze salto bat izanen da aurkezpenekin.

Bukaera datarik jarri duzu?

Egitea kosta zaigun guztiarekin ongi aurkeztu beharko dugu. Diru eta lan aunitz jarri dugu eta oraintxe bertan ez dugu utziko. Hurrengo urterako bertze kontu batzuetan sartzea espero dudan arren.

«MEDIATIKOKI GUREKIN NAHI DUTENA EGITEN DUTE»

Orain ere bizi aldaketa dut, aldaketa garai hau pixka bat aprobetxatuz Iruñera noa bizitzera, hiriburura. Lan normal bat topatzen saiatuko naiz eta ikusiko dugu. Balerdi Balerdi taldearekin jotzen jarraituko dut eta seguru bertze saltsaren batean sartuko naizela. Errandakoa, ez dut musika erabat utziko.

Kultura lehendik zaurgarria zen, orain egoera makurrean gelditu da.

«KULTURA EZ DELA ARRISKUTSUA ERAKUSTEN ARI GARA»

Ni zortea izaten ari naiz, bakarka kontzertu batzuk egiten ari naizelako. Baina bai, inguruan hagitz egoera zailean dago jendea, musikariak zein teknikariak. Zerbait aldatzeko zer edo zer egin ahalko bage-nu eginen genuke, baina ezin da deus egin. Erakundeen aldetik ikusten ari gara kultura nola tratatzen ari diren, batzuketari diralaguntzen saiatzen. Lesakako kontzertuan ikusi genuen kultura segurua dela eta hori leku guztietan egiten ahal da. Baina erakundeek ez dute nahi, bertze gauza garrantzitsuagoak dituzte. Kultura ez dela arriskutsua erakusten ari gara, baina betikoan gaude. Eurek dira eskua eta gu txotxongiloak gara.

Ziurgabetasuna nagusi ostalarien artean

Koronabirusaren eragina gehien sumatu duen sektoreetako bat da izan da ostalaritza eta ekonomikoki kolpe handia hartu dute. Eskualdeko ostalariek ongi dakite hori eta etorkizuna ere ez dute sobera argi ikusten

G. PIKABEA

Haserre, kezka, ezjakintasuna, ziurgabetasuna... Eta horri guztiari lanaren jaitsiera nabarmena gehitu behar zaio. Ez da urte ona izaten ari ostalaritzarako. Udaberrian, negozioak halabeharrez itxi egin behar izan zituzten, eta behin irekita hainbat neurri hartuta egin behar izan dute aitzinera; bertzeak bertze, ordutegian eta edukieran murrizketak egin.

Haserre mintzatu dira behin baino gehiagotan, kexu agin-

duekin, kexu administrazioarekin eta kexu neurriak betetzen ez dituzten sektoreko kideekin. Kolpe handia izan da, eta gehiago edo guttiago denek sumatu dute eragina. Gehiago ere bai, kasu aunitzetan begiz joak sentitu dira, ostalaritzaren sektorearekin lotu izan direlako birusaren kutsatze kasu aunitz.


Sei testigantza

Eskualdeko ostalarien egoera hurbiletik ezagutu nahian, Irurita eta Elizondoko Arkupe

gozotegiko Garaxi Urtasunen-gana, Beintzako Orbela ostatu-aterpetxeko Mikel Albisurengana, Berako Zubiondo jatetxeko Iker Zubietarengana, Elbeteko Posadako Belen Urrutiarengana, Zugarramurdiko Graxiana aterpeko Eli Garmendiarengana eta Leitzako Beatrizenea taberna-jatetxeko Beatriz Zabaletarengana jo du TTIPI-TTAPAK. Guztiek eduki dute erabat geldirik negozioa, bi hilabetez batzuek eta hiruz bertzeek, eta irekitzeko aukera izan zutenean «poliki-po-

liki» ekin zioten bideari. Ego-naldietako eta otorduetako hainbat eta hainbat erreserba bertan behera gelditu zaizkie, herrietako bestarik ez izatearen hutsunea ederki nabaritu dute... Hala ere, badira, hasiera motelaren ondotik, udan, bereziki uztailetik aitzinera, espero ez bezala, lanak gain hartuta aritu direnak.

Udako hilabeteak pasatuta, ordea, ziurgabetasun sentimendua nagusi da denen artean eta sektoreko negozio aunitzen etorkizuna kolokan ikusten dutela aitortu digute, zenbaiten kasuan desagertzearaino. Kontuak kontu, Urtasuni, Albisuri, Zubietari, Urrutiari, Garmendiari eta Zabaletari ez zaie lanerako gogorik falta eta eginahalak eta bi eginen dituzte urte luzetan eraiki duten bideari eusteko, zalantza beteta badaude ere, garai hobeak etorriko diren itxaropena ez dutelako galdu nahi.



Udan jende aunitz izan dutela dio Arkupe gozotegiko Garaxi Urtasun Erasok.

«Egoera honek zeinen zaurgarriak garen erakutsi digu»

Bi hilabeteko geldialdiaren ondotik, maiatzean hasi ziren lanean Irurita-Elizondoko Arkupe gozotegian, Garaxi Urtasunen hitzetan, «pixkanaka, langile guttiagorekin, ordutegia murriztuz, produktu guttiagorekin...». Ekainera arte «motel» aritu ziren, ekain akabailan atera ziren ERTEtik eta udan «urteroko eskari handirik izan ez zen arren, jende aunitz» izan dutelako «kontent» dago. Arduraz jokatzearen aldekoa da, baina «proposatutako neurriak ez zaizkit osasuntsuenak eta zentzudunenak iruditzen. Mahaiak eta aulkiak behin eta berriz desinfektatu behar dira, baina ez da inon aipatzen elikadura osasuntsu batek sistema immunea indartzen duela, edo estresak edo beldurrak ez dutela batere laguntzen». Bere irudiko, «bizi dugun egoera honek zein zaurgarriak garen erakutsi digu».



Beintzako ostatu-aterpetxeko Mikel Albisuk «kolpe latza» hartu dutela dio.

«Beti bada zer ikasia eta berriz burua altxatuko dugu, seguru»

«Kolpe latza» hartu dutela aitortu digu Beintzako Orbela Ostatu-Aterpetxeko Mikel Albisuk. Udaberrian itxita eta udan %50 azpitik aritu ondotik, udazken-negua «iluna» espero du: «gure bezero nagusiak eskoletako taldeak eta asteburuetako kuadrillak dira». Neurrien harira ere aritu da: «nik gaueko hamabietan itxi, eta bertze batek berandu arte segitzen badu eta ondorioz neurriak zorrotzen badira, zertarako balio du zintzo lan egiteak?». Gaineratu digunez, «ostatu eta turismoa zerbitzu aunitz maizterrak gara eta ordaintzen dugun errenta jarduera ekonomikoa-rekin lotua dago. Lanik gabe, errenta itogarria da eta negozio aunitz desagertu edo larri geldituko dira. Baikorra izan nahi dut, bezeroak etortzeko gogotsu daudelako. Egoera guztietan zer ikasia bada eta berriz burua altxatuko dugu, seguru!».



Berako Zubiondo jatetxeko Iker Zubietak Irizarrek lan guttiago dutela dio.

«Murritzeta gehiagorekin ostatu ttiki aunitz itxiko dira»

«Lana %30 inguru jaitsi» zaie Berako Zubiondo jatetxean. «Bi hilabete osorik itxita izatea kolpe handia» izan zela dio Iker Zubietak, eta «bueltan lan guttiago» omen dute, «batez ere asteburuetan. Astegunez, langileekin lan aunitz egiten dugu eta eragina ez da hain handia izan». Neurriak «hirietako ostatuei begira» hartutakoak iruditzen zaizkio, eta «batzuk neurrigabeak». Sektorean «ziurgabetasuna» sumatzen du eta «ostalaritza gehiago zorrotzko dutela» iruditzen zaio: «turismoarekin ekonomia mantentzeko uda pasatzen utzi dute baina turistak joaten direnean, neurri zorrotzagoak hartuko dituzte». Eta hala, «ostatu ttiki aunitz itxeko arriskuan izanen dira». Zubiondon «nahiko ongi» badaude ere, «erne ibiltzea garrantzitsua» dela-koan dago, «dena hankaz goiti ez gelditzeko».



Elbeteko Posadako Belen Urrutia Hualdek udan lanez gainezka ibili direla dio.

«Ostalaritza izan da gehien zigortu duten sektorea»

Udaberrian negozioa hetsita izateak sortutako «galera handiaren» ondotik, «poliki-poliki» hasi ziren martxan Elbeteko Posadan. Uda, ordea, «guztiz kontrakoa» izan dutela dio Belen Urrutiak, «jendea biharko egunik izanen ez balitz bezala atera delako». «Lanak gain hartu» diela aipatu digu eta «estresagarria» izan dela: «distantziak ezarrita, mahai gutiagorekin aritu behar izan dugu, eta bakoitzeko kopurua mugatuta, ezin izan diegu etorri diren guztiei jatera eman». «Ulertezina» iruditzen zaio «ostalaritza halako muga neurrigabeak eta zentzugabeak ezarri eta ikasgeletan 20-30eko ratioak onartzea. Iduri du gehien kutsatzen duen sektorea dela; zigortuenak izan gara». Ez du argi etorkizuna nolakoa izanen den, baina «baikorra naiz eta heldu den urtean pasatua izanen dela uste dut».



Zugarramurdiko Graxiana aterpeko Eli Garmendia Bergara.

«Manipulazio bat da baina ondorio ekonomikoak kezkatzekoak dira»

Hiru hilabetez negozioa hetsita, «eragina arras handia» izan dutela dio Zugarramurdiko Graxiana aterpeko Eli Garmendiak. «Kolpe gogorra» izan omen da: «jaketxea bakarrik erabili dugu» eta «ikastetxeetako taldeez gain, udaleku eta barnetegirik gabe gelditu gara». Bere irudiko, «manipulazio handi baten atzaparretan gaude, baina ekonomikoki izan ditzakeen ondorioak edozein kezkatzeko modukoak dira». Sektorean ezarritako neurriak, batetik, «gehiagizkoak» eta bertzetik, «zentzugabeak» direlakoan dago. Bertzelako hausnarketa bat ere luzatu du: «bertze sektore batzuk porrot egin dutenean, bankuek, adibidez, denon diruarekin salbatu ditugu. Gu beraiek baino guttiago gara?». Munduan «pandemia aunitz» daudela ere oroitarazi du, «hau mediatikoena da, baina benetan hilkorrena da?».



Leitzako Beatrizeneko Beatriz Zabaleta Zestauri lana jaitsi zaio.

«Aginduak ez dira neurrigabeak baina laguntza eskertuko genuke»

Koronabirusa dela eta, Leitzako Beatrizenea taberna-jatetxeko Beatriz Zabaletak «beherakada nabarmena» sumatu du: «jendea, normala den bezala, izutu egin da eta atzera egin du». Martxo erditik ekainaren aurreneko astera arte itxita izan zuten eta irekitzerakoan «lan handirik ez genuela eta, sufritzea tokatu zen». Halere, «pixkanaka jendea animatzen» hasi omen zen, eta udan «nahiko ongi» aritu omen dira: «baina pestarik ez da izan eta nabaritu dugu». Sektorean ezarritako aginduak ez zaizkio neurrigabeak iruditzen, baina bai «zorrotzak», eta «aurrera begira egoera honi buelta ematen laguntzea eskertuko genukeela» dio. Gaiak kezka sortzen diola ere onartu digu, «inguruan beste gairik ez da, baina horrekin bizitzen ohitu beharko dugu, eta aurrera egin. Animo, argituko da zerua».

Zaindu maite duzun hori...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*FABORITO BEZALA IKUSTEN DUT ala FABORITO IKUSTEN DUT?

Euskaltzaindiak ez du berariazko araurik eman bezalari buruz. Baina ez da egokia gaztelaniazko 'como' edo frantsesezko 'comme' guztiak bezalarekin ordezkatea; euskarak baditu molde propio egokiak horretarako. Berez, konparazio-hitza da *bezala*, eta konparazio-perpausetan erabiltzekoa; hortik kanpo, kalko-arriskuagatik, tentuz neurtzekoa da.

Hona hemen adibide batzuk:

-*Bortz urtez aritu zen Erratzun irakasle bezala

> Bortz urtez aritu zen Erratzun irakasle.

-*Pailazo bezala moztortatu da

> Pailazoz moztortatu da.

-*Faborito bezala ikusten dut Olaizola

> Faborito ikusten dut Olaizola

-*Tonto bezala hartu naute > Tontotzat hartu naute.

-*Pottokaren bidea bezala ezagutzen den...

> Pottokaren bidea erraten zaion bidea...

-*Orix bezala ezagutua

> Orix ezenez ezagutua.

Zenbait ohar

-Adibideei sarrera emateko funtzioan, (es) '(tales) como' edo (fr) 'comme' esapideen ordainetan, *bezala(ko)* baino egokiagoak dira honako hauek: *bertzeak bertze*, *esate baterako*, *eta antzeko*, *hala nola*...

-?Gure lorategietan, txantxangorria eta zozoa *bezalako* txoriak izaten dira > Gure lorategietan, txantxangorria, zozoa eta *antzeko/halako* txoriak ibiltzen dira / Gure lorategietan, zenbait txori-klase ibiltzen dira, *hala nola* txantxangorria eta zozoa.

-Kalko-arriskuak badakar **kontrako joera** ere, hau da, behar izanda ere, *bezala* ez paratzea.

-*Beti Gaztek partida galdu zuen, eta, *hori gutxi balitz*, bi txartel gorri atera zizkieten > **Beti Gaztek partida galdu zuen, eta, *hori gutxi balitz* bezala (hori nahikoa ez eta / hori gutxi ez eta / hori nahikoa ez zela), bi txartel gorri atera zizkieten.**

Solas-zopa

KAZKABAR, TXINGOR, ZIZERKOR, BABAZUZA, HARRIABAR, INATAZI...

Zein da zuk erabiltzen duzuna? Bilatu hemen!

Hieroglifikoa

Asmatu al zenuen aitzineko aldizkarian Euskararen Txokoa paratu genuen hieroglifikoa? '**Zoldazu**' da erantzuna.



EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra



EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

Emakumeentzako prestakuntza saioak urrian Lesakan

Hilabeteko ortzegun guztietan izanen dira 18:00etatik 20:00etara Harriondoa Kultur Etxean BerHeziren eskutik

TTIPI-TTAPA

Lesakako Udalak antolatu eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak eta Nafarroako Gobernuak lagundutako prestakuntza jarduerak eskainiko ditu BerHezik urriko ortzegun guztietan, bi ordutik, 18:00etatik 20:00etara, Harriondoa Kultur Etxeko Txokobiko aretoan. Saio guztiak heldu eta gazteei zuzenduak dira eta aforoa mugatua izanen da. **Urriaren 1ean, Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa**

saioa emanen dute; **urriaren 8an Ahalduntze eta autodefentsa feminista; urriaren 15ean Gorputzaren eta emozioen kartografiak; urriaren 22an Autoezagutza. Nire gorputza, nire arauak eta urriaren 29an, Ziberfeminismoa. Emakumeak, sareak eta teknologia.**

Izen-ematea

Izena emateko eta informazio gehiagorako 692 18 92 86 telefonora deitu behar da (Gizarte Ongizate Arloa).

Izan Bidea egitasmoarekin mendira oinez, lasterka eta bizikletaz larunbatean

Sarek abian jarritako Izan Bidea dinamikaren baitan, Euskal Herriko 650 tontorretara igoera antolatua da urriaren 3rako. Eskualdean ere, larunbat goizean hainbat mendietarako txangoak antolatu dituzte. Lesakatik, erraterako, 08:00etan plazan elkartu eta Izura lasterka, Bianditzera bizikletan eta Kopa eta Liza-

rrietara oinez (Gardelko eta Arritxulora kotxez joaten ahal da) joateko aukera izanen da. Beratik Manttalera abiatuko dira, Arantzatik Ekaitza eta Mendaurrera...

Larunbatean Euskal Herri osoan egin daitezkeen igoeren berri www.650tontor.sare.eus webgunean ikusgai. Izena ere bertan eman daiteke.



1979ko udaletxea, Iriarte aginte makilarekin eta 40 urte beranduago. UTZITAKOAK

Hamasei urtez Berako alkate izan zen Manuel Iriarte hil da

TTIPI-TTAPA

Irailaren 22an hil zen Manuel Iriarte Huarte, hamasei urtez Berako alkate izan zena. 1979an, Francoren diktadura bukatu ondotik lehenbiziko udalbatza demokratikoan, berak eskuratu zuen alkate makila eta, geroztik, hamasei urtez izan zen Berako alkate: lehenik 1979-1983a bitarteko agintaldian eta gero, 1987tik 1999a bitarte, bertze hiru agintalditan. Tartearen, 1983-1987, Jaime Elgorriaga izan zen alkate eta, ondotik, 1999-2003,



Iriarte 1991n, Berako alkate zenean.

Josu Goia. Berako Suhiltzaile Boluntarioen sustatzaile eta arduradun ere izan zen urteetan.



· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 - BERA



Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra
Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427





Igogailuen instalazioak.
Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.
T. 948 232 400
www.inelsazener.com

Mugikortasun plana martxan paratzen hasiak dira

«Eredu jasagarria» eta «motorrik gabeko trafikoa» bultzatuko duen plana ezartzea da udalaren helburua

TTIPI-TTAPA

Martxan paratzen hasiak dira mugikortasun planaren hainbat neurri herrigunean. Helburu nagusia «Beran mugikortasun eredu jasagarria eta motorrik gabeko trafikoa bultzatuko duena paratzea da». Oinezkoen eta txirrindularientzat atsegina izanen den herria nahi du udalak, karbono aztarna eta aztarna ekologikoa murrizten lagundu eta helburu horiek lortzeko egingen dira ekintza guztiak. Martxan paratuko diren neurriak herritarrekin egindako parte-hartze prozesuan aurkeztu eta eztabaidatu ziren eta hortan jarraitzeko «asmo irmoa» du udalak. Neurri hauek abiapuntu bat bertzerik ez direla erran dute udaletik.

Toki Onan eta Kanttonberrin aparkaleku berdeak margo-tuko dituzte beratarrentzat, gaur egun dagoen neurrigabekeria saihesteko. Eremu horietan dauden eskola eta denda-guneetara herritarren iristea erraztu nahi da.

Mukixu zubitik eskola aterainoko espaloia egiten hasiak

dira. Zia erreka aldetik aparkalekuak kendu eta espaloi egokia egiteko beharra ikusi dute, umeen eta oro har oinezkoen segurtasuna lehenesteko. Inguruan nahikoa aparkaleku badirela azpimarratu dute udaletik.

Legia karrikaren peatonalizazioaren 1. fasea egingen dute, Altxatetik Kanttonberriraino. Kanttonberritik Foru plazaraino dagoen tartean arazo gehiago daude bertako zerbitzuengatik, baina neurria karrika osoan paratu nahi da. Karrikaren sarrera itxiko da Altxate aldetik, urrutiko kontrol bidez irekiko den pibote baten bitartez, bertatik soilik egoiliarak eta herri zerbitzuak pasatzen ahal izanen dira.

Bizikletentzat karril berdea margotu eta autoen trafikoa ere duen mistoan ibiliko dira txirrindulariak. Adiadura 30 km/h-ra murriztuko da segurtasuna handitzeko.

Zebrabideak margotu, argiztatu eta hobeki seinalizatuko dira. Horrez gain Eztegarra-Bidasoa semaforoen sinkronizazioa moldatuko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tio Teronen semeen 'Festamentua'

Tio Teronen semeak taldeak dantza emanaldi bikaina eskaini zuen irailaren 19an Herriko Etxeko plazan. Oraingo honetan *Festamentua* ikusgarria egin zuten, umorez, dantzaz eta musika ezagunez betetako ikuskizun original eta berritzailea, plaza bete zutenen gozamenerako.

Koronabirusa tarteko, «egoera kezkarria» dela ohartarazi du Udalak

TTIPI-TTAPA

«Positibo kopuruaren goranzko joera etengabea» dela adierazi du udalak bando bidez. Gaineratu duenez, «egunero badira positibo berriak» eta ez hori bakarrik: «badira gai-xoak ospitalean ingresatuak eta heriotza bat ere izan da».

Egoera «kezkarria» dela dio Aitor Elexpuru Egaña alkateak sinatutako bandoak, eta «ez erlaxatzeko» eskatu du. Kutsatze gehienak familia eta eremu pribatuan gertatzen direla eta, «lagunen edo familien bilera pribatuetan gehie-

nez ere sei lagun elkartzeko» gomendioa luzatu du. Horrekin batera, terraza eta espazio publikoetako «segurtasun arau guztiak» betetzearen garrantzia azpimarratu nahi izan du: segurtasun distantzia, maskara behar bezala erabiltzea...

Udaletik argi dute «egoera aldatzea denon ardura dela, haur, gazte zein helduena. Ezagunak ditugun segurtasun eta higiene neurriak betetzea ezinbertzekoa izanen da egoerari buelta emateko. Norbere burua zainduz bertzeena ere zainduko dugu».

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

AUZOA GO!

Etkez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAn

ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 631 509

Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara

LABE ZAR

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 • Altxate, 17 • BERA

ERANDONEA, s.l.
FOTOGRAFIA BARRASLAN

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

T. 637 40 86 40 • 31780 BERA
andoni.lasaga@k-sat.com

Hamar minuturako aparkalekuak margotu dituzte

Erosketak egiteko edo zerbitzuetara joan ahal izateko guneak dira eta karga-deskargarako puntuak ere paratu dituzte

AITOR AROTZENA

Mugikortasunaren alde egiten ari den lanen barrenean, udalak gehienez hamar minutuz gelditzeko aparkalekuak gorritz margotu ditu herrigunean, mandatuak egin ahal izateko, erosketak egiteko, udaletxera edo zerbitzuetara joan ahal izateko.

Zehazki, udaletxe aitzinean lau aparkaleku paratu dira, astegunez 08:00etatik 14:00etara irekiak egonen direnak. Ordutegi horretatik kanpo itxita egonen dira, udaletxearen aitzinaldea libre izateko bolardeak jartzen baitira. Bertze bi aparkaleku Arretxea karrikan ezarri dituzte, Iñaki janari-dendaren parean. Eta bertze bortz leku Plaza Zaharreko aparkalekuan paratu dituzte. Hauetan, astelehene-tik ortziralera 08:00etatik



Hamar minuturako guneetako bat.

13:30era eta 16:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 08:00etatik 13:30era geldi daiteke hamar minutuz. Ordutegi horretatik kanpo aparkaleku arruntak izanen dira.

Hauetaz gain, karga-deskargarako bertze zenbait puntu ere paratu dituzte Rural Kutzaren parean (goizez), Zabaleta dorrearen aitzinean eta Txinelka zapata-dendaren parean.

Beti Gazteren argazki lehiaketarako lanak urriaren 31 arte aurkez daitezke

TTIPI-TTAPA

Beti Gazte elkarteak argazki lehiaketa antolatu du aurten goan ere udalarekin elkarlanean. Argazkiak posta elektroniko bidez soilik jasoko dituzte urriaren 31 bitarte fotobetigazte@gmail.com helbidean eta argazki erakusketa osasun egoerak uzten duenean egingen dutela esan dute. Nahiz eta azaroaren bueltan izatea aurreikusten duten.

Antolakuntzak izendatutako epaileek erabakiko dute nor den irabazlea eta erakusketa zabaltzen den egunean erranen

dute bere izena. Erakusketa epaimahaiak erabakitako argazkiek osatuko dute. Osasun neurriek uzten badute azaroaren 8tik abenduaren 6ra egonen paratuko dute erakusketa.

Lehen saria 375 euro eta trofeoa izanen dira eta bigarrenarentzat 275 euro eta trofeoa. Lesakar onenak 225 euroko saria jasoko du trofeoarekin batera, kirol argazki onenak bezala. Egile bakoitzari sari bakarra emanen zaiola erran dute antolakuntzako kideek.



UTZITAKOA

Mendi irteera Arrano elkartearen egunean

Arrano elkartearen egunean, irailaren 19an mendi irteera egin zuten Agiñara, oinez batzuk eta bizikletaz bertzeek. Azken hauek, Arrano elkartearen txirrindularitza ekipazio berria estreinatzeak aukera ere izan zuten. Agiñan, gosaritzo bat izan zuten, ekitaldia borobiltzeko.



AITOR AROTZENA

Zea Mays taldea udako zikloa ixteko

Uztaillean Pettik plazan eskainitako kontzertuarekin abiatu eta irailaren 20an Harriondoan Zea Mays taldeak emandakoarekin borobildu dute aurtengo udako kultur zikloa. Tartean, txotxongiloak, magia, antzerkia, bertsoak, dantza, haurrentzako jokoak... denetarik izan da.

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826

kattagorria
LESACA
948 627 514
www.kattagorria.com

744 484 361
ttipi-ttapa

85 ikaslek ekin diote ikasturte berriari Landagain eskolan

Hiru urteko hamabi ikasle hasi dira protokolo guztiak betez 2020-21 ikasturte berezian

IRUNE ELIZAGOIEN

Ikasturte hasiera berezia izan da aurtengoa, baina irakasleek indarrarekin ekin diote ikasleak ikusteko gogoz bait zeuden. Hiru urteko 12 ikasle hasi dira eta guztira 85 ikasle daude haur eta lehen hezkuntzan. Protokolo berezia jarri dute martxan Hezkuntza Departamentuaren jarraibidea aintzat hartuz. Hasierako egunak ikasleei neurriak azaltzeko erabili behar izan dituzte.



Pilota eskola ez da hasiko oraingoz.

Eskolaz kanpoko ikastaroak

Birusak eraginda ez da ohiko ikasturtea izanen eta eskolaz kanpoko ikastaroetan antze-manen da hori. Dena den, pandereta ikastaroak aitzinera segitzen du eta asteazken eta ortzirale arratsaldetan izanen dira klaseak. Trikitixa ikasteko aukera ere izanen da

Itsaso Elizagoien eskutik ortzirale arratsaldetan. Altxatak, berriz, momentuz, eskolaz kanpoko ikastarorik ez ematea erabaki du, baina ez du baztertzen ikasturtearen martxa ikusita dantza eta pilota ikastaroekin hastea.

Elizagoien ahizpak Iruñeko Oholtzan urriaren 4an

Urriaren 4an, igandean 19:00etan izanen da Angel Mariezkurrenak antolatzen duen *Iruñea Oholtzan* saioa Baluartan. Euskal Herriko hainbat musikari eta artistek hartuko dute parte bertan; hala nola, Josean Larrañaga (*Urko*), Serafin Zubiri, Estitxu Pinatxo, Paz de Ziganda helduen abesbatza, Gasteizko Algora dantza taldea, Dani Conde eta Etxalarko Elizagoien ahizpak. Sarrerak salgai daude www.baluarte.com web gunean eta EITBk grabatuko du saioa.

Elizako organoa afinatu dute Suitzako bi adituk

Uztailaren 25ean Suitzatik etorriko bi adituk Etxalarko Andra Mari elizako organoa afinatu zuten. Bi urtetik behin afinatzen da 1902an Bartzelonako Alberdi y Martí tailerretan egin, urte berean elizan paratu eta duela zortzi bat urte herritarrek bildutako diruarekin zaharberitutako Etxalarko organoa. Lan ederra egin zuten eta afinatzaileek Etxalarkoa bezalako Bizkaiko bertze bi organo eta Alakanten dagoen bertze bat ere afinatu dituzte beren egonaldian.



IRUNE ELIZAGOIEN

Herri sarrerako arbola bota dute

Duela hilabete batzuk, ekainaren 3an tximistak jo zuen herri sarrerako zuhaitz handia (*ikus TTPI-TTAPA 761. zk.*). Zorionez ez zebilen inor inguruan eta ez zuen bertze kalterik eragin. Argazkian ageri denez, gerta litezkeen arriskuak ekiditeko bota behar izan dute makala (txopoa).



IRUNE ELIZAGOIEN

Enarak zaintzeko deia

Baserrietako ikuilu gehienak itxita daudenez, udaletxe azpiko arkupean bilatu dute xokoa eta bertan egin dute kabia enarek. Euliak janez elikatzen dira, beraz intsektizida on eta ekologikoa da gizakiontzat. Geroz eta gutiago daudenez, enarak zaintzeko deia egin dute.

XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBUK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

«Emakumeei espazio eta une bat eskainiko diegu tailerrean»

'Ahizpatasun artistiko tailerra' emanen du Ane Sirerak urriaren 9tik azaroaren 7ra bitarte

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Ane Sirerak udalaren bidez aurkeztutako *Ahizpatasun artistiko tailerra* eskainiko du urriaren 9tik azaroaren 7ra.

Nor da Ane Sirera Ibarluzea?

Orokorrenetik hasita, hogei-tabortz urteko gazte igantziarra naiz; ama gipuzkoarra eta aita *granainoa* dituenena. Neska xumea naizela kontsideratzen dut (orokorrean, batzuetan konplikatu samarra) eta nire eguneroko bizitzan denboragatik eta denborarentzat egiten dut lan: nire lagunekin garagardo batzuk hartzeko, liburu bat irakurtzeko edota mendira zakurrarekin ibiltzera joateko. Bizia naizela uste dut bizitzeko plazerrei ahalik eta denbora gehien eskaini ahal izateko.

Zure ikasketa ibilbideari buruz zer kontatuko zenuke?

Nire ikasketak Donostian hasi nituen Berara joan nintzen arte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak egitera. Ondotik, unibertsitatean Gizarte Langintza ikastea erabaki nuen.

Zergatik aukeratu zenituen ikasketa horiek?

Gizarte Langintza ikastea erabaki nuen hain zuzen ere, nire ideia, izaera eta balioekin bat zetorrelako (edo hori uste nuen garai hartan). Sexologia eta genero ikasketetan espezializatzea erabaki nuen (ezin baititugu kanpoko harresiak apurtu gure barruan daudenak hausten ez baditugu).

Zer esperientzia positibo ateratu duzu herritik kanpo ikastetik?

Bortzirietatik aterata nintzenetik Iruñean eta Granadan bizi izan naiz eta gehienbat aterata



Ane Sirerak emanen du tailerra.

ditudan ikasketak elkar zainztearen eta bake sentitzearen edo bilaketaren garrantzia direla erranen nuke. Kanpoan ikasteak erakutsi dit elkartasunak eta ahizpatasunak duen indarra eguneroko bizitza osasuntsu bizi ahal izateko; eta hortik bertze esperientzia positiboa: frustrazioak eta ezinegonak gestionatzen ikasi eta nirekin bakean bizitzeko tresnak martxan jartzen ikasi eta konprometitzea.

Azal ezazu zertan datzan eta zer helburu dituen Igantzin aitzinera eraman nahi duzun tailerrak...

Libe, nire lankideak, eta biok emakumeentzako zuzenduta dagoen tailer honetan emakumeei espazio eta une bat eskaintzea izan da helburua, hainbat arte teknika martxan jarri eta horien bitartez hasunarketa sustatzeko. Artea eta sormenaren bitartez emozioak azaleratu, eguneroko bizipenez solastatu, beldurrak, ezagutzak... konpartitu, gertatutakoak edo gordetakoak onartu, gure isla biografikoa landu eta horrelakoak egin ahal izanen ditugu.



XVII. gazta lehiaketan saritutakoak. OSKAR TXOPERENA

Antsonetxeberriko Enkarna Etxeberriaren gazta nagusitu da XVII. lehiaketan

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Urtero egin ohi den moduan, Biltokik antolatuta, aurten ere ospatu da herrian gazta lehiaketa. Buruilaren 20an egin zen hamazazpigarren edizioa eta zazpi lagunek hartu zuten parte; epaimahaian, betiko gisan, herriko elkarteetako zenbait ordezkari izan ziren. Antsone-

txeberriko Enkarna Etxeberria izan zen aurtengoan garaile. Bigarren saria Allinekobordako Bautista Migelenarentzat izan zen eta hirugarrena berriz, Argarategaraiko Elena Retegirentzat. Lehiaketaren ondotik egiten den gazten dastaketa, aurtengoan, koronabirusa dela eta, ez zen egin.

Gimnasia egiteko makinak Berrizaun eta Talaiaiko bidean

Bukatu zaizkigu alferkerietarako aitzakiak! Negua heldu den honetan, hezurak gogortzen utzi gabe, paratu dituzte herrian gimnasia egiteko makinak. Talaiaiko bidean eta Berrizaunen paratu dituzte. Lotsak baztertu eta hezurak indartu!

Uraren kontsumo arduratsua egitera deitu du udalak

Ur deposituan aurkitu duten ur isuria moldatzen duten bitartean (eta gero ere, ahal bada), udalak herritarroi uraren kontsumo arduratsua egitea eskatu digu: igerilekuak ez betetzea, kotxeak ez garbitzea, baratzeak neurriz ureztatzea...



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Presoak etxeratzeko aldarria Ekaitzan eta Mendaurren

Izan Bidea ekimenaren baitan, larunbat honetan, Ekaitza eta Mendaurren joanen dira herritarrak

NEREA ALZURI

Larunbat honetan, urriaren 3an, Sare preso eta iheslarien eskubideen aldeko herritarren sareak joan den maiatzean abian jarritako Izan Bidea dinamikaren baitan, Euskal Herriko 650 tontorretara igoe- ra antolatua da, preso eta iheslarien etxeratzeari alde eta elkarbizitza eta bakearen alde.

Herritarrei bideratutako erronka izanen da eta aranz- tarren kasuan, Mendaurren eta Ekaitzara egingen da bidea. 09:00etan plazan eta 10:00etan Bulatxikin paratuak dira hitzorduek eta 12:00etan bi mendietako tontorretan el- kartzeko asmoa dute.

Izen-ematea

Parte hartu behar duenak nora joateko intentzioa duen aitz-



Ekaitza da 650 tontorretako bat.

netik abisatu beharko du, bi mendi tontorretara jendea banatzeko.

650tontor.sare.eus Interne- teko atarian ere eman daiteke izena.



12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoak tailerrean.

Genero indarkeriaren inguruko tailer interesgarria egin dute gazteek

NEREA ALZURI

Joan den irailaren 12an eta 17an udalak antolatuta, gaz- teen arteko harremanetan genero indarkeria lantzeko tailerra izan zen, bi saiotan banatuta. Berdintasunean aditua den Idoia Lekue Peñak gidaturiko saioak arront ongi atera ziren.

Batetik, irailaren 12an, 15 urtetik goitiko bederatzik nes- ka-mutiko elkartu ziren. Bi orduz aritu ziren eta hizlaria eta gazteak gustura gelditu ziren. Bertzetik, irailaren 17an, 12 eta 14 urte bitarteko zazpi gaztetxo elkartu ziren eta saio honen inguruan ere balorazio ona egin dute gazteek.

Dokumentu-ondarea hobetzeko dirulaguntza hartu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Arantzako Udalak, Nafarroako Gobernuak Kultura departa- mentuak 15.000 biztanletik beherako herriei zuzenduriko artxibo-sistema propioa abian jartzeko edota finkatzeko di- rulaguntzen deialdian, 5.000 euro jaso ditu. Eskaera hiru

udalen artean egin zuten (Aran- tza, Igantzi eta Lesaka). 1992tik sortutako dokumentazioa an- tolatzeko asmoa da, honda- rreko eta bigarren antolaketa lana urte horretan egin baitzen. Joan den astean, lan horretan hasi zen Errenteriako Ereiten kultur zerbitzuak enpresa.

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Luis Ibarra

GAUR EGUNERA
EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK

ZURGIN-LANAK OROKORREAN
636 701 204

Salvatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)
ibarrazurgina@gmail.com

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T/F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allynare metodoa

gaueko konfort-kuxina

logurak

Centro Prim

regina tolosaechepe

«Bistakoa da neurriek haurren garapenean eragin negatiboa dutela»

GORKA RODRIGUEZ ETA JOSERRA LOPEZ HATSA HEZKUNTZA KOMUNITATEKO KIDEAK

Hatsa elkartearen ustez, haurren kutsatze tasa eta sintoma arinak kontuan hartuz, Hezkuntza Departamentuak hartutako neurriak ez dira egokiak. Horiek «aldatzeko» lanean ari dira

N. BAZTERRIKA | BERA

Haurren bizi-premiak ardatz dituen hezkuntza aldarrikatzeko, abuztu hondarrean sortu zuten Hatsa elkartea, Baztan-Bidasoko Hezkuntza Komunitate Batzarra.

Pandemiaren aurrean, Hezkuntza Departamentuak zehazturiko neurriekin bat ez zetozelako eman zituzten lehenbiziko pausoak: «araudia betez, haurren beharren kontra egiten delako eta neurri horiek haurren garapenean ondorio negatiboa izanzen dutela bistakoa delako».

Hatsa elkarrekin «kontinjentzia planean ezarritako neurriak berriz aztertze eta aldatzeko» eskatu du: «haurren kutsatze tasa frango baxua da eta oso sintoma arinak dituzte. Halere, eurak dira konfinamenduan eta eskolan ondorio larrienak pairatzen dituztenak».

Hori aldatzeko lanean ari dira: «gure desadostasuna adierazteko sinadurak bildu, herriz herri bilerak egin eta lanean segitzeko hiru lantalde osatu ditugu...».

Noiz, nola eta zergatik sortu zen Hatsa plataforma?

Plataformaren lehenengo bilerabuztuaren 31n egin genuen. Hainbat irakaslek pentsatu genuen ikasturtea hasi aurretik ongi legokeela elkartzea kontinjentzia planean aurreikusitako neurriekin bat ez zetozelako. Hasierako bilera deialdia irakasleei zabaldu genien arren, hainbat guraso ere etorri ziren.



Gorka Rodriguez. UTZITAKOA

Zenbat kide zaudete plataforman?

Bilera gehienetan (bost orain arte) 20 lagun inguru elkartu gara. Kopurua hasieratik berdintsua da, nahiz eta parte-hartzaileak beti berberak ez izan.

Hezkuntza Departamentuak hartutako neurriekiko desadostasunak bultzatuta sortu zenuten...

Neurriak gehiegizkoak dira, Covid-19ak haureta gazteengan

duen eragin eskasa ikusita. Gai-xotasun horri buruzko egungo ezagutzaren eta azken ikerketen emaitzen arabera, haurrak gutxitan gaixotzen dira eta gaixotzen direnean oso sintoma arinekin. Euren kutsatze maila ere helduena baino askoz baxuago da. Beste aldetik, ezarritako neurri horietan ez dago irizpide pedagogiko bakar bat ere. Osasunaren izenean, ur-

«IRAKASKUNTZA AKADEMIKORA ERAMAN NAHI GAITUZTE»

«KONTINJENTZIA PLANA KONTRAESANEZ JOSITA DAGO»

teetan eskoletan egindako lan kooperatiboa, emozio hezkuntza, berdintasunaren aldeko hezkuntza... alde batera uzten da eta garai zaharretako irakas-kuntza akademikora eraman nahi gaituztela dirudi. Bestalde, eskola batean egon den edonork jakin badaki neurri horiek guztiak aurrera eramatea ia ezinezkoa dela, polizia lana etengabe egiten ez badugu, bederen.

Haurren bizi-premiak ez direla kontuan hartu adierazi duzue...

Haurrek mugitzeko, elkar ikutzeko, emozioak adierazteko, askatasunean eta beldurrik gabe hezi eta hazteko beharra dute. Neurri hauek guztiek, araudian agertu bezala ezarritako gero, behar horien kontra jotzen dute. Ikasleek 1,5 metroko distantzian egon behar dute, elkar ezin ukitu ezta materiala partekatu ere. Euren adierazpena ezkutatzan duen musukoa jantzita eraman behar dute eskolan dauden ordu guztietan (Gorputz Heziketako salbuespenarekin). Jolasean ere elkar ukitu gabe eta ondoko taldeetako ikasleekin jolastu gabe aritu behar dute. **Zer albo-kalte eragin ditzake neurri horiek aurrera eramateak zuen ustez?**

Alde batetik, beldurra. Kontutan hartu haurrei musukoa jantzita eraman eta ondokoengatik metro eta erdira behar dutela esaten zaiela. Arau horiek bete ezean jendea hil daiteke. Beraz, begira a zer nolako erantzukizuna haurrentzat. Are gehiago arau horiek ezin izanzen dituztela bete jakinda. Beste alde batetik, ondokoekin ukitu gabe, jolastu gabe, aurpegia ikusi gabe denboraluzegon beharizateak zer nolako ondorioak ekarriko dituen ezin dugu segurtasunez esan, baina begi-bistakoa da beraien garapenean eragin negatiboa izanzen dutela...

Betebeharrak zorrotzak ez ezik, kontraesanek beteak direla diozue...

Kontraesanak maila guztietan daude:

- Ikasleak ezin dira beste taldeetako ikasleekin nahasi, ezin dute elkarrekin jolastu baina... autobusean, elkarren ondoan

joan daitezke... Jantokian elkarren ondoan egon daitezke (metro eta erdiko distantzian ahal denean), musukorik gabe...

- Irakasleok neurriak bete eta betearazi behar ditugu. Hori egin ezean espediente zabalduko digutela jakinarazi digute. Baina administrazioa baldin bada neurriak betetzen ez dituen ez da deus gertatzen. Neurri horietariko bat ikasleen arteko metro eta erdiko distantzia egotea da. Baina gela askotan ezin da bete... Kasu haueetan neurria ez betetzeak ez dakar ondorioirik.

- Ikasleek, Lehen Hezkuntzan, hamaiketakoak gelan hartu behar dute. Bi edo hiru saio gelatik mugitu gabe egon ondoren, patio garaia iristen denean hamaiketakoak gelan hartu behar izateak zer dakar? Momentu horretan ikasleek musukoa kendu eta gosaldutartean elkarren ondoan egoten direla solas eta jolas. Ez al da osasuntsuagoa patioan egitea?

- Kontinjentzia planetan ikasleek hamaiketakoak jan ondoren mahaiak desinfektatu beharko zituztela ezarri zen. Gauza bera, ordenagailuak erabili ondoren. Horretarako, Hezkuntza Departamentuak desinfektatzailerak igorriko zizkigula jakinarazi zigun. Baina aste batzuk beranduago mahaiak desinfektatzailerekin garbitu beharrean urarekin garbitzeko esan zigun. Urarekin garbitzea aski bada, zertarako ari gara etengabe gel hidroalkolikoa ematen? Zenbait ikasle eta irakasle azaleko arazoak izaten hasiak dira...

- Kontinjentzia planetan behin eta berriro esaten zaigu ezin dela materiala partekatu. Ikasle bakoitzak berea izan behar du eta gelako materiala komuna ezin da erabili. Baina bat-batean esaldi bakar batean jartzen du ezinbestekoa denean materiala partekatu ahal izanen dugula. Bai ala ez? Zertan gabilta?

- Positibo ematen duten ikasleak etxean geratu beharko dute euren gurasoetarikoa batekin. Kasu honetan gurasoari baja



Joserra Lopez. UTZITAKOA

luzatuko zaio. Positiboa eman duen ikaslearen ikaskideak ere etxean geldituko dira baina positiboa eman ezean edo emailtzaren zain dauden bitartean gurasoek ezinen dute bajarik hartu eta seme-alabak zaintzeko soldatarik gabeko baimena edo oporretako egunak hartu beharko dituzte. Egoera askotan errepikatuz gero, guraso horien soldata ezerezean geldituko da.

- Ikasturteko lehen egunera arte musukoa erabiltzea derrigorrezkoa zela esan ziguten behin eta berriz. Baina hasi bezperan aldaketa baten berri eman ziguten. Gorputz Heziketako klaseetan ez da derrigorrezkoa izanen. Ezin zuten hasieratik erabaki? Dirudienez, aktibitate fisikoa eta musukoa erabiltzea ez dira bateragarriak. Hori bagenekien. Izan ere, kalean erden-denek musukoa erabili behar dugu, kirola egiten dugunean izan ezik (a, eta ostaltuetan gaudenean ezik). Beraz, logikoa zen Gorputz Heziketa-

ko klaseak salbuetsiak egotea. Baina, zergatik ez patio ordua? Hor ere, ikasleak korrika eta jolasean aritzen dira Gorputz Heziketan bezala.

- Ostatuak aipatu ditugunez... Ostatueta jendea egon daiteke elkarren ondoan musukorik gabe. Bai, egia da, gehienez seiko taldeetan. Ados, jar ditzagun ikasleak seiko taldeetan eta ken ditzagun musukoak.

Askok ratioak jaistea proposatu dute konponbide gisa. Zuen ustez, ordea, horrek ez du deus konponetzen... Zein da hori aurrera eramateko proposatzen duzuen?

Gu ratioak jaistearen alde gaudela, jakina. Baina ez ikasleen arteko distantzia betetzen dela bermatzeko edo irakasleak bere polizia papera hobeto bete dezana. Ez. Jakina da ratio txikiago duten geletan irakaskuntza pertsonalatuagoa izaten dela eta ikasleekiko arreta handiagoa. Honek irakaskuntzaren kalitatean eragiten du, bete-betea. Gure ustez, musukoa ez litza-

teke eskolan erabili behar, ezta ikasleen arteko distantzia ezarri ere.

Birusak haurrengan duen eragin txikiak ere aritu izan zarete...

Ikerketek diotenez, haur eta nerabeengan birusak eragin txikia izateaz gain, gaixotzen direnean oso sintoma arinak dituzte eta euren kutsatze tasa helduena baino baxuagoa da.

Zer da Hezkuntza Departamentuari eskatzen diozuen?

Ikasleak lanean, banaka, bata bestearengandik urrun daudenean, musukoa janztea derrigorrezkoa ez izatea, hamaiketakoak kanpoan jatea eta atsedendaldian musukoa derrigorrezkoa ez izatea.

Zein izan dira orain artean eman dituzuen pausoak?

Astero egiten dugun bileraz gain, sinadura bilketa hasia dugu eta Facebook eta Telegramen kanalak (HATSA-Baztan Bidasako Hezkuntza Komunitate Batzarra) ireki ditugu. Hortaz gain, hiru lantalde sortu ditugu helburuak aurrera eramateko bideak diseinatzeko asmoz.

Hurrengo bilerak non eta noiz egingen dituzuen aurreikusi duzue?

Orain arte, ostegunetan elkartu gara: Bortziriak, Malerreka, Bertizarana eta Baztanen. Horrela segituko dugu seguru aski. Txandaka. Gure bileretan parte hartzeko interesa dutenek, aski dute Telegram edo Facebook-en begiratzea, bertan argitaratuko baitugu non eta noiz elkartuko garen.

Batzarrean parte hartu duten beste askok zuekin bat egin dute...

Zenbat sinadura bildu dituzue? Sinadurak biltzeko epea zabaldu genuen leku askotatik esan zigutelako denbora gehiago behar dutela sinadurak biltzen bukatzeko...

Zein izanen dira hemendik aurrera emanen dituzuen pausoak?

Gure asmoa jasotzen ditugun sinadurak Hezkuntza Departamentura eramatea da, horrela gure desadostasuna jakinarazi nahi dugu. Bestade, esan bezala, hiru lantalde osatu ditugu. Poliki-poliki gero eta gauza gehiago egingen dugu.

«MUSUKOA EZ LITZATEKE ESKOLAN ERABILI BEHAR»

«BIRUSAK HAURRENGAN ERAGIN TXIKIA ETA ARINA DU»

Ipuinen txokoa martxan urritik aitzinera

Irakurketa eta narratiba taldeak ere hilero elkartzen hasiak dira liburutegian

MARGA ERDOZAIN

Irailaren 21etik liburutegia arratsalde, 16:00etatik 20:00etara, irekitzen dute. Bizi dugun egoerari egokitutako protokoloa martxan dute eta zerbitzu guztietara zabaltzeko egokitu dute: mailegua, txikien txokoa, ordenagailuen txokoa, irakurle gela baita ikasteko edo lan egiteko gelara ere.

Helburua, zerbitzu horiek guztiak martxan egotea baina segurtasun eta higiene neurriak betetzea da. Erabiltzaile guztiei liburutegira hurbiltzeko gonbidapena egin diete, «toki seguru bezain atsegina» izaten segitzen baitu.

Ipuinen txokoa, irakurle taldea eta narratiba taldea martxan
Udazkenarekin batera, liburutegian azkeneko urtetan izaten diren hiru ekimenak martxan jarriko dira. Irakurle taldeak irailaren 26an abiatu zuen ikasturtea (hilero azken astelehenean bilduko dira 19:00etan) eta nahi dutenei parte hartzeko gonbidapena luzatu diete. Narratiba taldearen lehendabiziko



Liburutegiko egitasmoak abian dira.

hitzordua irailaren 30ean izan zen (hilabetero azken asteazken aukatuko du bere topaketa egiteko, 19:00etan). Interesatuak informazioa eta argibideak bertako liburutegian jasotzen ahal dituzte. Ipuin txokoari dagokionez, urrian hasiko da. 0-3 urte bitarteko txikiei zuzendutako ekimen honek asteartero liburu, kanta eta musikaren atak zabalduko ditu, 11:00etatik 12:00etara. Aurten ere, Haizea Loira musikoterapeutak bideratuko du saio gustagarri hau.

Trafiko ordenantzari buruzko informazioa zabaltzeko azken bilerak

Trafiko ordenantzaren informazioa zabaltzeko orain arte eginiko bileren balorazio ona egin du udal taldeak. Urriko hitzorduak honako hauek dira: hilaren 1ean (Ameztia, Amezti zeharbidea eta Merkaturko karrika Caixatik zubiraino) eta urriaren 8an (Leitzako errepi-

dea, San Miguel auzoa, Zazpigorutze eta San Miguel gaina). Bilerak 20:00etan egingen dira, zinema aretoan. Hitzordu hauek beteta eta herriarren ekarpenak jasota, ordenantzaren ibilbideak aurrera jarraituko du onarpena eta ezarpena burutzeraino.



Udazkenean erabilgarri izatea espero dute. DONEZTEBEKO UDALA

Intzakardi parkea berritzeko 54.500 euro erabiliko ditu Udalak

MARGA ERDOZAIN

Dagoeneko udal langileek parke zaharra kendu dute eta ondorengo asteetan berria paratuko dute Intzakardin. Udalak parke honetan 54.500 euro eskaseko gastua egin du. Horri esker, gaur egungo behar eta materialetara egokitu dute, batez ere zolari dagokionez.

Udazkenean parkea moldatzeko lanak akitu eta erabilgarri izanen dela espero dute.

Adinekoentzako gailuak

Horrez gain, udalak adineko pertsonentzako bertze lau gailu gehiago paratuko ditu. Horrela, guztira beteteranoen parkeak zortzi aparailu izanen ditu.

Haurrentzako ipuin-kontaketa antzeztua urriaren 10ean

Udalak antolaturiko agenda kulturalaren barne, *Oso printzesa iletsua* ipuin antzeztuaz gozatzeko aukera izanen dute urriaren 10ean, larunbatean, 18:30ean Santa Luzia plazan. Eurria egingen balu Ezkurra pilotalekuan egingen litzateke eta edukiera mugatua izanen da.

IKA euskaltegian izen-ematea urriaren 5era arte

IKA euskaltegiak A2, B2 eta EGA-C1 ikastaroetan izena emateko epea luzatu du urriaren 5era arte. Klase presentzialez gain, on-line edo autoikaskuntzaren bidez euskara ikasteko izena ematen ahal da (948 45 15 55/mallerreka@ikaeuskaltegiak.eus).

Covid-19aren aurkako protokoloak ezarri behar izan dituzte bi ikastetxeetan

Irailaren San Miguel ikastetxean eta Mendaur Institutuan Covid-19aren aurkako protokoloak martxan jarri behar izan dituzte, ikasleen artean hainbat kutsatu agertu baitira. Urduritasuna, nahasmendua... denetik bizi behar izan dute familiek eta ikastetxeetako kideek. Denen

ahoaan dabilen balorazioa da gure txiki eta gazteek zeinen ongi erantzun duten eta egoera honen bizitzaren ikasi beharko dugula. Gure seme-alaben duten freskotasunetik eta edozein egoerara moldatzeko ahalmen zoragarritik zenbat ikasi behar dugun helduok... Animo!

Denboraldiari ekin diote herriko txirrindulariek

Gaztetxoak eta umeak hasiak dira lehia eta Koldo Herrera hamabigarren izan da Espainiako MTB txapelketan

MAIDER PETRIRENA

Aurten ere Mendi Bizikleta Irekia antolatu du Diario de Navarra egunkariak, baina zortzi laserketa izan beharrean lau izanen dira. Irailaren 12an egin zuten lehena Ororbian. Segurtasun eta protokoloa betez, jendetza ekiditeko, goizez eta arratsaldean banatu zituzten karrerak, kategoriaren arabera. Zonaldeak bi talde eman dute izena; Baztango txirrindularitza Taldeak eta Sunbillako Ulibeltzak elkarreko taldeak.

Sunbillatik ondorengo txirrindulari hauek hasiak dira: Koldo Herrera Urroz (gazteak 1. urtea); Eneitz Bertiz Apeztegia (kadeteak 1. urtea); Markel Agesta Hernandorena eta Oihan Apeztegia Martinez (infantilak 2. urtea); Unax Larraburu Hernandorena eta Mikel Bastante Rodriguez (infantilak 1. urtea); Ander Larraburu Hernandorena (kimiak 1. urtea); Aimar Agesta Hernandorena eta Ander Apeztegia Martinez (hasiberriak); eta Marco Igoa Arretxea (promesak).



Herrera Espainiako txapelketan.

Bero handia egin zien arren hagitx gustura ibili ziren, giro onean eta egunetik egunera txirrindularitza munduan gehiago eta gehiago ikasten. Aurten errepideko karreretan ere hasiak dira, berriz modalitateak ezagutzeko.

Koldo Herrera Espainiako txapelketan

Koldo Herrera Urroz herritarra irailaren 19-20ko asteburuan Nafarroako Txirrindularitza federazioaren eskutik Espainiako MTB txapelketan parte hartzeko deitu zuten. Karrera nahiko gibelean hasi bazuen ere ederki gozatu zuen eta ondorioz 12. postuan akitu zuen. Zorionak txapeladun.

Jesus Mari Jorajuriak tomate ederrak baratzean

Bizitzen ari garen egoera gazi-gozoa bada ere, a zer nola-ko tomate ederrak bildu dituen Jesus Mari Jorajuria Arretxeak bere baratzetik. 1,2 kilotik goitiko lau tomate bederen bildu ditu, handiena argazkian ageri dena: 1,351 kilokoa. Eguzki ederra izan dute uda honetan!



1.351 gramoko tomate ederra.



Iker Marizkurrena, familiarekin kontent, hirugarrenez bandera irabazita.

Hirugarren aldiz irabazi du Kontxako Bandera Iker Marizkurrenak

TTIPI-TTAPA

Kontxako Bandera aipatu egin gabe ezin dugu utzi. Hirugarren urtez jarraian Iker Marizkurrena Imaz herritarra, Hondarribiko Ama Guadalupekoa arraun taldearekin Donostia-

ko Bandera irabaztea lortu baitu. Zorionak Ama Guadalupekoa arraun taldeari eta nola ez gure herritarri, Ikerri. Aurten ez dute San Miguel Ligarekin borobiltzerik izan, baina sasoi ederra egin dute.

DBHI MENDAU

Ignacio Irazoki etorb. - 31740 DONEZTEBE

INGELESEAN MAILA ERTAIN-ALTUKOA ZARA EDO LANA LORTZEN DUTEN HORIETAKOA?

Prestatu lana lortzeko! Urrutiko ingeles-ikastaro ofizial bakarra. C1 mailaraino zabalduta. Matrikulatu orain!

2020-2021 ikastaroko matrikula
 2020ko irailaren 11, 18 eta 25, 10:00-13:00 (DBHI Mendaur)
 2020ko urriaren 3tik 31ra, 09:30-13:30 eta 16:30-18:30 (Iruñean, EOIDNA)

TITULU OFIZIALERAKO SARBIDEA: **198€**

Ikasturtearen prezio osoa, materialak barne. Eskola batzuek tasa gehigarriak aplikatu ditzakete. Kontsultatu!

thatsenglish.com

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua EOIDNA cidead

Eskolako haurrak 15:00etan etxeratzeke eskatuz

Egoerarekin kezkatuta, Hezkuntza Zuzendari Nagusiari bilera eskatu dio San Miguel ikastetxeko Erreka Guraso Elkarteak

TTIPI-TTAPA

«Bereziki kezkatuta» agertu dira Doneztebeko San Miguel ikastetxeko gurasoak urritik aitzinera ikastetxean jardunaldi jarraitua ezarrita ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrek eskolan esperoan egon behar ko dutelako bigarren hezkuntzakoek bazkaldu arte.

Erreka Guraso Elkartetik ohar bidez jakinarazi dutenez, «jangelara erabiltzen duten Haur eta Lehen Hezkuntzako 184 ikasleek 14:30ean eta 15:00etan akitzen dute bazkaria, baina, bigarren hezkuntzakoekin garraio zerbitzua partekatzen dutenez, urritik aitzinera azken horiek bazkaldu arte eskolan esperoan egon behar ko dute». Horren harira, lanaldi jarraitua «haurrak eskolan denbora gutxiago egoteko» baldin bada, «haurrak eskolan esperoan egon behar izatea, gizarte osoa hartzen ari den neurrien kontrako» dela iruditzen zaie.

Gurasoei egindako galdetegia

Hori saiheste aldera, gurasoei iritzia galdetu zieten eta «parte-hartze altua» izan zutela adierazi dute: «215 familiatik 173k erantzun zuten eta horien artean %92,5 15:00etan etxeratzearen alde» agertu ziren. Izan ere, Erreka Guraso Elkartearen irudiko, «osasuna lehenestea da 184 haur horiek 15:00etan eskolatik ateratzea».

Hezkuntza Departamentuaren hasierako asmoa «Haur eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak 16:00etan autobusa partekatuz etxera itzultzea» zela ikusita, ttikienak eskolan «ordu eta ordu eta erdiz esperoan egotera behar-

tuak izanen zirela» ikusita eta «bi ikastetxeek garraioa partekatzeak sortzen duen eragozpenei konponbidea bilatu asmoz», Mendaurre Institutuak eta Mendaurre Guraso Elkartek ikasle garraiatuen familien iritzia biltzeko galdetegi bat egin zuen: %75,6 jantoki zerbitzuari uko egiteko prest agertu ziren. «19 familia inguruk jantoki zerbitzua mantentzearen alde egin zuen».

Bi garraio txanda

Emaitza ikusita ikuskaritzak «jantoki zerbitzua eskatzen duten familia guztiei bermatu behar zaiela» erranez erantzun du. Erreka Guraso Elkartetik argi utzi nahi izan dute «gure asmoa ez dela inork bere eskubideei uko egitea, baizik eta Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean kalteturik gabeko irtenbidea bilatzea». Hala, Gil Sevillano Gonzalez Hezkuntza Zuzendari Nagusiarekin bilera bat egitea eskatu dute, eta gaineratu dutenez, «bi garraio txanda egitea kontuan izan nahi genuke».

Buruan galdera aunitz dituztela diote guraso elkartetik: «zein zentzu dauka jardunaldi etenaren ordu paretsuak eskolan egotea planteatzen duen lanaldi jarraituak? Eta Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrak etxera ezin bueltatuz deus egin gabe egoteak? Bizi dugun egoera aintzat hartuta protokolo hau egokia da?». Elkarte bezala «hainbertze gurasoen babesa» dutela diote eta gure seme-alaben eskubide eta osasuna babestu eta bermatzeko konpromisoarekin segituko dugula nabarmendu dute.



UTZITAKOA

Sein elite mailan ere indartsu

Irailako hirugarren asteburuan Jabier Sein iturendarra Espainiako Elite UCI txapelketan izan zen Valladoliden. Elite Pro kategorian, hau da, maila altuenean, lehenbiziko urtea du iturendar gazteak. Dena den, emaitza bikaina lortu zuen. 17. postua lortu zuen. Zorionak!

Isabel Elizalde Eusko Ikaskuntzan kontseilukide

Eusko Ikaskuntzak berriki egindako batzar nagusian berriro du lehendakari kargua eta Kontseilu Errektorea eta tartean, Isabel Elizalde Arretxea Nafarroako kontseilukide izendatu dute.



MARGA ERDOZAIN

Errespetuzko harremanen alde

Iaz Espainiako Gobernuak genero indarkeria lantzeko emandako dirulaguntza baliatuz Malerrekako Mankomunitateak ia 10.000 euro erabili ditu horretan. Aurtun, Covid-19a tarteko, ezin izan dira iaz bezala jarduerak egin eta institutuko paretan eta jolastokian horma-irudi erraldoiak margotu dituzte.

Itxaso Aleman da Cedernako agente berria Bidasoaldean

Duela hilabete batzuk hasi zen amaiurtarra Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekarako lanean Malerrekarako Mankomunitateko eta Alkaiagako bulegoetan



Itxaso Aleman Alkaiagako bulegoan lanean. UTZITAKOA

TTIPI-TTAPA

Dagoeneko hilabete batzuk pasatu dira Itxaso Aleman amaiurtarra Cederna Garalurren Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako eskualdean tokiko garapenerako teknikari gisa lanean hasi denetik. Nekazaritza ingeniari teknikoa da eta hainbat urtez lehen sektorean lan egin du.

Mallerrekako Mankomunitateko eta Alkaiagako bulegoetatik eskainiko du udalei, enpresei eta batez ere ekintzaileei bideratutako zerbitzua.

Uztailaren 22an Agoitzen batzar orokorra burutu zuen Cederna Garalur elkartearen xedea Nafarroako mendialdeko landa-eremuari eusteko ekonomia eta gizarte garapena sustatzea da, zerbitzu publikoak eta toki-azpiegiturak hobetuz, eta enpresa-ehundura finkatzeko proiektuak lagunduz.

Lankidetzak

Proiektuak garatu ahal izateko finantza-baliabideak bilatzen dira, esperientziak elkartrukatzen dira, tokiko erakundeekin lankidetzak egiten da eta enplegua sustatze aldera, ekintzaileei arreta pertsonalizatua ematen zaie (negozio ideia fintzen eta tramiteekin lagunduz, enpresa-planak eta bideragarritasun-azterketak eginez, formakuntza bidez, eta abar)

Harekin hitzordua hartzeko 606 43 13 57 telefonora deitu edo bidaso@cederna.es helbide elektronikora idatzi behar da.

eta hau ere?

bai

Etxea Automobilak Istripuak Bizitza Ehorzketa

Aseguruen inguruko premiak dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

CAJA RURAL SEGUROS RGA
Professional Cycling Team

DENA SEGUURUAGOA DA HURBIL BAZAUDE

RURAL KUTXA
segurorural.kutxa.es

Bizitza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da; IFK A-78.229.663 eta DGSFPko gakoak C-595. Etxe, Istripu, Ehorzketa eta Merkataritza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen dira; IFK A-78.524.663 eta DGSFPko gakoak C-616. Automobilasegurua honako hauekin kontratatzen da: Liberty Seguros compañía de Seguros y Reaseguros S.A. (IFK A-48037642 eta DGSFPko gakoak C-0467), Reale Seguros (IFK A78520293 eta DGSFPko gakoak C-0613), Mapfre España (IFK A-28141935 eta DGSFPko gakoak C-0056). Asegurua RGA Mediación, Operador de Banca Seguros Vinculado, S.A. ren bitartez merkaturatzen dira (IFK: A78490264). Madrilen da helbidea (C/Basauri, 14) eta DGSFPren bitartekari enregistrotan inbribiduta dago: 01-0006 gakoarekin, baita Madrilgo Merkataritza Enregistraoan ere, 8205. Ilurukian, 88. folioan, 6. sektionan, M10188 orrian. Rural Kutxa RGA Mediación CBSI S.A. ren bidez saretan kide da. Helbide honetan kontsultatu dezakezu zer aseguru eberekin dituen RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratuak: www.segurosrga.es/Entidades_contrato_RGA_Mediacion.pdf

Presoen aldeko martxak egingen dituzte larunbatean

Euskal Herriko 650 kaskotara igoko dira herritarrak, preso eta iheslarien etxeratzearen alde

TTIPI-TTAPA

Sarek maiztzean aurkeztu zuen Izan Bidea dinamikaren barrunean, larunbat honetan, urriaren 3an, Euskal Herriko 650 kaskotara goituko dira herritarrak, preso eta iheslarien etxeratzearen alde, elkarbizitza eta bakearen alde eta konponbidearen alde. 650 tontor horietatik 220 Nafarroan izanen dira eta horien artean 32 TTIPI-TTAPAREN eremukoak.

Inoiz egin den igoera bateratu handiena izanen da eta «maila altuenetik baxuenera» arteko igoerak prestatu dituzte, eta «mendizale amorratuak ez ezik, familiak, haurrak, helduak, zahar eta gazteak...» ekimenarekin bat egitera animatu nahi izan dituzte.

Antolatzaileen asmoa «ekimen eder eta esanguratsua» egitea da, «urratsak emateko prest gaudela, maldan gora edo beheara baina guztiok batera, egoera honekin behin betiko amaitzeko». Hortaz, «etxeratze prozesua martxan jartzeko bidea izan nahi du tenak gurekin bat egitera animatu nahi ditugu, izan gaitez bidea, osa dezagun ibiltarien Sare erraldoia».

Tontor adierazgarrien zerrenda egin dute, «aurten kaleratutako zentzenarioen zerrendan bilduta dauden tontorrek eta herriz herri kuttunenak».

Baztanen 11 tontor

Nafarroako Sarek jakinarazi duenez, Baztanen 11 tontor zehaztu dituzte: Abartan (Aniz eta Berroetatik joateko), Alkaxuri, Alkurruntz, Gorramakil eta Antsestegi (Amaiurtik joateko), Alba, Burga (Beartzundik), Auza (Erratzutik edo Izpegiko gainetik joateko), Legate (Lekaroztik), Unboto (Elizondotik) eta Okoro. Saioa ere zerrendan sartu dute, baina kasu horretan Belatetik joateko deia eginga da.

teko), Alba, Burga (Beartzundik), Auza (Erratzutik edo Izpegiko gainetik joateko), Legate (Lekaroztik), Unboto (Elizondotik) eta Okoro. Saioa ere zerrendan sartu dute, baina kasu horretan Belatetik joateko deia eginga da.

Bortzirietan bertze hamar

Bortzirietan bertze hamar tontor izanen dituzte helmuga: Azkua (Etxalartik), Bianditz/Arrizkoetxolagaina (Lesakatik), Ekaitza (Arantzatik), Kopako harria, Larhun (Beratik), Lizarretako gaina/Erroilbide (Lesakatik), Manttale (Beratik), Mendaurren (Arantzatik) eta Unanu (Lesakatik) eta Izu.

Malerrekan lau tontor

Malerrekan lau tontorretara igotzeko aukera izanen da. Txarutara, Loitzatera (Zubietatik), Mendaurren (Iturendik) eta Ekaitzara.

Bertizaranan bi mendi

Bertizaranan, berriz, Aizkolegira eta Oteixonera goititzeko aukera izanen da.

Urdazubi-Zugarramurdin Atxuria helmuga

Urdazubi eta Zugarramurditik, berriz, Atxurira igotzeko deia eginga du Sarek.

Leitzalde-Urumealdean lau mendi


Leitzaldean eta Urumealdean, azkenik, bertze lau mendi zerrendatu dituzte: Leitzatik Eguzkiko muinora eta Guratzera igotzeko deia egin dute, Aresotik Ulizar izanen dute helmuga eta Goizuetatik, berriz, Mandoegi.

Energia-efizientziaz dakien langile bila dabil Cederna Garalur

Energia-efizientziari eta energia berriztagarrien sustapenari buruzko ezagutzak dituen langile euskaldun bat kontratatu nahi du Cederna Garalur Elkarteak. Zortzi hilabeteko iraupenarekin lanaldi osoko kontratua izanen da eta interesatuek urriaren 6ko 14:00 baino lehen bidali beharko dituzte curriculumak, titulazioen kopia konpultsatuekin batera: info@cederna.es helbidera, Landa Jasangarritasuna duen mezua idatzita. Informazio gehiagorako: cederna.eu edo 948 20 66 97.

N-121-A errepidea itxita Gipuzkoako zatian

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakitera eman duenez, N-121-A errepidea itxita egonen da Gipuzkoako zatian, «Alunda eta Gurutze zubibideetan atzemandako arazoak konpondu arte» eta, oraingoz, Foru Aldundiak ez du eperik eman baina, seguruenik, urte bukaera arte izan daitekeela aurreratu du. Bitartean, trafiko guztia errepide zaharretik bideratu dute, GI-3455 errepidetik. Kontuan hartu behar da egunero pasatzen diren 9.000 ibilgailuetatik 3.500 inguru, hau da, %40, kamioiak direla.



Merkatu Ttikiko iragarkiak eta urtebetetzeak ordaintzeko erabil daiteke.

ERRAN.EUSEN egiten diren erosketak ordaintzeko BIZUM erabilgarri

TTIPI-TTAPA

Berriki arte, Bizum partikularren arteko ordainketa ttikiak egiteko erabiltzen zen baina, gero eta gehiago, saltokietako online dendetan ere erabiltzen ahal da. Orain, ERRAN.EUSEN ere, Bizum Merkatu Ttikiko iragarkiak eta Urtebetetzeak ordaintzeko erabiltzen ahal da.

Orain arte, ERRAN.EUSEN Merkatu Ttikiko iragarki bat kontratatu nahi zuen partikularrak edo urtebetetzeen atalean norbait zoriondu nahi zuenak erosketak VISArekin ordaintzen ahal zuen. Orain, ordainbide sistema berria gehitu zaio:

Bizum-a. Hori bai, bere mugikorrean CaixaBank, BBVA edo Kutxabanken Bizum aplikazioa duen erabiltzaileak lehen urrats bat egin beharko du: gako edo pasahitza pertsonalizatua eskuratu. Lehen erosketak egiten duen momentuan bertan egin dezake hori.

Bizum hainbat banketxek partekatzen duten ordainketa sistema bat da eta dagokien CaixaBank, Kutxabank, BBVA eta bertze hainbatek eskaintzen dute aukera eta, luze gabe, Rural Kutxak eta Laboral Kutxak ere eskainiko duela iragarria dute.



**KIROLA, ARDURAZ
KIROLA, SEGURTASUNEZ**

#GAUR BAI

**KIROLA, GAUR BAI
OSASUNA, GAUR BAI**



Instituto Navarro del Deporte
Nafarroako Kirolaren Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Urrian hastekoak dituzten ikastaroak prest daude

Ikastaroetan Doneztebeko bulegora deituz eman daiteke izena; jubiloteka eta kiroldegietan, berriz, udalen bidez

PABLO IRASTORZA

Bizi dugun egoera berezira ego-
kituta, elkarteak ikastaroak eta
bertze hainbat ekimen aitzinera
ateratzeko eginahalak eginen
ditu. Urriaren lehenbiziko egu-
netan hastea aurreikusi dute eta
hilabete hondarrera ailegatu
aitzinetik martxan izanen dira
gehien-gehienak. Hasiera, ordea,
ezohikoa izanen da, osasun pro-
tokoloak zorrotz beteko dituzte
eta.

**Ikastaroak, jubilotekak eta
kiroldegia**

Ikastaroak Arantzán, Beran,
Donezteben, Elizondon, Etxa-
larren, Narbarten, Lesakan,
Sunbilla eta Urroen eskai-
niko dira. Horrez gain, Ariz-
kunen, Elizondon, Erratzun,
Urdazubin eta Zugarramurdi
jubiloteka zerbitzua izanen
da eta Beran, Elizondon, Lei-

tzan eta Lesakan kiroldegia
martxan izanen da.

Izen-ematea

Ikastaroetan izena eman nahi
dutenek Doneztebeko bule-
gora deitu beharko dute (948
45 08 78 edo 618 56 78 37),
09:00etatik 13:00etara bitarte.
Jubiloteka eta kiroldegietan
apuntatzeko, berriz, herrieta-
ko udalek kudeatuko dituzte-
la jakinarazi nahi izan dute.
Hortaz, herriko etxeek kudea-
tuko dute izen-ematea.

Parte hartzeko deia egin dute

Lerro hauen bidez, elkarteak
ikastaro gehienetan plaza li-
break daudela jakinarazi eta
elkarteko kideak izena ema-
tera animatu nahi izan ditu,
gorputza eta burua zaintzea
eta lantzea hagitx osasungarria
delako.

Eguberrietako loteria txartelak prest ditu elkarteak

PABLO IRASTORZA

Ailegatu dira ilusio handiz
espero zituzten loteria txarte-
lak. Aurten ere bi zenbaki
izanen dira txartel bakoitzean:
76.243 eta 92.907a. Ea aben-

duaren 22an urte garratz hau
goxatzeko aukera dugun! Nahiz
eta batzuek eskuetan dituzten,
txartel sortak herri bakoitzeko
ordezkarien zain daude Do-
neztebeko bulegoan.

Ikastaroak			
Non?	Zer?	Irakasleak	Taldeak
Arantzán	Yoga	Marina Pintos	1
Beran	Frantsesa	Denise Marckert	1
Beran	Pintura	Iciar Mikelperizena	1
Doneztebe	Luzaketak	A. Tobar-D.	2
Doneztebe	Pintura	I. Mikelperizena-D. Iniesta	2
Doneztebe	Dantza	Juanjo Daguerre	1
Doneztebe	Lorezaintza	Juan Mari Artazkoz	1
Doneztebe	Pirograbatua	Jose Luis Olaizola	1
Elizondo	Pintura	I. Mikelperizena-T. Sobrino	2
Elizondo	Yoga	Patxi Txokarro	2
Elizondo	Lorezaintza	Juan Mari Artazkoz	1
Etxalar	Yoga	Amaia Lasheras	1
Narbarte	Pintura	Tomas Sobrino	1
Lesaka	Pintura	Tomas Sobrino	1
Sunbilla	Soinketa	Daniel Fioramante	1
Urroz	Soinketa	Daniel Fioramante	1



UTZITAKOA

26 mendizale Larhunera joan dira

Elkarteko mendizaleek ohitura osasungarriak mantentzen segitzen dute. Irailaren 15ean Beran egin zuten hitzordua 26 mendizalek. Xantelerreka auzoko Okalarre ingurutik abiatu eta Usategieta, Landaganeta eta Zizkuitzen barrena, Larhunera joan ziren. Bizi dugun egoeragatik, momentuz, irteeren ondoko otordurik ez dute eginen.

IRUN

Primautzar 19 - T. 943 05 90 53

ERRETERIA

José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49

www.ascensoresbidasoa.com

info@ascensoresbidasoa.com

IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA

Mota guztietako igogailuak jarri, konpondu eta mantentzeko zure enpresa gara.

- Urte askotako esperientzia duen lantalde tekniko aditua gara.
- Hurbiltasunak egiten gaitu berezi, beti zure segurtasuna eta erosotasuna kontuan hartuz.
- Edozein abisu dela ere, berehalako erantzuna ematen dizugu.
- 24 orduko matxura zerbitzua ematen dugu.

MANTENTZE-LANAK



Bezeroaren beharretara egokitutako soluzioak

- Igogailuaren modeloa edozein dela ere, prebentziozko mantentze-lana bermatzen dugu zure igogailua beti prest eta baldintza onenetan egon dadin, baita ahalik eta denbora gehien iraun dezan ere.
- Gurekin zerbitzu azkarra eta eraginkorra izanen duzu eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan.
- Gure tele-mantentze zerbitzuarekin teknologia berrienak erabiltzen ditugu, zure igogailuak ongi funtzionatzen duela egiaztatuz.



INSTALAZIOAK



Giltza eskura dugu

- Zure igogailua instalatzeko prozesu osoaren kudeaketaz arduratzen gara, behar diren baliabide guztiak erabiliz. Zuk botoiari sakatzeaz baino ez duzu kezkatu beharrik izanen.
- Lehendik egina dagoen eraikinean igogailuak paratzen ditugu, baita daudenak ordezkatu ere.
- Oztopo arkitektonikoak gainditzeko igogailuak muntatzen ditugu.
- Punta-puntako teknologiko igogailuak paratzen ditugu: erosotasuna, segurtasuna eta abangoardiako diseinua duten igogailuak bermatuz.
- **Tramite guztiez arduratzen gara eta dirulaguntzak kudeatzen ditugu.**
- **Finantzatzeko hainbat aukera jar-tzen ditugu bezeroaren eskura.**

ENERGIA ERAGINKORTASUNA



Energia-eraginkortasuna eta diseinua elkarri eskua emanda

Gure igogailu guztiek teknologiarik berriena dute eta energia elektrikoa-ren kontsumoa minimora murrizten dute.

- Igogailua erabiltzen ez denean eta geldirik dagoenean, behar ez diren kontsumo guztiak itzali egiten dira.
- Igogailua funtzionamenduan dagoenean eraginkortasun handienarekin ibiltzen da.
- Kabinaren argiztapen automatiko eraginkorra ziurtatua izanen duzu, LED teknologiarekin.
- Makina lubrikatzalerik gabe eta kontsumo minimoarekin ibiltzen dira gure igogailuak (gearless teknologia).



Leizako taldeak lortua du finalerako txartela. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA



Berako Lamixene taldeak Tafallan lortu zuen lehen puntua. NBE

Urriaren 2an itzuliko dira Bardoak plazara Goizuetan

Jautsaratsen ere egun berean jokatu da beste finalaurrekoa eta finala hilaren 17an Lizarran

TTIPI-TTAPA

Bi finalaurreko eta finala jokatzear zirela eten zen taldekako txapelketa, Covid-19aren pandemiaren eraginez, martxoan. Urriaren 2an berrabiaraziko da, osasun eta segurtasun neurri guztiak bermatuta; egun horretan jokatu da bi finalaurrekoak, Goizuetan eta Jaunsaratsen. Finala urriaren 17an izanen da, Lizarran.

Sei hilabete luze pasa dira Bardoak 2020, Nafarroako taldekako bertsolari txapelketa, eten behar izan zenetik,

Covid-19aren pandemiaren eraginez. Bi finalaurreko eta finala gelditzen ziren jokatzear txapelketari amaiera emateko. Ordurako, Leizako Ateakaberts komeni taldeak eskuratu zuen finalean parte hartzeko txartela, baina beste bi finalistak zeuden argitzeke. Bata, Goizuetako finalaurrekoan zehaztekoa zen, Lesakako Arranopola eta Malerreka-Baztango Bertsonautak taldeen artean jokatzekoa zen saioan (joaneko saioan, Anizen, Bertsonautak taldekoek eskuratu zuten lehen puntua). Bestea, Jaun-

saratseko finalaurrekoan zen argitzekoa. Han elkartu behar zuten Berako Lamixene eta Barañaingo Hego haizea taldeak, txartela nork eskuratu (Tafallan zen jokatu joaneko saioa, eta beratarrek lortu zuten puntua). Bertan behera gelditu ziren, ordea, bi saioak, baita martxoaren 28rako aurreikusitako finala ere.

Finalaurrekoak ostiralean

Orain, ia zazpi hilabeteke etenaren ostean, plazara itzuliko dira Bardoak, egitasmoa bukatzeko falta zena jokatzeko asmoz. Nafarroako Bertsozale Elkartek, tokiko antolatzaileekin batera, konpromisoa hartu du pandemia egoerak eskatzen dituen segurtasun eta prebentzio neurri guztiak betetzeko. Gauzak horrela, aforoak mugatu egingen dira, segurtasun tartekak mantenduko dira, aretoetara sartzeko eskuak garbitu beharko dira, eta musukoa ezinbestekoa

izanen da, saio guztian zehar. Gainera, saioen osterako aurreikusitako otorduak ez dira egingen.

Urriaren 2an itzuliko dira Bardoak kantura, egun horretan egingen baitira finalaurrekoak Goizuetan eta Jaunsaratsen. Lehen kasuan, aurrez erosi beharko dira sarrerak, Goizuetako estankotan. Basaburuako saioan, ordea, egunean bertan izanen dira sarrerak salgai, aretoan bertan. Bi kasuetan, 3 euroko salneurria izanen du sarrerak.

Finala urriaren 17an Lizarran

Finala, aldiz, urriaren 17an izanen da, Lizarrako Ikastolan. Finalerako sarrerak aurrez salduko dira, irailaren 28tik aurrera, Ikastolan bertan, baita www.bertsosarrerak.eus atarian ere. Saldu gabe geldituko balira, finalaren egunean bertan ere jarriko lituzkete salgai, 15:30etik aitzinera, leihatilan.

Maddi Ane Txoperenak Igartza Saria irabazi du 'Ez erran inori' proiektuarekin

TTIPI-TTAPA LESAKA

Elkar argitaletxeak, Beasaingo Udalak eta CAF enpresak antolatzen duten XXIII. Igartza Saria irabazi du Maddi Ane Txoperena Iribarrenek. Lesakan bizi den hendaia irabazteko proiektua aurkeztu sariketa eta hamasei proiektuetatik

onena dela ebatzi du epaimahaiak. Saria 6.000 euroko laguntza eta lana argitaratzeko konpromisoa dakartza. Txoperenak urtebeteko epea izanen du proiektua garatzeko.

2020an kaleratu du bere lehenengo liburua Txoperenak, *Ene baitan bizi da* eleberria.



Maddi Ane Txoperena, Igartza sariarekin. WWW.BEASAIN.EUS

Bi hilabetez itxita izanen dira Leitza eta Kantinako tunelak

Bestalde, heliportua Inguruartetik Plazaolako estazio ondora lekualdatuko dute

TTIPI-TTAPA

Hainbat konponketa lan egiten dituzte Plazaolako trenbidean Leitza eta Kantinako tuneletan, eta hori dela eta, bi hilabetez itxita mantenduko dituzte. Halaxe baieztatu dio Mikel Zabaleta alkateak TTIPI-TTAPARI.

Duela bi urte Nafarroako Gobernuak azterketa geologiko bat egin zuen aipatutako eremuan eta orduan ondorioztatu zuten zenbait egokitzapenen beharrean zeudela tunelak.

Heliportua tokiz aldatuko dute

Orain arte Inguruarten izan da heliportua, baina laster Plazaolako estazio ondora eramanez dutela jakinarazi du udalak. Hainbat arrazoi tarteko hartu da lekuz aldatzeko erabakia, besteak beste, osasun etxetik hurbilago dagoelako, sarrera egokiagoa duelako eta Inguruarte urak hartzeko arriskua duen eremu izendatua delako.

Udalak obra egiteko baime-na eman du eta Nafarroako Gobernua izanen da %100ean obra finantzatzeko duena.

'Herrigabetuak' jardunaldien baitan mahai-ingurua urriaren 8an

JUAN MARI BARRIOLA

Ondarea ikuspegi anitzetatik aztertzea eta honen inguruan eztabaidatzea helburu duen *Ondarea, Paisaia eta Globalizazioa* izeneko jardunaldiaren seigarren edizioa egiten du aurten ere Nabarralde Fundazioak, urrian, Nafarroako hainbat tokitan. *Herrigabetuak* izenburupean, herrien despopulazioa eta biztanleriaren gehiengoa hirietan biltzeak landa eremuetako ondarean duen eragina aztertzea izanen du helburu.

Gaiaren inguruan eztabaidatzeko hainbat sektoretako adituak bilduko dituen jardunaldi nagusia urriaren 16an eta 17an egiten dute Iruñean, baina bestelako ekitaldiak ere egiten dituzte hiriburutik kanpo. Hain zuzen, Leitzan egiten dute aurrenekoa, urriaren 8an.

Egun horretan, Nafarroako hainbat eremutako lau alkate mahai-inguru batean bilduko dituzte, 19:00etan udaletxeko batzar aretoan. *Nafarroako herriak etorkizunari begira* izenburupean, David Campion (Olloko alkatea), Amparo Viñuales (Erronkariko alkatea), Josepe Irigarai (Auritzeko alkatea) eta Koldo Leoz (Lizarako alkatea) arituko dira eztabaidan, euren eremuak bizi duten egoera aztertzen.

Mahai-ingurua zuzenean

Saioa irekia izanen da baina koronabirusa tarteko, edukiera mugatua izanen da. Bestalde, iragarri dutenez, urriaren 16ko eta 17ko hitzaldiak eta Leitza mahai-ingurua *streaming* bitartez jarraitu ahal izanen dira Nabarralderen Youtube kanalean.



UTZITAKOA

Aurrera Egunik eta Mikologialdirik ez

Zuzen bidean, eta koronabirusak dena hankaz gora utzi ez balu, tenore honetan Aurrera Eguneko ospakizunei begira egonen lirarteke herritarrak, eta urri erditik aurrera mikologialdiari begira. Aurten, ordea, ezohiko egoera tarteko, bertan behera gelditu dira bi hitzorduak.

Presoak gogoan Eguzkiko Muñoa eta Guratzera

Larunbat honetan, urriaren 3an, Izan Bidea ekimenaren baitan, Sare herritarrak Euskal Herriko 650 mendi igo eta tontorretara aldarria eramateko deia eginga du, euskal presoan eta iheslarien etxeratzearen alde, elkarbizitza eta bakearen alde. Leitzarren kasuan, Eguzkiko Muñoa eta Guratzeko tontorretaraigotzea izanen da erronka. Behin goian, 10:00etatik 12:30era argazkia ateratzeko aukera izanen dela adierazi dute eta herritarrei parte hartzeko deia egin diete.

Baserritarren elkarteak sortzeko hitzorduak

Eskualdeko baserritarren elkarteak sortzeko prozesuak aurrera segitzen du. Hainbat proposamen lantzen aritu dira azken aldian Leitza-Areso, Goizueta-Arano, Larraun-Lekunberri-Araitza eta Imotz-Basaburua-Atetz aldeko baserritarrek. Irailean eta urrian, elkaratearen helburuak, irizpideak, antolaketa, funtzionamendua eta hemendik aurrerako ekintzak zehazteko hiru saio egitekoak dituzte: irailaren 23an, irailaren 30ean eta azkena urriaren 7an.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

Gurasoek gutuna idatzi dute Hezkuntza Departamentura

Herriko egoera kontuan izan eta hartutako neurriak berrikusteko eskaera egin diote Hezkuntza Zuzendari Nagusiari

TTIPI-TTAPA

Aresoko Guraso Elkartek ikasturteko aurreneko bilera egin du. Bi familia berri sartu dira aurren elkartearen eta horrenbestez hamaika familia izango dira elkartearen. Egungo egoeraren errepasoa egin eta iritziak, kezak... partekatzeke ere baliatu zuten bilera eta guztiek bat egin zuten eskolan hartu diren neurrien aurrean desadostasuna agertzeko. Pauso bat haratago eman eta Hezkuntza Zuzendari Nagusiari gutuna bidaltzea adostu zuten.

Salatu dutenez, Nazabal eskolan 30 ikasle diren arren hiru gela egonkorretan banatu dituzte, «elkarrekin inolako kontakturik izateko biderik gabe». Honi guztiari, musukoaren derrigorrezko erabilera gehitu behar zaio eta ez bakarrik leku itxietan, baita jolas-ordu eta espazio irekietan ere.

Elkarkidetza talde bakar bat

Hartutako neurriak «gogorregiak eta kasu batzuetan kaltegarriak» izan daitezkeela iruditzen zaie eta horregatik, eskolako kasu zehatzari buruzko hausnarketa bat egiteko eskatu dute. Alde batetik, Aresoko herriaren errealitatea kontutan hartu beharko litzaitekeela uste dute: «Areson familia bakar bat bagina bezala bizi izan gara betidanik eta haurrek elkarrekin dituzten erlazioak, gehienen kasuan behintzat, senideen arteko erlazioen ondo-ondokoak izan ohi dira; egun ere, eskolaz kanpo elkarrekin erlazionatuz». Bestetik, ume asko elkarrekin

senide direla eta aurretik aipatu diren gela egonkorretan banaturik daudela ere salatu dute. Honen guztiaren ondorioz, ez dute bideragarria ikusten, elkarrekin hazi eta hezi diren 30 haur, hiru gela egonkorretan banatu eta elkarrekiko erlazio pertsonalaketetea, «honek haurrengan izan ditzakeen eta batzuen kasuan jada ikusten ari garen ondorio kaltegarri gehiegi erreparatu gabe». Hau horrela izanik, «hiru gela mantendu arren, Aresoko Nazabal eskolako haur guztien bateratzea eta orain arte bezala, ekintzak eta jolas-orduko denboran haurrak elkarrekin ibil daitezela» eskatzen dute elkarkidetza bakar bat sortuz.

Musukoa soilik barrenean

Bestetik, musukoaren erabilerari buruzko zalantzak ere azaleratu dituzte, «oraindik ez daude argi musukoaren gehiegizko erabilerak haurrengan sor ditzakeen eragin negatiboak: arlo efektiboan eta osasun arloan egon daitezkeen bigarren mailako ondorioak». Covid-19aren garrantzia eta honek gaixotasun bezala gure artean izan dezakeen eragina bazterrerara utzi gabe, garrantzitsua iruditzen zaie musukoaren erabilera espazio itxietara mugatzea: Nafarroan momentu honetan dagoen legea kontutan hartuta, espazio irekietan, 12 urte arte ez dute musukoa erabili beharrik. «Beraz, jolas-orduetan eta espazio irekian dauden unean haurrei musukorik gabe ibiltzeko aukera eskaintzea eskatzen dugu».



UTZITAKOA

Hamarreko borobila eskolan hasia

Aurrekoan aipatu genuen aspaldiko ikasle kuadrilla handiena hasia zela eskolan. Hamar neska-mutikok osatzen dute 2017ko kinta: Oihan, Aroa, Laia, Markel, June, Nahikari, Amelia, Alen, Amaiur eta Elorrik. Halako talde politak merezi zuen argazkia.



UTZITAKOA

Elizako aldarea berritu dute

Itxura berria hartu du elizak, aldarea berritu ondoren. 2017ko abenduaren 29an erre zen aurrekoa eta orain jarri dutena, Esako urtegia egin zenean ur azpian gelditu zen elizakoa da. Joakin Martiñenak moldatu du. Amabirjinaren irudia, berri, XVIII. mendekoa da, Gaskueko San Urbano ermitatik ekarria.

Udalak Hirigintza Plan Orokor berria herritarrekin elkarlanean osatu nahi du

TTIPI-TTAPA

Hirigintza Plan Orokor berria osatzeko lanean hasia da Aresoko Udala. Herritarrekin elkarlanean osatu nahi du eta hala, bi saio parte-hartzaile egiteko asmoa. Aurrenekoa joan den irailaren 23an egitekoa zuen, herriaren egoe-

raren diagnostikoaren inguruko lanketa egiteko. Behin hori eginda, bigarren saio batean, hirigintza proposamenak landuko dituzte. Udalak «oso garrantzitsutzat» jo du «areso aroren parte-hartzea», eta hori dela eta, parte hartzeko gonbita luzatu du.



Naroa, Patxi eta Olatz mendi taldeko kideak.

Arainburu mendi taldea berriz martxan da

Urritik aurrera irteerak egingen dituzte eta lehenbizikoa Goizueta inguruan izanen da

TTIPI-TTAPA

Joan den otsailean eratu zen Arainburu Mendi taldea (Goizuetako mendi altuenari zor dio izena), baina egoerak ez zuten irteerarik egitea baimendu.

Ikasturte hasierarekin batera, berriz ere elkartzen hasiak dira taldekideak. Olatz Zaba-

la izanen da lehendakaria eta Naroa Zugarramurdi idazkaria.

Urritik aurrera irteerak antolatzen hastekoak dira. Aurrreratu dutenez, lehenbiziko irteera Goizueta inguruan izanen da. Bizi dugun egoera tarteko, parte-hartzaile kopurua mugatua izanen da.

Mandogira irteera egingen dute urriaren 3an

Izan Bidea egitasmoaren barne, Euskal Herriko 650 tontorretara igoko dira ehunka herritar heldu den larunbatean, urriaren 3an. Presoen aldeko martxa horretan parte hartuko dute herritarrek. Herriko plazan elkartu eta Mandogira (1.046 metro) joanen dira. 09:00etan dute hitzordua. Parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera dute 650tontor.sare.euswebgunean. Lerro hauen bidez parte hartzera animatzeko deia egin dute: «animatu eta izan bidearen parte!».

Hainbat ikastaro eskainiko dituzte herrian

Goizuetako Udalak 2020-2021 ikasturterako ikastaro andana eskaini ditu: pilates, *jump-fit*, *total training* (astearte eta ostegunetan, 57na saio), eskulanak (ostiraletan, 30 saio) eta emakumezkoentzako musikoterapia (urtarriletik martxora, astelehenetan, 10 saio), hain zuzen. Izen-emateak irail bukaerara arte zuden zabalik eta taldeak osatzeko gutxienez zortzi lagun behar zirela adierazia zuten. Plaza libreak izanez gero, ilbeltzean berriz ere apuntatzeko epea izanen da.



Lesakako Arranopola eta Baztango Bertsonautak taldeak izanen dira.

Taldeakako Bertsolari Txapelketaren finalaurrekoa ostiralean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa urriaren 2an bueltatuko da plazara. Ia zazpi hilabeteko etenaren ondotik, urriaren 2an, heldu den larunbatean, Goizuetan eta Jauntsararen jokatu dira finalaurrekoak.

Goizuetan Lesakako Arranopola taldeak eta Malerreka eta Baztango Bertsonautak izanen dira protagonistak. 18:30ean hasiko da saioa, udalletzeko ganbaran. Sarrerak aurretik salgai egonen dira herriko estankotan, hiru euroren truk.

Goizuetako eta Jauntsaraseko finalaurrekoan irabazle diren taldeek finalerako txartela lortuko dute. Finala Lizarran Ikastolan izanen da, urriaren 17an eta hauek ez ezik, Leitzako Ateaberts komeni izanen da.

Bai finalaurrekoetan baita finalean ere, edukiera mugatua izanen da eta segurtasun tartek mantenduko dira. Bertaratzen direnek sarreretan eta irteeran eskuak garbitu beharko dituzte eta musukoa jantzita eraman beharko dute bertso saio osoan. Gainera, otordurik ez dute egingen.


Umore Ona kirol elkarteak pala eskola sortu nahi du

TTIPI-TTAPA

Umore Ona kirol elkarteak pala eskola martxan paratzeko asmoa adierazi zuen irail erdialdera. Pala gustuko duten bost urtetik goitikoei izena emateko deia eginga zien. Umore Onako komisioko Igor, Lourdes, Leire edo Axierri aipatuz eman zitekeen izena irailaren 27ra arte.

Mirari Etxegia entrenatzaile

Jokalariak Mirari Etxegia izanen dute entrenatzaile. Izen-emate data akitzearekin batera, parte-hartzaileekin bi-



Etxegia izanen da entrenatzaile.

lera bat egin eta nondik norakoak zehazteko asmotan ziren.

Nekazaritzarako lurraldeak babesteko itunarekin bat

Itun horrek nekazaritza-jarduerarekin bateraezina den erabileren aitzinean babesa ematea du helburu

TTIPI-TTAPA

Abuztuan egin zen ohiko osoko bilkuran Baztango Udaltzatzak Nekazaritzako Lurralde Historikoak zaindu eta garatu nahi dituen 'Intervegas'-eko itunarekin bat egin zuen. Nekazaritzako Lurralde Historikoak kultur-balio handiko nekazaritza-espazioak dira, presio handia jasaten dutenak eta horregatik legezko babesa behar dutenak. Helburu horrekin 2015ean estatuan jardunaldiak egin ziren eta aurtengo urtearen hasieran lege-proposamena aurkeztekoa zen estatuko kongresuan.

Nekazaritza zaintzeko neurriak

Baztango EH Bilduren ustez, nekazaritzako lur onek presio handia jasaten dute eta horiek zaintzea beharrezkoa da: Aroztegia, Erdiz... Horregatik aurkeztu zuten mozioa, Baztanen bizi den egerari buruz eztabaida irekitzeko eta neurriak lantzeko. Itun honek aipaturiko eremuak indartzeko neurrien dekalogoak du. Horietako bat da gai hauetan eskumena dutenei eskatzea lur hauen ne-

kazaritza-jarduerarekin bateraezina den bertze edozein erabileraren aitzinean babes-
tea. Horrez gain hau ere eskatzen da: komunalak komunal izateagatik babes-
tea eta errespetatzea eta horretarako neurri legegileak proposatzea.

Neurrien artean nekazaritza bizkortzeko neurriak aipatzen dira merkaturatzeko bide laburrak bultzatuz, lurralde horietako produktuak balioetsiz eta elikadura osasungarriaren alde eginez; sozialagoak eta ekologikoki iraunkorrak diren produkzio-moldeak erabiliz.

Modu berean, baserriaren lana ezagutaraztearen garrantzia aipatzen da, elikagaiak eta lehengaiak ekoizten dituztelako, paisaiasortu eta kudeatzen dutelako, lanpostuak sortzen dituztelako eta lurralde horietako ekonomian egituratzen laguntzen dutelako.

Bertze neurri bat baserriak iraunarazteko belaunaldi-erlebo egokia bermatzeko, lan-munduan txertatzeko programak egitea da, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren inguruko sentsibilizazioa bultzatuz.



Irailaren 12an egin zuten inaugurazio ekitaldia.

Iruritako Jauregizarrea zaharberritu eta inauguratu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren Ondare Historikoaren Zerbitzua arduratu da azken bortz urteotan Iruritako Jauregizarrea zaharberritzeaz. 982.356 euroko inbertsioa egin du dorretxean eta irailaren 12an Rebeca Esnaolak, kultura kontseilariak, Iruritako Jauregizarreko giltzak itzuli zizkion Joseba Otondori. Itzulketa ekitaldia Jauregizarrean bertan egin zuten eta zaharberritze proiektua gidatu duten Leopoldo Gil arkitektoaren eskutik, bisita gidatua eta egin dituzten lanen inguruko azalpenak entzun zituzten agintariek. Inaugurazio ekitaldian Rebeca Esnaola kultura kontseilariak, Joseba Otondo Baztango alkateak, Oihane Prim Iruritako alkateak, Ondare Historikoaren Zerbitzuko langileak, zinegotziak eta obraren arduradunak parte hartu zuten.

Jauregizarrea Baztango Udalerena da eta 1949an 'Monumentu Nazional' izendatu zuten. Ez hain aspaldi arte baserri izana da: behegian aziendak, lehen eta bigarren solairuan etxebizitza, eta hirugarren solairua belartegi edo ganbara gisa erabiltzen zuten. Kanpotik harrizko eskailera estali bat du, solairu nagusira sarbide funtzioa egiten duena. Aspalitik kasu handirik egin gabe, dorretxea noiznahi erortzeko arriskuan zegoen. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiak dorrea egonkortzeko egitura bat jarri zuen, eraikina erortzetik salbatzeko, eta, handik gutira, zaharberritze-lanak hasi zituzten. Orain, udalak bisitariak dorrera sartzeko bidea egokitu eta dorretxearen historiari eta arkitekturari buruzko erakusketa-elementuak sartu nahi ditu.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:

- etxeak
- landetxeak
- lokalak
- komertzioak
- enpresak

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Kukai dantza taldea urriaren 9an Elizondon

Braulio Iriarte pilotalekuan 'Gela Jauziak' lanaz gozatu ahal izanen da 19:00etatik atzina

TTIPI-TTAPA

Aitzineko zenbakian irailaren 25ean izanen zela aipatu genuen arren, Kukai dantza taldearen emanaldia urriaren 9an, ortziralean, izanen da. Elizondoko Braulio Iriarte pilotalekuan elkartuko dira dantzari eta dantzazaleak. Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako emanaldia, 19:00etan hasiko da.

'Gela Jauziak'

Saio horretan, Errenterian sortu eta kokatutako Kukai dantza taldearen azken ikus-

kizuna, *Gela Jauziak*, izanen da ikusgai. Proiektu honek euskal dantza konpainia eta Cesc Gelabert koreografo eza-guna biltzeaz gain, Jon Maia-ren zuzendaritzapean, taldeko dantzarien indarra eta zorrozatasuna espazio irekian mantentzen ditu.

Osasun neurriak betez

Bizi dugun egoera tarteko, Osasun Departamentuak araututako neurriak beteko dira. Hortaz, bertaratzen denak segurtasuna eta gozamena bermatuak izanen ditu.



Ehunka herritar bildu ziren irailaren 12an Elizondon egin zuten aurkezpenean.

«Euskal eskola herritar eta burujabea» aldarrikatzeko Ikama sortu dute

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko hainbat tokitako etorritako ehunka ikasle bildu ziren irailaren 12an Elizondon, Ikama gazte antolakundearen aurkezpenean. «Euskal Herriko hezkuntza ereduak irauli eta gure neurri-egindako hezkuntza egitasmoa eraikitzeke antolatu eta

borrokatuko den ikasle antolakundea da esku artean daukaguna» erranez aurkeztu zuten. «Martxan dagoen ikasleria gara, eta Ikama da gure lanabesa». Horrekin batera, «borrokarako irrikitan» daudela nabarmendu zuten, «gure neurri eraikitako heziketa prozesua irabazteko borroka egiteko irrikitan».

OTEIZA

ARKITEKTOAK

53 urteko esperientzia

Proiektuen kudeaketa urbanistiko osoa egiten dugu, hasieratik amaierara (Udaletxetan, Nasuvinsan, Nafarroako gobernuan, Kantauriko Ur konfederazioan...)

- Familia bakarreko edo familia biko etxebizitzak.
- Etxebizitza kolektiboak.
- Etxe zaharren birgaipenak eta barne eraberritzeak.
- Industria edo abelzaintza nabeak.
- Merkataritza eraikinak.
- Txostenak, hirigintza kontsultak...

LEHEN

ORAIN



Apote Karrika 8 (Maskonea) - 31730 - Irurita (Baztan) / Askatasunaren H. 7 - 7ºE - 20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43 - www.oteizaarquitectos.com



oteizaarquitectos



Ikastaroak eta tailerrak urriaren 3tik aitzinera

Gaita eta atabala hasiberriendako eta arituendako izanen da eta jostintza tailerrarako oinarritzko ezagutzak izan beharko dira

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako ikastaroei esker, herritarrek urriaren 3tik aitzinera, musikaz, sukaldaritzaz, eskulanez, elikaduraz... ikasteko eta gozatzeko aukera izanen dute.

Atabala eta gaita

Sei urte baino gehiago dituztenek larunbatetan atabala jotzen ikasteko aukera izanen dute. Arizkuneneak kulturetxean emanen dira saioak, larunbatetan, 09:00etatik 10:00etara. Guztira 20 orduko ikastaroaren truk, errolatuak 60 euro eta errolatu gabeek 80 ordaindu beharko dituzte. Shanti Diaz Carmona irakasle dutela bilduko dira eta parte-hartzaileek makilak eta danbor mutua eraman beharko dituzte.

Gaitariak egun, toki eta ordu berean izanen dute hitzordua. Saioak, ordea, ordu erdi gehiago iraunen du. Beraz, guztira 30 orduko ikastaroa izanen da. Kasu honetan hamar urtetik goiti dituztenei bideratua izanen da eta urtebetez gutienez solfeo klaseetan ibilia izatea

eskatuko zaie. Gaitariak Tomas Diaz Peñalva izanen dute gidari (errolatuak 90 euro eta errolatu gabeek 120).

Artea

XX. mendeko artista batzuk ezagutu eta horiek oinarri hartuz, artelana sortzeko tailerra izanen dute bortz eta hamalau urte bitarteko gaztetxoek. Urriaren 5etik azaroaren 30era, 16:00etatik 17:30era, Arizkunenean elkartuko dira (bertan errolatuak 38 euro eta errolatu gabeek 48).

Mekanika

Oinarritzko matxurak konpontzeko eta bizikleta moldatzen ikasteko Aitor Txarterinaren jarraibideak aditu ahal izanen dira urriaren Gartzainen. Hilaren 17an eta 24an, ortzirale goizean, dute zita (09:00etatik 14:00etara). Errolatuak 30 euro eta gainerakoek 40 ordaindu beharko dituzte.

Briochea

Urriaren 16an, 17:00etatik 20:00etara, hiru orduko saioa emanen du Edorta Salvadorrek

Elizondon. Bertan, briochea egiten ikasi ahal izanen dute. Ikastaroan izena ematea bederatziko euro kostako da (errolatu gabeentzat 12).

Elikadura

Amaia Meoki Plazak urriaren 24an eta azaroaren 7an, biegunez, elikadura osasuntsu, jasagarri eta arduratsuz tailerra emanen du. Etiketak irakurtzen, asteko menu egoki eta orekatuak antolatzen... erakutsiko die 16 urtetik goitikoei. Goizez, 11:00etatik 13:00etara, Arizkunenean elkartuko dira. Errolatuak 12 euro eta errolatu gabeek 16 ordaindu beharko dituzte.

Plastika

Familian eta familiaz gozatzeko hila bete izanen da azaroa. Sonia Ilzarbek eta Eneko Perezek familiendako prestatu duten lantegiaren bidez, larunbatero, 17:30etik 19:00etara Arizkunenean bilduko dira. Prezioa partaideen arabera izanen da: bi partaidek 40 euro (errolatuak 30) eta hiruk 60 (errolatuak 40).

Euskal jantzi tradizionala

Baserritar jantziaren gona eta mantala egiteko jostintza tailerra izanen da azaroaren 7tik abenduaren 19ra Arizkunenean. 11:00etatik 13:00etara, Amadeo Arretxearekin bilduko dira. Bakoitzak bere josteko makina eta materiala eraman beharko du (errolatuak 42 euro eta gainerakoek 56).

Elizondoko Abesbatza Ttikia ikasturte berria

Elizondoko Abesbatza Ttikia 2020-21 ikasturterako buelta prestatzen ari da. Entsaioak asteazkenetan izanen dira Irurritako Gizarte Zentroan, segurtasun neurri guztiak betetzeko. Klara Mendizabal sopranoa ere etorrikoa da teknika erakustera. Ordutegia izena ematen duen jendearen arabera antolatuko da, baina 17:30ean ttikienekin hasi, gero koxkorak eta 19:30erako aktizea aurreikusia dute, lokala desinfektatu eta aireztatzeko. Izena emateko 620 228 455 telefonora deitu behar da.

In Tempore abesbatza eta Ganbara orkestra urriaren 17an

2019an, urte bukaeran, In Tempore abesbatzak eta ganbara orkestrak aurkezturiko *Tu Vayhun. Beatitudes for a Wounder World* lanaz gozatzeko aukera izanen da urriaren 17an, hirugarren larunbatean, Elizondon. Herriko parrokian izanen da emanaldia.

Giltxaurdi udal kiroldegia webgunea martxan

Giltxaurdi kirol instalazioari buruzko informazio guztia klik bakarrean bilduta izanen duzu hemendik aitzinera. Izan ere, giltxaurdi.eus webgunea martxan da dagoeneko.

Interesa dutenek prezioei, jarduerari, instalazioei, arautegiari, egutegiari eta ordutegiari buruzko informazio guzti-guztia bertan izanen dute eskuragarri. Gainera, gimnasia, igerilekura, jakuzzira edo saunara joan ahal izateko ordu libreak ikusi eta hitzordua bertatik eskatzeko aukera ere badago.

Bi baztandar Lokotx Biltze Txapelketan

Unai Iantzi aniztarrak eta Asier Gamio berroetarrak parte hartu zuten irailaren 12an Antsoainen jokatu zen Nafarroako Lokotx Biltze Txapelketa. Gizonezkoetan Iantzi nagusitu zen eta Gamio hirugarren izan zen.



XAGU LESAKA



UTZITAKOA

Euskaraldirako prest

Hurbiltzen ari da Euskaraldia eta prestatzen hasiak dira herritarrek. Aurtengo berrikuntza ariguneak izanen dira. Baztanen hainbat lantegik, elkarteak eta erakundeak eman dute izena: Altxuko dendak, Giltxaurdi Kirol Instalazioak, Arkupe gozotegiak, Baztango liburutegiak...

Komiki erakusketa bisitatzeko hondarreko egunak

TTIPI-TTAPA

Ernest Sala ilustratzaileak Baztan bineten bidez ezagutzeko eginiko komikiak ikusi nahi dituenak hondarreko egunak ditu.

Izan ere, urriaren 4an, heldu den igandean, itxiko dute komikia sustatzea helburu duen

Tiza elkarteak antolaturiko erakusketa. Ordura arte, Baztango Trilogia ardatz duten irudiak Arizkunenea kultur etxean ikusi ahal izanen dira. Nahi duenak arratsaldetan, bi orduz, 18:00etatik 20:00etara, bisitatzeko ateak irekita izanen ditu.

Mutildantzak, Baztango dantzak eta jauziak ikasteko aukera

TTIPI-TTAPA

Baztandarrak dantza eskolak eta Jo ala Jo kultur elkarteak antolatuta, hastapenetik goi mailara bitarteko ikasleek gerrak mugitzeko aukera izanen dute. Mutildantzak eta Baztango dantzak eta jauziak ikasten ahalko dituzte, Elizon-

doko Arizkunenea kultur etxean. Kattalin izanen da irakasle eta izena eman nahi edo informazio gehiago esku-ratu nahi dutenek baztandarrakdantzaeskola@gmail.com helbidera idatzi edo 636 59 32 42 telefonora dei egin deza-kete.



BAZTAN FUTBOL TALDEA

Perez eta Vides futbol entrenatzaile

Migel Angel Perez eta Dio Vides izanen dira Baztan Futbol Taldeko entrenatzaile heldu den denboraldian. Haurren taldea trebatzeaz arduratuko dira. Taldekideek, ongietorria egitearekin batera, zortetik onena opa nahi izan diete taldeko kide izatea erabaki duten bi entrenatzaileei.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLÉS SOULE

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

www.marmollessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmollessoule@gmail.com

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g • LEKARÓZ
T. 948 452 143 • 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRUKTURAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

'Heziketa eta ondarea' jardunaldia Erratzun

Urriaren 3an eta 4an Erratzuko San Pedro elizako klaustroa ezagutzeko aukera izanen da

TTIPI-TTAPA

Ondarearen Europako Jardunaldiak egitasmoaren barne, urriaren 2an, 3an eta 4an ondare-guneak ezagutzeko aukera izanen da Nafarroako hainbat txokotan.

Erratzura joaten direnek San Pedro elizako klaustroa ezagutzeko aukera izanen dute. Urriaren 3an, heldu den larunbatean, 12:00etan gazte-leraz eta urriaren 4an, igande, 12:30ean euskaraz izanen dira Nafarroako Gobernuaren Ondare Historikoaren Zerbitzuak, Baztango Udalaren

laguntzarekin, antolatutako jardunaldidak.

San Pedro elizako klaustroa

Erratzuko San Pedro elizan «klaustro berezi, xume eta ederra» bisitatzeko aukera izanen dute. XVIII. mendean eraikitako klaustroak, monas-

ERRATZUKO KLAUSTROA ETA HERRIA EZAGUTU AHAL IZANEN DUTE



Parte-hartzaileek San Pedro eliza eta herria ezagutzeko aukera izanen dute.

tegietan aurkitzen ditugun klaustroen antza du, baina funtzio bereziak betetzen zituen.

Parte-hartzaileek, aldi berean, Baztango herri ederretako bat ezagutzeko aukera izanen dute.

Urdazubin lezeetara bisita

Jardunaldiak aitzineko aste-buruan abiatu ziren eta Erratzuko eliza bisitatzeko aukeraz gain, Urdazubiko Berroberria

eta Alkerdiko lezeak ezagutzeko aukera izan zuten.

Bertara joan zirenek, SOS Alkerdi plataformaren laguntzaz, Nafarroan existitzen diren labar-arte paleolitikoko adierazpen bakarrak behatu ahal izan zituzten. Horiek, jardunaldi hauetan soilik egon dira ikusgai. Gainera, herriko ondarea ezagutzeko, aire zabaleko jarduerekin batera (bisita gidatuak, kasu), hitzal-diak ere izan ziren.

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!



DESKONTUAK BAZTAN TTIPI TXARTELA

FOTOMENA %10 DESKONTUA kopia digitala Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55	EZ %10 DESKONTUA produktuetan Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91	BIOK BAT TAILERRAK %15 DESKONTUA irenoetan Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98		
Gureaut TAILERRAK %10 DESKONTUA baterietan Zaldubia Indus. B partz. 2. nabea IRURITA T. 948 58 02 25	SANSIÑENA %5 DESKONTUA olio aldaketan Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06	ALMACO BAZTAN GAITIA %5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com		
begoviela ZORU ELBETZAREN BIZIKOTZEA %25 DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan %10 DESKONTUA 10 saioko bonoetan Santiago 14, 38 ELIZONDO T. 636 58 30 34	-POSADA- ELBETE %10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19	GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOA %5 DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonoiari Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01	nafarpress %10 DESKONTUA liburu eta ikas materialaetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02	ARGIBEL ESKAINTZA Betaurreko graduatu pare bat eroslerakoan, graduazio bereko bertzte pare bat doan Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91

BAZTAN ABENTURA PARK



BAZTAN PARK: herritarren eta ingurumenaren arteko oreka bilatuz, Europako abentura parke onenatariko bat sortzeko bidean

Kirolaren eta turismoaren aldetik, eskualdean garai hartan zeuden aukerak ikusita, eta gaztetasunaren indarrak bultzatuta, Baztan-Bidasoko hiru gaztek duela 27 urte sortu genuen BKZ-Nafarroa Abentura.

Orain dela sei urte, berriz, Beartzungo txoko eder horretan, abenturarako kirol instalazio onak sortzeko ilusioak, anbizio handiko proiektua aurkeztera bideratu gintuen eta Baztan Park-en lehenbiziko fasea zabaldu genuen. 2015ean turismo arloko nazioarteko Fitur azokan, estatuko parke onenaren saria eman ziguten.

Eta orain, Baztan Parken bigarren faseari ekiteko unea da. Iraunkortasun soziala eta ekonomikoa bultzatuz, lehen mailako baliabide bat sortu nahi dugu Baztanen, baztandarrei eta ingurukoei onurak ekarriko dizkien Europako abentura parke onenatariko bat! Eta proiektua bideragarria izateko instalakuntza hauek ezinbertzekoak dira.

- Proiektuaren lehenbiziko egin beharra errepidea konpontzea da.
- Familia eta kirol turismoari zuzendua.
- Hurbileko turismoa helburu.
- Urte osoan irekita egonen litzatekeen eta luzaroan iraunen lukeen proiektua.
- Turismoaren sektorean ari direnendako aukera paregabea.
- 30 zuzeneko lanpostu duin, egonkor eta iraunkorren sorrera eta zeharkako hainbertze lanpostu.
- Baztandarrendako onura ekonomikoak eta sozialak.
- Guztion onerako ekonomia. Inbertsio plana bertakoekin osatu nahi dugu. Horregatik, batetik, inbertitzaileak lehendabizi baztandarrak izatea lehenetsiko dugu, gero Bidasoaldekoak eta akitzeko kanpokoak. Bertzetik, lankidetzak publiko-pribatua bultzatu nahian, Baztango Udalari zein Nafarroako Gobernuari inbertsio-gile izateko aukera emanen diegu.

ZER EGIN NAHI DUGU BAZTAN PARK-EN?

- 3 urtetik goitiko herritarrendako jarduerak: Gravyti Canyon-a kilometro bateko tirolina azkarra, Vertigo Trek 60 metro tara pasarelak, Canyon Trek, Wow Park txikiendako (sareekin eta txirris-teen egindako azpiegiturak zuhaitzetan), txirrista erraldoiak, txiki park-ak, tirolinak...
- Erabilera anitzeko eraikina, bertzeak bertze, taberna-jatetxearekin, txiki park eta rokodromoarekin, erabilera anitzeko gelarekin...
- Txabolak zuhaitzetan.

Lana izateak jendea herrietan gelditzea dakar, herriak bizirik mantenduz, gure kulturari eutsiz, gure hizkuntza bizirik edukiz. Azken finean, denon etorkizuna ziurtatuz.

Baztan Park handitzeko proiektua urriko batzar nagusian eztabaidatuko dute. Eta onartuz gero, Nafarroako Gobernuak sail guztietatik pasako da eta nahi duten guztiek alegazioak aurkezteko aukera izanen dute.



BEARTZUN auzoa | 31700 ELIZONDO
Tel.: (0034) 948 59 23 22
Mu.: (0034) 646 75 57 60

bkz@navarraaventura.com
www.navarraaventura.com



Erdiz Bizirik plataformako kideak eta Baztango nekazariak irailaren 18an egin zuten prentsaurrekoan.

«Magnaren proiektuak nekazaritza hiltzora eramane luke»

Erdiz «Baztango nekazariendako alternatibarik ez duen sustengua» dela nabarmendu zuten

TTIPI-TTAPA

Baztango nekazariekin batera, Erdiz Bizirik plataformak prentsaurrekoa egin zuen irailaren 18an Elizondon. Magna enpresak Erdizen duen meatzaritza-proiektua eta Baztanen gelditzen diren nekazaritza esplotazioak bateraezinak direla azpimarratu zuten, eta

Magnaren proiektuak «nekazari belaunaldi gazteek berriki martxan paratu dituzten esplotazioak hiltzora eramane dituela» ohartarazi zuten.

Proiektua eta nekazaritza «bateraezinak» dira

«Baztango nekazariak argi utzi nahi dugu, orain dela hamahi-

ru urte bezalaxe, orain ere Magnak Erdizen proposatzen duen proiektua Baztango nekazaritzarekin bateraezina dela» azpimarratu zuten irailaren 18an egin zuten agerraldian. «Badakigu Magna multinazionala saiatu dela gutako batzuekin harremanetan paratzen, enpresa hauek ohitura duten bezala, gure hitza beren erasoak justifikatzeko erabili nahian».

Nekazaritzarendako «sustengu»

Mezu argia luzatu zuten: «ez dezatela denbora gehiago galdu Erdizeko bazkalekuari gezurretan oinarritutako alternatiba artifical bat proposatzen. Erdizeko bazkalekua ordezkazina zen orain dela

hamahiru urte, ordezkazina da gaur egun, eta ordezkazina izanen da etorkizunean ere».

«Behin eta berriz aldarrikatu dugu lehenbiziko sektorea bizirik mantentzearen garrantzia. Azkeneko hamarkadetan gure ogibidea, bizimodua eta kulturaren oinarria den nekazaritzak alimaleko erasoak jasan ditu. Erdiz Baztango nekazaritzarendako alternatibarik ez duen sustengua da. Erdizeko bazkalekuarekin sektorea bizirik mantentzea zaila baldin bada, Erdiz gabe ezinezkoa da. Magnaren proiektuak hiltzora eramane litzuke gaur egun Baztanen gelditzen diren nekazaritza esplotazioak, gehienbat nekazari belaunaldi gazteek berriki martxan paratu dituztenak» ohartarazi dute.

Herritarrei borrokarako deia

Horiek horrela, «proiektu hau gure bizimoduaren eta etorkizunaren kontrako eraso gisa» ulertzen dutela azpimarratu zuten. Horregatik, dei egin zieten herritar guztiei eurekin batera proiektu hau gelditzeko borrokatzera eta hemendik aitzinera antolatuko diren mobilizazio guztietan parte hartzera.



UTZITAKOA

Kantuz Erratzutik Lekarozerat

Irailaren 20an Erratzun egin zuen geldialdia Baztan Kantuz egitasmoak. Kantuzaleak karrikaz karrika ibili ziren kantari. Ondotik, Erratzutik Lekarozerat pasatu zuten lekukoa eta urriaren 18an zehaztua dute hitzordua. 12:00etan plazatik abiatuko dira.



UTZITAKOA

Edukiontzien «erabilera axolagabea»

Baztango Udalak zabor ontziei dagokionez bailarako «gutti batzuk egiten duten erabilera axolagabea» salatu du. Horren lekuko da Elizondoko beheitiko karrikako edukiontzien kanpoko aldean pilatu dituzten kartoiak eta zabor poltsak. Udalak gizalegez eta arduraz jokatzeari galdetzen du.



Aurten beranduago hasiko dute ikasturtea. UTZITAKO ARGAZKIA

Jubilotekak urrian irekiko ditu berriz ateak

Egungo egoera kontutan hartuta, Harremana elkarteak aurtengo kurtsoaren hasiera gibelatu du

ARANTXA ETA IRAIA

Egungo egoera kontutan hartuta, Harremana elkarteak aurtengo kurtsoaren hasiera gibelatu du. Protokolo eta aforoen xehetasun guztiak kontutan hartu eta aurkezpen bilera bat egin zuten irailaren 18an, neurri horiek guztiak azalduz.

Bertzalde, aurten bi tailer gehiago paratuko dituzte martxan jubilotekan: batetik, posibilitatean bizitzea; eta bertetik, boluntario proiektuetan parte hartzeko oinarritzko formakuntza. Gure aitatzia-amatxiek aurtengo kurtsoa ahalik eta hoberen pasatzea espero dugu!

Berroberriko eta Alkerdiko leizeak ikusteko aukera izan dute

ARANTXA ETA IRAIA

Nafarroako Gobernuak Udaren laguntzaz antolaturiko *Heziketa eta ondarea* jardunaldien barne, aurten ere Berroberriko eta Alkerdiko leizeak eta bertako pinturak ikusteko aukera izan zen irailaren 26an. hondarreko larunbatean, SOS Alkerdi Plataformaren laguntzarekin. Aitzineko lau urteetako programazioaren eskemari jarraiki, 10:00etan abiatu ziren herriko plazatik eta leizeetaraino ibilbidea osatu zuten. Geldialdiak ere egin zituzten eta puntu adierazga-

rrienei buruzko azalpenak eman zituzten, zaldi urdinaren bidearen parte bat erabiliz horretarako. Behin Alkerdi-Berroberriar atalegatuta, taldeka banatu ziren eta Nafarroako Gobernuko arkeologo baten laguntzaz, herriko ondarea ezagutu bidenabar, pinturak ikusteko aukera izan zuten hurbildu ziren bisitari guztiek.

Alkerdiko sistema karstikoa-ren (kultura-intereseko ondasun izendatua da) garrantzirik buruzko hitzaldi bat ere eman zuten ekitaldia borobiltzeko.



Joan den urtean urrian egin zuten lasterketa. UTZITAKO ARGAZKIA

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketarik ez da izanen aurten

ARANTXA ETA IRAIA

Zita polita izaten da inguruko batzuentzat urtero izan ohi den Urdazubiko Kontrabandisten Mendi Lasterketa. Aurten, aldiz, ezin izanen da burutu. Egungo egoera dela eta, antolatzaileek protokoloak ikusi ondotik, aurtengo edizioa ez egitea erabaki dute.

Erabaki zail hori hartzearekin batera, antolatzaileek hurrengo urtean lasterketa eginen dutela erran dute. Gehiago ere bada, lasterkariei gonbidapena zabaldu diete. Nahi duenak badu 22 kilometroko eta 1.200 metroko desnibela duen lasterketa prestatu ahal izateko denbora.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Erreboteko plazak Jean Fagoagaren izena izanen du. GANEX

Jean Aniotzbehere izena eman diote Lur Berri gelari

Erreboteko frontoiak, berriz, Jean Fagoaga pilotari ohiaren izena izanen du

GANEX

Aurtengo bestak alde batera gelditu badira ere, buruilaren 13a egun berezia izan zen herrian. Batetik, gerran hildako beteranoak ohoratzeak dauden bi harrietan loreak pausatu zituzten. Eta bertzetik, hainbat izendapen egin zituzten. Hala, orain arte Lur Berri gela izan dena 1983tik 2008ra auzapez izan zen Jean Aniotzbehere izenez izendatu zuten, Aniotzbehere auzapeza egon zelarik antolatua eta eraberritua izan zelako. Battite Laborde egungo auzapezak zorionak eman zizkion «holako gela ederra» egin zuelakoz eta Aniotzbeherek bere izena emateagatik eskerrak eman zituen, eta kontent mintzatu zen gelak segida baduelako. Ondotik, aurrekua dantzatu zioten Leire eta Joanesek.

Errebotea

Errebote berriari, berriz, Jean Fagoaga pilotari famatuaren izena paratu zioten, hau ere auzapez egona 1971tik 1977ra eta memento hartan egin zelako. Bere garaian, txisteran pilotari ainitz izan ziren Saran;




Lore eskaintza.

denek ezagutzen genuen Jean Lemoine kasu, baina baziren gehiago ere. Buruilaren 13an jokatu ziren Iparraldeko txapelketako luzeko finalak, eta orduan inauguratu zuten Jean Fagoagaren izena daraman harria. Laborde auzapezak Fagoaga ohoratu zuen, pilotari ederra izan zela erranez, eta pilota plazak bere izena merezi duela aipatu zuen. Fagoaga ere kontent agertu zen. Bere alaba ttikia den Leire eta Joanesek aurrekua dantzatu zioten eta ondotik, aperitifa izan zuten Jean Aniotzbehere gelan.

Egun horretan, gazteriak plazan ostatua antolatu zuen, eta ilunabarrean kantaldia izan zen Primadera taldearekin.

Unax Aizpuruak irabazi du Lazkao Txiki lehiaketa

Argi Berri Elkartek eta Ordi-ziako Udalak antolatutako Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketan, Unax Aizpuruak Ibargarai izan da nagusi 13 urte artekoen kategorian, *Etxetik ezin atera* gaiaren inguruan idatzitako lau bertsoekin.



Endara Bizirik plataformaren bilkura ortziralean

Nordex enpresak parke eolikoa paratu nahi du Lesakan eta gaia kezka handiarekin hartu dute auzotarrek. Horren karrietara, Endara Bizirik taldea ere sortu dute. Saran ere hai-ze erroten eragina sumatuko dutela uste dute eta horregatik informazioa emateko bilkura antolatu du Endara Bizirik plataformak ortzirale honetan, urriaren 2an. 20:00etan eginga dute hitzordua, Jean Aniotzbehere gelan. Alegazioen fasea irekitzean Sarako Herriko Kontseiluari parte hartzeko galdeginen diote.

Urriaren 18tik 23ra Usoaren Astea iraganen da

Bertze urte batez, Usoaren Astea antolatuko dute, urriaren 18tik 24ra. Lehenbiziko egunean, urriaren 18an, Usoaren Kofradiaren desfilearekin hasiko dira hitzorduak eta horren bueltan, ondoko egunetan pilota partida, herri kirol saioa, usategietara eta elizara bisita gidatuak, euskal kanten kantaldia... izanen dira, baita herriko jatetxeetan usoarekin egindako platerak dastatzeko aukera ere. Xehetasun gehiago hurrengo Tripi-Ttapan izanen da eskuragarri.



ARTXIBOKOA

Pilota ligaren tournoea luzara errebotean

Pilota ligaren tournoea luzara errebotean lehen mailan: Luzean (Carricaburu Frederic, Franchisteguy Beñat, Carricaburu Jerome, Eyheraomono Raphael eta Onchalo Frederic) 13-6 irabazi zuten Hardeyrtarren (Driole Bruno, De Parades Eneko, Sistiague Joel, Funosas Mikel eta Errandonea Xan) kontra.



SARRERA
DOAN



BIOTERRA

2020 9 · 10 · 11 · 12 Urria

Ficoba, Irun - Gipuzkoa



energia
berriztagarriak



osasuna



habitat
osasuntsua



idea
berdeak



textil
ekologikoa



ekoturismoa



nekazaritza
ekologikoa



zentzudun
kontsumoa



elikadura
osasuntsua



kosmetika
ekologikoa



terapia
naturalak

17

edizioa



bioterra.ficoba.org

#Bioterra2020



Ficobara,
zatoz
trenean!  euskotren
(Irun-Ficoba geltokia)

Buruilaren 13an abiatu da ehiza sasoia

Mixel Bereau, Ihiztarien Lagunak elkarteko presidentek adierazi digu zertan den ehiza Senperen

PIERRE BASTRES

Ihiztarien Lagunak izena du ehiza elkarteak, eta 2005az geroztik, Kamietako Mixel Bereau da lehendakaria, Kanderatzeko Jean-Leon Doratçagueri segida harturik. Non josta badute ehiztariek, zeren eta herriko 7500 hektareatarik 5000tan ehizatzen ahal da. Herriko baimena edo karta hartu dute 380 pertsonak, horietarik 280 senpertar. Mixelek azpimarratu duen bezala, «denetarik badugu hemen: oihana, larrea, berroak. Ehiza frango bada, ehiza handia oroz gainetik: basurdeak eta orkatzak. Orain dela 15 urte, urtean umealdi bakar bat zuten basurdeek, orain bi urtetarik hiru umealdi izaten dituzte. Jatekoa badute ausarkian, artoa batez ere. Banaz bertze 60-70 hiltzen ditugu sasoian. Adibidez, agorriaren 15ean hasi zen basurdeko sasoia, eta abantsu 20 harrapatu ditugu janeko. Hainbat dira, non haragia saltzen baitugu, nahi duenak erosten ahal digu. Eskualdeko Federazioak ere lanpostu

bat sortu du, bezeroak atzemateko eta haragi guzi hau ez xahutzeko». Halaber, geroz eta orkatz gehiago zenbatzen dira hemen gaindi. Kamieta-koaren erranetan, «basurde eta orkatza ehizatzen dutenak pertsona berak dira, 50 bat lagun denetarat. Bertzalde, xakur arraza berak baliatzen dira bi ehiza horietan: anglo, griffon eta biggle gehienetan. 10 zakurdun baditugu, 40 zakur orotarar». Ehiza larriaz gainerat, ehiza xehea maite dutenek ere beren zaletasuna asetzen ahal dute: «Erbia itzuli da, ongi begiratu izan baita, bi baizik ez ditu hiltzen ahal ehiztari bakoitzak. Lapina edo untxia, ordea, kinka larrian dago, berroak azkarki kenduak izan direlako».

Lumako ehiziari dagokionez, azken urteak nahiko onak izan dira pekada edo oilagorrenzat. «Erran nezake 100 ehiztarik pekada bilatzen dutela. Larretxori edo laudeta usaiako ehiza izaten da beti herrian (txoriak lurreko sareetan sarrazten dira), 10 toki gelditzen



Senpereko ihiztari zenbait, beraien zakurrekin. MIXEL BEREAU

dira. Gero, usoa eta biligarroentzat barrandan ehizatze-ko, karta berezi bat hartzen ahal du nahi duenak: gisa hortarat postu bat hautatzen du eta atxikitzen du bi hilabeteendako: urria eta hazila. Ehiztariak haien artean moldatzen dira tokiak banatzeko, ez da kiski-kaskarik izaten».

Hamaika usotegi

Azkenik, 11 usotegi (goratasunean den etxola bat, zeinetik usoak hiltzen ahal dira bakarrik pausatuak baldin badira, eta sekulan ez airean hegaldaka direnean) egoten dira eremu publikoan, eta sei-zazpi eremu pribatuetan. «Herriak berak kudeatzen ditu, eta nahi duenak alokatzen

ahal du bortz urteendako, enkanteetan diruketa emanez. Hemen ere, errespetuz iragaten dira enkanteak, denek bertzeen hautua errespetatzen dute. Iraganeko denboretan izan zitezkeen, bai, mokokaldi zonbait, orain ez». Burutzeko, Bereauk urriki du hain gazte gutti izatea elkarte-«16 urterekin hasten dira, baimena erdietsita, gero ez ditugu gehiago ikusten, bertze aktibitateetan harturik doike, baina beharrik zonbait berriz agertzen diren 35 urterekin».


Erran dezagun ere Akitania-ko Basurde Txapelgoa Senperen iraganen dela epailaren 19, 20 eta 21 ean. 28 talde lehia-tuko dira herriko eremuetan, xixparik gabe.

Errusia ezagutzeko filma emanen dute urriaren 13an Larreko gelan

TTIPI-TTAPA SENPERE

Arbaso errusiarrak dituen Michel Drachoussoff-en *Ma Russie* filma ikusgai izanen da urriaren 13an, asteartean, 18:30ean Larreko kultur aretoan. Senpereko Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatutako emanaldira sartzeko zazpi euro ordaindu beharko da.

Drachoussoff-ek ohiz kanpoko irudiak eskaintzen dauz-kigu, leku ezagunen (Mozku, Saint-Pétersbourg) begirada pertsonala eginez, baita guti-ago ezagutuak diren hanbat lekuena ere. Gaur egungo Errusiaren errealitatean sartzen gaitu bere erroak aurkitzeko eta oroimen lana egiteko gisan.



Drachoussoffen filmaren fotograma bat.



GUERE ZERBITZUAK

BAZTAN-BIDASOKO HERRITARREKIN ELKARLANEAN

Baztan-Bidasoko udalerri guztiei ematen diegu zerbitzua.

Komunitateei eta norbanakoei bideratutako **dirulaguntzen tramitazioa** egiten dugu. Horretarako garrantzitsua da:

Eraikinak 25 urte baino gehiago izatea.

Lanak soilik estetikoak ez izatea.

Etxebizitza bakoitzeko aurrekontua, BEZa gabe, 2.000 euro baino gehiagokoa izatea.

Zaharberritze lanak egin baino lehen dirulaguntzarik izan den edo ez galdetzea. Errenta aitortpena eskuetan bulegora etorrita eta zer egin nahi duzun azalduta, dirulaguntza dagokizun edo edo ez erranen dizugu. Etxebizitzaren adinaren, eskatzailearen adinaren, unitate familiarren eta diru-sarreraren arabera izanen da jasoko duzun dirulaguntza: kasuaren arabera, onartutako aurrekontuaren %5-51 artekoa izan daiteke.

Bizigarritasun zedulen tramitazioaz arduratzen gara. Bizigarritasun zedula etxebizitzan bizitzeko gutieneko baldintzak betetzen dituela zehazten duen agiria da, etxebizitza saldu edo alokatzeko ezinbertzekoa dena.

Tramitazioak bere denbora behar du, batez ere zaharberritze espedienteekin. Horregatik dirulaguntza eskaera obrarekin hasi baino hilabete batzuk lehenago egitea komeni da. Zedulen tramitazioaren kasuan, eskaera egitera notarioaren ait-zinera joan baino aste batzuk lehenago egitea gomendatzen dugu.

HIRIGINTZA AHOLKULARITZA UDALEI

Udalei ematen zaien zerbitzua da. Momentu honetan eskualdeko udal hauek jasotzen dute zerbitzua: Bera, Beintza-Labaien, Donamaria, Igantzi, Lesaka, Oiz, Urroz, Urdazubi eta Zugarramurdi.

Herri handienetara teknikariak hurbiltzen dira, kontsulta kopurua handiagoa baita. Lesakara asteazkenetan eta Berara ortzegunetan joaten gara. Gainerako udaletako kontsultak bulegoan jasotzen ditugu.





Moda gehigarria 2020

ILE-APAINDEGIAK

Iazko orrazkeretatik look aldaketa berrietara, ausartu 'Pink is punk' estiloarekin

Emakumezkoak

Udazkenean sartzeko alda ezazu looka, itxuraldatzea komeni da. Horrekin batera, hartu ileari eman beharreko zaintzarako tarte bat ile-apaindegira joanda. Udazken honetan aldaketak egiteko prest bazaude hona gehien egingo diren orrazkerak:

Ile lisoarekin aspertu bazara, kizkurtzeko aprobe txatu dezakezu. Ile luzearekin jarraitzekotan hainbat modutara orraztuz, modu sinplean apaintzeko aukera duzu. Buruaren alde banatuko bi mototsak itzuliko dira udazkenean, baita motos altuak ere.

Aurreko urtetako orrazkerak ere itzuliko dira: marra oso markatuarekin orraztuz edo buruaren gaineko aldean ile motzagoa eta atzekaldean luzeagoa eramanez.

Osagarriak ere protagonista izanen dira udazkenean. Ile motz zein luzearentzat diademak etorriko dira. Ilea luzea dutenentzat, mototsa egiteko goma lodi eta koloretsuak erabil ditzakezu.

**Gizonezkoetan ongi
zaindutako melena
erdiak datoz.**

**Ukitu natural eta
sofistikatua emateko**



**EMAKUMEA
ETA
GIZONA**

Parrokia, 21 DONEZTEBE | T. 669 552 283

Koloreetan aniztasuna

Produktu ekologiko eta naturalak erabiliz koloreetan ere aniztasuna dator aurtengoan. Ausartenentzat *Pink is punk* tendentzia dator: oinarri ileho-riaren gainean arrosa argia tindatzea, adibidez, *Half and half* moduan ilea tindatzeko modak jarraituko du, baina oraingoan *under lights* moduan tindatuko da ilea, puntak kolore argiagoz tindatuz.

Gizonezkoak

Beti orrazkera berarekin ibili bazara eta aldatzeko bazaude hona hemen udazken honetarako datozen proposamen batzuk.

Elegantzia ematen duen dutxatik atera berriaren orrazkera etorriko da, *Carácter slick* deitzen zaiona. Atzeraka orraztuz eta busti efektua ematen dizun produktu bat ala gomina emanez lor dezakezu.


Ongi eta mimoz zaindutako melena erdiak ukitu natural eta sotifikatua emateko datoz eta ilea labor eramatea gustatzen bazaizu kaskamotz moztea gomendatuko dizu zure estilistak.



**Maite
moda**
arropa eta osagarriak

 maite.moda
 Maite Moda

T. 948 450 727
Kale Nagusia, 4 behea
DONEZTEBE



Zatoz Venta Peiora moda ezagutzera

3 POMMES ABSORBA ADIDAS AMERICAN TOURISTER ARMANI EXCHANGE BENZI BELLOSTA MORLANS BMSAK CALVIN KLEIN CHAMPION COLUMBIA CONVERSE DELSEY DESIGUAL DOCKERS EA7 EASTPAK ELLESSE ESPRIT G-STAR FILA FJALL RAVEN HACKETT HAVAIANAS HELLY HANSEN HILFINGER DENIM IKKS IPANEMA ICEPEAK JACKS&JONES JOMA KAPORAL KAPPA LACOSTE LACOSTE LIVE LAFUMA LEE LE TEMPS DES CERISES LEVIS LEVIS KIDS LLOLIPOPS MANGO MERRELL MILLET NAPAPIJRI NEW BALANCE NEW ERA NORTON ODLO ONLY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PROMISE RALPH LAUREN REEBOK RIP CURL SAMSONITE SELECTED SKECHERS SUPERDRY SURKANA TEVA THE NORTH FACE TOMMY HILFINGER TRANGOWORLD UMBRO VANS VERO MODA VIOLETA BY MANGO WRANGLER

PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel: +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)


Arnegui | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin







Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN



MODA eta OSAGARRIAK
Behar duzun guztia!





Amezitia DONEZTEBE - T. 948 450 163 @amayacentro

Udazken eta negu gorriak, jaka bakeroekin ala artilezko jantziekin goxatua

Emakumezkoak. Udazken gorria

Udazken gorria izanen da aurtengoa. Edozein egun bizipoza eta indarra emanen dioten jertse, galtza eta beroki gorriak izanen ditugu jantzeko, ezpain gorriak margotuta edozein egun makurri bueltan emateko.

Kolore gorriak ausartegiak iruditzen bazaizkizu, granatea eta arrosa ere esku-za izanen dituzu udazkenean. Arrosetan tonu-paleta zabala izanen duzu eskura: zurbila, txikle kolorea edo korala. Ez dira faltako gure armairuetan okrea, mostaza edo kaki kolorea ere. Estantpatuetan, berriz, loredunei lekukoa hartuko diete kuadroek: hainbat kolore eta neurritako kuadroak jantziak.

Behin koloreak zein diren jakinda nolako jantziak izanen diren? Lepoalde handidun alkadora eta soinekoak, flekoak dituzten jantziak, txalekoak eta sorbaldakoak dituzten jantziak itzuliko dira. Gonak jantzea gustuko baduzu, aurtengoan gona plisatuaren apustua dator gure armairuetara.

Udazken eta neguko haize freskoetatik babesteko maxi-berokiak jantziko ditugu: beroki zabal eta luzeak. Bestela, 80ko hamarkadako bomber estiloko jakak erabil ditzakezu.

Gizonezkoak. Jaka bakeroak bueltan dira

Udazkenak beti izaten dira hasteko aukera berri bat eta armairuan arropa berria baduzu askoz ere hobe. Estiloa edozein dela ere, jantzi bakeroek protagonismo berezia izanen dute gizonezkoen janzkeran. Galtzetan bereziki tindua galdutako bakeroak ikusiko ditugu. Motorrik gabe ere, motorzale arima erakuts dezakezu zure jantzietan edo *Matrix* pelikulako protagonista sentitu larruzko jaka beltzekin.

Puntuzko jertseak goxatuko zaituzte aurten ere, ez baitira sekula modaz pasatzen eta udazken negu honetan eskura izan beharreko jantzia da. Zabalik eramateko jakak gustatzen bazaizkizu alkandorez gain eskura izan itzazu lepo altua duten kamisetak.

Ausartenek 70eko hamarkada gogora ekarriko diguten jantziekin proba dezakete. Alkandora zein galtzetan aukera zabala eta koloretsua, panazko oihalak oinarri hartuta. Garai honek ekarriko ditu berriz ere kanpai formako galtzak.

Haurrak. Estilo urbanoa oihal leunekin

Oihal leun, bero eta erosoak nagusitauko dira aurtengo udazken neguan haurren janzkeran. Kotoi eta artilez jantzita izanen ditugu gure etxeko txikiak. Kolore metalizatuak nagusituko dira, gris eta beltzarekin konbinaturik, estilo urbanoa emanez. Lore estantpatuek eta kolore gorri eta urdinek euren lekua izanen dute bai jantzietan baita osagarrietan ere. Jaketan estilo kosmopolita eta urbanoa egungo joera estetikoaren osagarri izanen dira, material xuabe eta naturalekin eginak. Material koloretsuekin egindako jantziek lekua hartuko diete orain arte armairuan izan ditugun pastel koloreei.

**Kolore gorriekin
ausartzen ez bazara,
granatea eta arrosa
ere izanen
dituzu bidelagun**

**Estiloa edozein dela
ere jaka eta galtza
bakeroek
protagonismo berezia
izanen dute
gizonezkoetan**



UDAZKEN KOLOREAK

WWW.VENTABIOK.COM

IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE - IRUN

BIOK

«Etorkizunean Baztanen pala eskola sortu nahiko nuke»

XABIER IBARGARI IRIBARREN ERRATZUKO PALISTA

15 urterekin heldu zion palari Xabier Ibargari Iribarrenek (Erratzu, 1985). Iaz Munduko txapelketa irabazi zuen eta oraindik gogotsu jarraitzen du kantuan

M. MARTIARENA | ERRATZU

Xabier Ibargarai erratzuarra umetatik imajinatu behar dugu pilota sakelan duela. 15 urtera arte eskuz aritu zen, Baztango Txaruta pilota elkartean. Ondotik bere eskuek pilota-kadekin ezin eta esku pilota uztea erabaki zuen. Pilotarekin lotuta jarraitu nahi zuen eta Iruñera joan zen pala probatzera. «Proba egin, gustatu eta ordutik pala askatu gabe nabil». Mundu mailako pandemia batek etorri behar izan du pala askatzeko, baina itzuli dira berriz ere lehiara eta gustura dago «etsia hartzen hasita geunden, ez ginela kantxara itzuliko pentsatuz» eta itzule-ra horretan lortu du Necol frantziarrarekin batera udako pala txapelketa eskuratzea.

Palak «dena» eman diola argi du. 15 urterekin Iruñera joaten hasi zen palan jokatzeko. Dohain bereziak zituela errantzioten eta pixkanaka bidea egiten hasi zen, Nafarroako selekzioan eta Espainiakoan parte hartuz. «Bizitzako ikasgai aunitz ikasi ditut, errespetua, elkarlana, pertsona izaten irakatsi didate eta baita mundua ezagutzen ere».

Palista profesional bezala debutatu zuenetik entzun du «hau hiltzera doa». Erremintaren osasuna ez da eskuzkoarena bezain ona eta gaur egungo egoerarekin okerragora egin du. Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza dute palan jokatzeko dutenek, «Bizkaia



Ibargarai 2019an irabazi zuen buruz buruko palako munduko txapelketa.

pala arras berea du eta ez du hiltzen utziko». Bi urtero dirulaguntza ematen diete eta ez dagoela kexatzeko dio erratzuarrek «ez naiz aberastu, baina diru pixka bat irabazi

dut eta kontentu nago alde horretatik».

Debutatu zuenetik hona aldatu da Ibargaraiaren jokoa «hasieran pixka bat eroa nintzela erranen nuke, esperien-

«ERREMINTAREN OSASUNA EZ DA ESKUZKOA BEZAIN ONA»

«SEKULAKO SARIA IZAN ZEN BURUZ BURUKO TXAPELA IRABAZTEA»

tziari esker pilotari zentratua goa naiz». Kolpe handikoa eta bi eskuak onak dituen palista zentratua. Pala adituek diote sufritzen ohituta dagoen pilotaria dela. Momenturik gogorrenetan aitzinera egiten dakien pilotaria.

Munduko txapeldun

Buruz buru aritzea maite du eta horixe da bere txapelketa kuttunena. Modalitate honek erakutsi behar baitu pilotari batek, «pilotari osoa dela». Bortz aldiz ailegatu da buruz buruko finalera eta iaz irabazi zuen lehen aldiz munduko txapelketa. «Bi aurkari gogor izan ditut nire ibilbidean: Esteban Gaubeka eta Pablo Fusto, baina lortu nuen azkenean txapela eta badut bertzeren bat irabazteko asmoa eta go-goa». Frontoian kontrario dituenak bidelagun ditu eta eurekin aunitz ikasi duela dio.

Ez du irabazitako momentu hura atzenduko, «urtetako lanaren emaitza izan zen». Une horretan pasatu zitzaizkion burutik gurasoek beregatiegindako esfortzu guztiak, «aitak fabrika oporrak hartzen zituen ni partidetara eramateko». Zirrarez beterik bizitu zuen, bereziki «hainbertze urtez dena ematen ibilita, sekulako saria izan zen».

Etorkizuna

Ez daki noiz arte jarraituko duen goi-mailako kirolean, «gorputzak gelditzeko» erraten dion arte ala «etxekoei pazientzia akitzen zaizen arte».

Etorkizunerako amets bat ere badu eta sarritan hitz egin du horri buruz Josetxo Huardebaztango bertzepalarekin. «Baztanen pala eskola bat sortzeari buruz aunitzetan solas egin dugu, «gazte aunitz dira ni bezala eskuetako minagatik esku pilota uzten dutenak eta pilotari jarraitzeko aukera polita da pala». Agian hemendik guttira pala eskola sortu eta puntako palista baztandarrak ikusiko ditugu txapelak janzen.



Nafarroako koxkor biltze txapelketan parte hartu zuten kirolariak. Ondoan, Ariztegi eta Iantzi txapeldunak. XAGU-LESAKA

Iantzik eta Ariztegi irabazi dute koxkor biltze txapelketa

Anizkoa Fernando Etxegararen errekorretik zortzi segundora gelditu da eta iturendarrak ere marka polita egin du

TTIPI-TTAPA


Nafarroako koxkor biltze txapelketak jokatu ziren Antsoainen irailaren 12an. Gizonezkoen artean, Unai Iantzi aniztarra nagusitu zen, joan den urtean lortu zuen txapelari eutsiz. Hirugarrena du aniztarra, 2016an ere txapeldun izan baitzen. Marka ere ona

EMAKUMEAK

1. Maika ARIZTEGI (Ituren)	7.32.79
2. Ainhoa Iraizoz (Eltso)	7.37.78
3. June Etxeberria (Txantrea)	8.08.44
4. Iruñe Biurrun (Antsoain)	8.25.16

GIZASEMEAK

1. Unai IANTZI (Aniz)	6.09.37
2. Aitor Blanco (Txantrea)	6.27.84
3. Asier GAMIO (Berroeta)	6.35.21
4. Joanes Rekalde (Betelu)	7.06.10



Irrisarrin jokatu dute Espainiako Disc Golf txapelketa

TTIPI-TTAPA | IGANTZI

VIII. Espainiako Disc Golf Txapelketa jokatu da joan den urtean inauguratu zen Igantzi IrriSarri Landeko zelaian urriaren 10 eta 11n. Aitzineko edizioak Asturiasen burutu ziren eta aurreneko aldiz Nafarroan lehiatu da. Txapelkeak BAXI Basajauna Disc Golf Elkarteak (BBDG) antolatuta du, CRK Disc Golf-ek aholkularitzarekin.

Txapelketan Galizia, Madril, Euskal Herria, Katalunia, Cadiz eta Asturiasko elkarteetako jokalariek onenak hartu dute parte eta honako kategoriatan jokatu da: emakumezkoentzako irekia, Sub-18, Sub-15, Master-a eta Grand Master-a.

IrriSarri Landeko Nafarroako lehen Disc Golf zelai profesionala da, estatu espainiarreko hirugarrena. Bertze biak Oviedon (Asturias) eta Mijasen (Malaga) daude. Igantzi parkeko lur-sailetan 18 saski dituzte.

egin zuen, 6 minutu eta 9 segundo behar izan baitzituen 50 koxkor biltzeko, Fernando Etxegarai beratarra 2004an egin zuen Euskal Herriko errekorretik zortzi segundo eskasera. Aitor Blanco txantrearrari 17 segundoko aldea ateratzen zion. Hirugarren izan zen Asier Gamio berroetarra (06.35) eta laugarren Beteluko Joanes Rekalde (07.06).

Emakumezkoen artean, Maika Ariztegi iturendarra nagusitu zen bertze behin (07.32). Elsoko Ainhoa Iraizozek bortz segundo gehiago behar izan zituen (07.37). Hirugarren sailkatu zen June Etxeberria (08.08) txantrearra eta laugarren Iruñe Biurrun antsoaindarra (08.25).



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako erremonete txapelketa bero

Urriaren 2an eta 3an Tafallan jokatu dituzte Nafarroako erremonete txapelketako finalerdiak: Uterga eta Otano (ligaxkako lehenbizikoak), Aldabe eta Ionen (laugarrenak) kontra ariko dira eta Matxin III.a eta Azpiroz (bigarrenak), Ezkurra II.a eta Barricarten (hirugarrenak) kontra.

Eskubaloia txapelketetan izenik ez ematea erabaki du Erreka Elkarteak

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

«Momentuko osasun egoera ikusita, eta jokalarien eta entrenatzaileen segurtasuna bermatu ezin dutela» iritzita, denboraldi honetako eskubaloia txapelketetan izenik ez duela emanen jakinarazi du Erreka Kirol Elkarteak sare sozialetan. Zuzendaritza batzordeak eskubaloia taldeetako entrenatzaileekin egindako bileran «aho batez» hartutako erabakia izan dela gaineratu du.

«Zuhurtziaz eta arduraz jokatu» nahi dutela adierazi du

Erreka, eta «Doneztebe eta Malerreka» alde» hartutako «erabaki zaila» izan omen da. Txapelketetan ez parte hartzeaz gain, «oraingoz», entrenamenduekin ere ez dira hasiko. Hala ere, aitzinera begira, momentuko egoeraren arabera «modu batean edo bertzean ea eskubaloiaz gozatzeko aukera dugun», erran dute Erreka Kirol Elkartetik.

Oraingoz horrelako erabaki bat ofizialki ezagutzera eman duen eskualdeko talde bakoitza da. Ikusi beharko berteazker bide hartzen duten.

HITZALDIAK

DONEZTEBE

Trafiko ordenantzari buruzko bilera

Ameztiar karrikako, Ameztiar zeharbideko eta Caixatik zubira arteko herritarrendako.
Zinema aretoan, urriaren 1ean, 20:00etan.

Trafiko ordenantzari buruzko bilera

Leitzako errepidea, San Miguel auzoa, Zazpigurutze eta San Miguel gaina.
Zinema aretoan, urriaren 8an, 20:00etan.

ERRATZU

'Heziketa eta ondarea' jardunaldia

Urriaren 3an eta 4an
(xehetasunak 36.or.).

LEITZA

Nafarroako herriak etorkizunari begira

Batzar aretoan, urriaren 8an, 19:00etan.

KIROLA

ESKUALDEA

Presoen aldeko mendi martxa

Hainbat herritara, urriaren 3an.

IKASTAROAK

IRURITA

Koro ttiki

Gizarte Bilgunean, asteazkenean. Ttikienak 17:30ean eta koxkorrak 19:30ean.

LESAKA

Emakumeentzako prestakuntza saioak

Harriondoan, urrian, ortzegunero, arratsaldean,



UTZITAKOIA

GOIZUETA Bardoak finalaurrekoa

Arranopola eta Bertsonautak taldeak.
Udaletxeko ganbaran, urriaren 2an, 18:30ean.

18:00etatik 20:00etara.
Xehetasunak: 14. orrialdean.

ELIZONDO

Landa-eremuan zahartzea

EHUK antolaturiko ikastaroa.
Arizkunenean, urriaren 2an.

Hasiberri eta arituendako gaita eta atabala ikastaroa

Tomas eta Shanti Diazen eskutik, hurrenez hurren.
Arizkunenean, urriaren 3an hasita, larunbatero, 09:00etatik 10:00etara (gaita 10:30 arte).

Brioche egiteko tailerra

Edorta Salvador gidari.
Arizkunenean, urriaren 16an, 17:00etatik 20:00etara.

Elikadura osasuntsu, jasangarri eta arduratsua

Amaia Meoki Plazaren eskutik.
Arizkunenean, urriaren 24an eta azaroaren 7an, 11:00etatik 13:00etara.

'Izan zu ere artista' tailerra

Amaia Zinkunegiren eskutik.

Arizkunenean, urriaren 5etik azaroaren 30era, astelehenero, arratsaldean, 16:00etatik 17:30era.

Nola diseinatu euskal jantzi tradizionala

Amadeo Arretxearen eskutik.
Arizkunenean, urriaren 3tik azaroaren 14ra, larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara.

Plastika lantegia

Arizkunenean, azaroan.

GARTZAIN

Konpondu zure bizikleta

Aitor Txarterinaren eskutik.
Urriaren 17an eta 24an, 09:00etatik 14:00etara.

IGANTZI

Emakumeentzako arte topaketa

Urriaren 9tik azaroaren 7ra bitarte, ortzirale (17:30etik 20:30era) eta larunbatetan (09:30etik 12:30era). Izen-emateak: 600 01 96 01 telefonoan urriaren 4ra arte.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

In Tempore abesbatza eta Ganbara orkestra

Urriaren 17an, elizan, 20:00etan hasita.

LEKAROZ

Baztan Kantuz

Urriaren 18an, plazatik abiatuta, 12:00etan.

BERTSOAK

MALERREKA-BAZTAN-BORTZIRIAK

Haur eta helduentzako bertso eskolak

Urriaren 5etik aitzinera Ituren, Doneztebe, Irurita, Arizkun, Leiza, Lesaka, Bera, Etxalar, Arantza eta Igantzin (xehetasunak 766.zenbakian).

IKUSKIZUNAK

ELIZONDO

Kukai dantza taldea

Braulio Iriarte pilotalekuan,
urriaren 9an, 19:00etan.

DONEZTEBE

'Oso printzesa iletsua' ipuin-antzeztua

Santa Luzia plazan (euria ari
badu Ezkurra frontoian),
urriaren 10ean, 18:30ean.
Edukiera mugatua.

Ipuinen txokoa

Haizea Loiraren eskutik.
Urritik aitzinera, asteartero,
11:00etatik 12:00etara.

BERTSOA

GOIZUETA

Arranopola eta Bertsonautak taldeak

Udaletxeko ganbaran, urriaren
2an, 18:30ean. Sarrerak salgai
estankotan, hiru eurotan.

JAUN SARATS

Lamixene eta Hego haizea taldeak

Ganbaran, urriaren 2an,
18:30ean. Sarrera hiru euro,
bertan salgai.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Komiki erakusketa

Urriaren 4ra arte, Arizkunenean,
18:00etatik 20:00etara.

LEHIAKETAK

IGANTZI

VIII. Disc Golf Txapelketa

Irisarri Landen, urriaren 10ean
eta 11n.

LESAKA

Beti Gazte argazki lehiaketa

Urriaren 31ra arte.

Nire aukera

«Urritik aurrera ezin dugu oporrik hartu langile guztien beharra dutelako»

ANE ANSO LOIARTE ZUBIETAKO GAZTEA



Zubieta du sorterri eta Oiz aldi baterako bizitoki Ane Anso LoiarTE (Zubieta, 1998). Gaztea da, gazte bizia. Ez dugu aise etxean etzanda harrapatuko, «geldirik egoten ez dakien eta deusetarako denborarik ez duen» horietakoa baita.

Erizain laguntzaile

Lanak hartzen du bere egunerokoaren zati handienetarikoa bat. Donostiako ospitalean, zainketa aringarriak behar dituzten gaixoen zaintza arduratzen da: «sendatzeko aukerarik ez duten gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko eta eurek zein familiek ahalik eta gutxien sufritzeko lan egiten dugu».

Hortxe hasi zuen erizain laguntzaile gisa bere ibilbidea: «2017ko abenduan hasi nintzen, egun nagoen ospitale berean». Onkologian, haurrekin, aritu zen lehenbizi eta geroztik, Iruñean ere ibili zen. Baina orduko oroitzenak ez dira horren goxoak: «gaztele-raz egin behar izan nuen nire lanaren zati handiena. Ez nintzen eroso sentitu, hizkuntza ere ez dut menperatzen eta...». Hortaz, «gerora, Donostiatik eskaintzen dizkidaten ordezkapenak» aukeratu izan ditu. Azkena du esperientzia luzeena: «2019ko abendutik erizain

laguntzaile baten ordezkape-na egiten ari naiz...».

Beharren arabera arreta

Ez du lan erraza, baina bai gustukoa. Beharra dutenak laguntzen pasatzen du egunerokoa: «gaixoak garbitu, pardelak aldatu, erizainei lagundu...». Eta horretan «konfiantza eman eta gaixoak ongi, eroso, sentiarazten» saiatzen da. Beharra dutenei «baskaltzera eman, botikak hartu dituztela egiaztatu...». Solairu eta gune bakoitzak «bere betebeharrak» izaten ditu. Horrez gain, «belarriko ebakuntza ttiki bat egin behar dioten gaixoa edo hiltzeko zorian dagoena ez dugu modu berean zaintzen, behar-rrak ere ez baitira berak».

Lan baldintzak

Arreta ere ez da nahi bezain bestekoa. Koronabirusaren ondorioz, lan baldintzetan aldaketak izan baitituzte: «Nahiz eta birusik gabeko gunean ari naizen, gure lan martxan alda-

ketak gertatu dira. Batetik, desinfekzioa, maskaren erabilera, edukiera mugak, tenperatura hartzea... zaindu behar ditugu; eta bestetik, pandemiaren aurrean dagoen lan pilaketagatik, urritik aurrera ezin dugu jaiegunik hartu».

Langile falta izan dute eta langile falta izatearen beldur dira: «gu ere infekta gaitezke... Nire solairuan dauden bederatzi erizain laguntzaile finkoetatik zazpi bajan daude eta besteok egun libreetan lan egin behar izan dugu... Ni neu ere gaixo egon naiz...».

Jende artetik ihesi

Lanean eta etxean, egunero-koan aldaketak egin behar izan ditu Ansok. Jende artetik ihesi, mendira jo du: «Hiru Errege Mahaian, Beriainen, Petretxeman...». Probatu eta gustua hartu dio: «tontorrez tontor segitzeko asmoa dut». Modu berean, «etxekoekin egurra egiten eta motor artean ere izan dut gozatzeko aukerarik». Jende gutxi dabilen espazioak bilatu ditu, baina neurri guztiak hartuta ere, birusa pasatu du: «hartzearen beldur nintzen eta azkenean hartu nuen... Hogei egun logelan pasatu nituen...».

Gorputzak agindutako geldialdia eta atsedena izan da Ansorentzat eta kontatu duenez, «nahiko ongi» pasatu ditu egunak: «inoiz egin ez dudana egin dut: pelikulak ikusi, mugikorrean jolasak deskargatu, pentsatu...». Luze joan zaio kontua, behar baino luzeago akaso: «Nafarroan Elisa testa egiteko eskatu nuen, birusa pasatua nuen jakiteko eta ezetz erantzun zidaten, hasieratik positibo eman nuelako... Gipuzkora deituta berehala egin zidaten...». Hor jakin zuen sendatuta zegoela: «nahiz eta hirugarren PCR proban ere positibo eman nuen, analisietan pasatua nuela ikusi zuten». Pasatu arren, oraindik ez zaizkio kezkek akitu: «beriz kutsatzearen beldur naiz».

«BIRUSA PASATU ARREN BERRIZ KUTSATZEAREN BELDUR NAIZ»

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

LABAIEN. Zaharbertitzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.

ERRENTAN EMATEKO

DANTXARINETIK hurbil apartamentua errentan emateko. Sukalde-egongela, komuna, logela bat eta beheko trastelekua. ☎690 38 81 34.

KONPARTITZEKO

BORTZIRIAK EDO MALERREKAN hiru hilabeterako gela baten bila. ☎609 69 13 76.

EROSI

BORTZIRIAK. Borda bat erosi nahi dute, nahiago planta bakarrekoea eta 200 m² ingurukoa, ura eta elektrizitatea duena. ☎606 44 64 49.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Bidasoa karrikan, garaje marra bat errentan emateko. ☎626 89 93 49.

LANA

ESKAINTZAK

ETXALAR. Egunero lau-sei orduz lan egiteko pertsona bat behar da bi haur zaintzeko. Bost eta bederatzirtekoak. Ttikitatzaintzailekin ibilitako haurrak dira. Lana epe luzerako izateko aukera dago. Pertsona gaztea eta gidabaimenarekin. Interesatuak edota zalantzak argitzeko, bidali Whatsapp-a. ☎609 57 58 14

LESAKA. Antoiu ostatuan esperientzia duen sukaldaria behar dute. ☎636 80 94 50 / 948 63 73 93.

IBARDIN. Beola Bentan asteburuetan lanean aritzeko frantsesa dakien jendea behar da. ☎948 63 07 09 / beolaetxea@gmail.com.

BERA. Ostatu batean astelehenetik ortziralerara lanean aritzeko sukaldari laguntzailea behar dute. Esperientziarekin. ☎617 72 34 75.

BERA. Zalain jatetxean zerbitzaria behar dute. ☎948 63 09 67.

ESKARIAK

Hezkuntza ikasketak egiten ari den neska gazte bat astean bizpahiru arratsalde **haurrak zaintzeko edota klaseak emateko** lan bila. ☎722 25 10 83.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Irargarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Katakumeak oparitzeko. ☎626 33 53 98.

ETXALAR. Zakurkumeak oparitzeko. Mestizoak. Neurri ertainekoak. ☎686 67 31 05.

Urte bat eta erdiko **mastina oparitzeko.** Zakur zoragarria eta atsegina. Txiparekin eta txertoak hartuta. Maite dut baina etxean edukitzen uzten ez didatelako oparitu nahi dut. ☎672 23 14 69 / 627 78 43 62.




ITUREN. Katakumeak oparitzeko. Ama ehiztari trebea. ☎683 27 31 65.

SALGAI



LEITZA. Txerrikumeak salgai, bizirik edo laborako prest. Prezioa telefonoz edo Whatsappez. ☎690 98 61 18.



Aker azpigorria salgai, urte batekoa. ☎618 96 05 49.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

Audifono grisa galdu da Donezteben. ☎948 45 09 25 / 626 56 60 04.



Iturengo urtegian **kotxeko giltzak** agertu dira. ☎646 02 40 24.

BERA. Postas inguruan Audi baten giltza aurkitu dute. ☎687 87 14 31.

SALEROSKETAK



Transportes Bidasoa, **Zaragoza ibilbidean plaza** salgai. Prezio onean eta ordaintzeko erraztasunak. ☎618 96 31 01.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 3,96
- 1.koa 3,84
- 2.koa 3,69

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,07
- 1.koa 3,93
- 2.koa 3,79

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,26/3,36
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,70/8,30
- 8-10 kilokoak: 6,35/6,65

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 35 €

Zerri gizona 1,300 €

Zerramak 0,420€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

BERAKO UDALA

OIHAN ENKANTEA


BERAko Udalak gutun-azal itxiko prozeduraren bidez enkante publikoan salgai jarriko du "Arranoko Harria" eta beste paraje batzuetako oihan-aprobetxamenduaren 1. lotea -bigarren enkan-tea, %10eko beherapenarekin-. Proposamenak 2020ko irailaren 29ko 13:30ak arte aurkeztuko dira. Baldintza pleguak Udal Idazkaritzan, web-orrian (www.bera.eus) eta Nafarroako Kontratazio Atarian ikusgai egongo dira.

Bera, 2020-09-11
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

URTEBETETZEAK




Jare Maia Arozena eta **Endara Maia Etxabide** lesakarre 9 eta urte bat beteko dituzte urriaren 5ean eta 6an. Zorionak eta aunitz urtez familia guztiaren partetik!!!



Aunitz urtez **Eider** eta **Mattin Legarrea**, 6 eta 40 urte beteko dituzuelako. Espero dugu egun berezia izatea! Pasatu egun polita! Zorionak etxekoien partetik, bereziki Unaxen partetik!



Goren Mujika Elizalde amaiurtarrak urriaren 6an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Xanaren partetik, *rubio!*



Urdazubiko **Ekhi Jaurena Eizagirrek** urriaren 1ean 6 urte beteko ditu. Zorionak, aunitz urtez eta muxu erraldoia amaren eta aitaren partetik!!!



Aunitz urtez, **Hegoi!** Orain 4 urterekin bizkotxoa prestatzen ahal diguzu! Ongi pasa zure egunean eta muxu haundi bat etxeko guztien partetik!!



Intza Mendizabal Maiz arantzarrak irailaren 24an urtea bete du. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki zure anaia Ibairren partetik! Muxu haundi-haundi bat!



Aunitz urtez **Enea!** Arras ongi pasatu zure egunean! Muxu haundi bat etxeko tikiari!! Zorionak etxekoien eta bereziki amatxo eta aitaoren partetik!



Julen Salaberri Alonsok urriaren 5ean 3 urte beteko ditu. Zorionak guraso, arreba Nahia eta Doneztebeko ataubi eta amatxiren partetik. Muxu haundi bat!

KONTATU KONTUAK



Nazioartean saritu dituzte Orabideko Kortaria eta Urdazubiko Etxeleku gasnategiak. 1994az geroztik Londresen egiten den Great Taste lehiaketa ospetsuan mundu osoko 12.000 jaki baino gehiago biltzen dira. Elikagaigintzako Oscar sari bezala ikusitako eta Guild of Fine Food-ek antolatzen duen edizio honetan hainbat kategoriatan banatutako 12.777 produktu bildu dira eta 144 epaile baino gehiagok parte hartu duten hainbat kata itsuetan baloratu eta sailkatuak izan dira. Horien artean, Jose Pizarro sukaldari ospetsua eta Melissa Hemsley sukaldari, idazle eta elikagai iraunkorraren defendatzaile sutsua. Eskualdeko gasnategiak ere ederki ibili dira eta Urdazubiko Etxeleku gasnategiak bi izar eskuratu ditu Bengotxea gasna naturalarekin eta Lekarozko Kortaria gasnategiak izar bana hartu du Infernuko Gasna gazta naturalarekin eta ketuarekin.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzazuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidali!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzun.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitez Ttipi-Ttaparen bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

E.S. SANTESTEBAN

Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

FURGONETA GARBITEGIA

2,60 m

"KONPONTZE EFEKTUA" duen pintura babeslearekin

> "Acrylonic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.

> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean

> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

SARRERAK eta BOLETOAK egiten ditugu

(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com

OROIGARRIA

Iñaki
SAGASTIBELTZA GANBOA
Xoli
2020ko irailaren 12an hil zen,
32 urte zituela.



Hitz gutxikoa izan za beti; sentipenez betea.
Eta halaxe utzi gattozo.
Gure malkoen beroan sumatzen zattu,
nahi baino lehen barrutik ihes itten.
Beti eonen za gure baitan, etxeko ttikie.

Covid-19a dela eta, azken agurra gertukoenen artean izanen da.

OROIGARRIA

Maribi
HITA YANCI
Igantzín, 2020ko irailaren 11n, 90 urte zituela

Egun gogor hauetan
bere ondoan izan zareten guziei,
mila esker.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA



Beñat ETCHART VERDU
Urdazubín, 2011ko urriaren 6an | IX. urteurrena
Egunero sentitzen dugu zure falta...
Maite zaitugu.

AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA

URTEURRENA

Juan Mari
ZALDAIN MAISTERRENA
Amañurren hil zen, 2016ko urriaren 1ean
IV. urteurrena

Orain dela lau urte gan zinen,
baina ez gure bihotzetik eta
gure oroitzapenetatik.
Han edo hemen gaudela,
beti eramanen zaitugu gurekin.
Hain positibo ta hain alaia
hain indartsu ta maitagarri,
zure omenez segitzen dugu
beti aurrera ta beti aitzin.



Maite zaitugu.

EMAZTEA ETA SEME-ALABA

OROIGARRIA

Xabier
MARTINIKORENA GARRO

Une latz hauetan
bat egiten dugu familiaren saminarekin.



ERLETA IKASTETXEKO LANGILEAK

OROIGARRIA



XABIER MARTINIKORENA "XAGU"
Umerez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.
BALEZTENA LEHENGUSUAK



OROIGARRIA

Antton
BARRERO ERKIZIA

Gizon, bihotz eta lagun handi
gure artean izanen zara beti.



ZURE LAGUNAK

OROIGARRIA



Maritxu
AIZPURU PERURENA
2020ko irailaren 16an, 96 urte zituela

Izeba Maritxu,
beti gogoan izanen zaitugu.

ZURE ILOBAK: APEZETXEA-AIZPURU, ZUGARRAMURDI-AIZPURU,
AIZPURU-BEGIRISTAIN, AIZPURU-SANTESTEBAN

OROIGARRIA



Serapio ANCIZAR IRIARTE

Lesakan, 2020ko irailaren 11n, 86 urterekin

Nola ahanzi atabxi zure begi urdinak ikustea, zure ondoan hazi eta hezitzea, zure afizio guztiak gurekin konpartitzea: pilota, ehiza, Osasuna, onddoak, baratzea... eta hauek guztiak zurekin disfrutatzea. Guzti honengatik, eskerrik asko atabxi, gu zaindu eta hainbertze maitatzeagatik.

Une gogor hauetan gurekin egon zareten guztiei eskerrik asko.

ANCIZAR-IRIARTE FAMILIA

Aunitz matte zattuen zure familia, ez zattugu inoiz ahantziko.

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



Aseguru guztiekin lan egiten dugu

Zuk erabaki

Zerbitzuak Bastanen, Bortzirietan, Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Ameztia, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70



BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU 365 EGUN | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

SORTZEAK

- **Hegoa Etxegarai Azkarate**, Sarakoa, abuztuaren 26an.
- **Intza Aubin Etxebeste**, Sarakoa, abuztuaren 29an.
- **Xabat Andueza Arruabarrena**, Lesakakoa, irailaren 3an.

EZKONTZAK

- **Iban Iturbide** eta **Aurelie Saint-Esteben**, abuztuaren 22an Saran.
- **Claude Etxegarai** eta **Odile Ayez**, abuztuaren 29an Saran.
- **Alphonse Lasaga** eta **Jennifer Bouriquet**, irailaren 5ean Saran.
- **Maxime Pequignot** eta **Charlotte Laurent**, irailaren 5ean Saran.
- **Amaia Vera Mutuberria** eta **Joseba Petrirena Ansalas**, Iturengoa eta Berakoa, irailaren 12an Iturenen.
- **Izaro Telletxea Iturria** eta **Iñaki Gonzalez Ferreras**, Lesakakoa eta Idiazabalgoa, irailaren 12an Lesakan.
- **Blanca Satrustegi Alzugarai** eta **Ekhiotz Zubieta Bertiz**, Lesakakoa eta Berakoa, irailaren 18an Lesakan.

HERIOTZAK


- **Jabier Endara Errandonea**, Berakoa, irailaren 9an, 72 urte.
- **Demetrio Salbarredi Garziarena**, Leitzakoa, irailaren 10ean, 92 urterekin.
- **Maribi Hita Yanci**, Igantzakoa, irailaren 11n, 90 urterekin.
- **Serapio Ancizar Iriarte**, Lesakakoa, irailaren 11n, 86 urterekin.
- **Iñaki Sagastibeltza Ganboa**, Leitzakoa, irailaren 12an, 32 urterekin.
- **Antton Barrero Erkizia**, Berakoa, irailaren 18an, 74 urterekin.
- **Enrique Bildarraz Azkonagi**, Leitzakoa, irailaren 13an, 84 urterekin.
- **Juan Francisco Ibarra Agerralde**, Sunbillakoa, irailaren 14an, 72 urterekin.
- **Xabier Martinikorena Garro**, Leitzakoa, irailaren 17an, 48 urterekin.
- **Josefa Telletxea Iribarren**, Lekarozkoa, irailaren 17an, 93 urterekin.
- **Isabel Argarate Mihura**, Zugarramurdikoa, irailaren 18an, 90 urterekin.
- **Jesus Portillo Ramirez**, Elizondokoa, irailaren 18an, 99 urterekin.
- **Jose Francisco Etxegia Berroeta**, Goizuetakoa, irailaren 18an, 100 urterekin.
- **Rosario Bermudez Bravo**, Berakoa, irailaren 19an, 91 urterekin.
- **Felixa Elduaen Baraibar**, Leitzakoa, irailaren 19an, 89 urterekin.
- **M^a Carmen Tena Urrutia**, Lesakakoa, irailaren 19an, 72 urterekin.
- **Maritxu Ariztegi Legazkue**, Iturengoa, irailaren 20an, 96 urterekin.
- **Luis Mutuberria Erro**, Zubietakoa, irailaren 20an, 96 urterekin.
- **M^a Concepcion Saldias Grajirena**, Beintza-Labaiengoa, irailaren 21ean, 67 urterekin.
- **Manuel Iriarte Huarte**, Berakoa, irailaren 22an, 80 urterekin.
- **Elena Fariñas Cachazo**, Berakoa, irailaren 22an.
- **Jose M^a Amondarain Elizondo**, Beintza-Labaiengoa, irailaren 22an.

PLAZAN BAZAN



LABIRINTOA

Aurki ezazu momiaren sarkofagora
ailegatzeko bidea, gezi beltzetik abiatuta.



HANDITIK TXIKIRA


Ordena itzazu katuok, handienetik (1)
txikienera (5)





MEZUA

Alfabetoari errapatatuz, asmatu zer dioen papiroak



SUDOKUA

Konturatuko zinenez, orriotako jolas guztiak Antzinako Egipton daude girotuta. Osa ezazu sudokua EGIPTO hitzak dituen hizkiekin (E, G, I, P, T eta O). Oroitu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

G		T	I		E
			P		T
O		I		P	
			E		
		P			
I	O	E	G		P

MARGOTU



INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

766

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Martin Irisarri Arrijuria | LEGASA

Buatxabal - Kamiseta bat

Idoia Urtxegi Telletxea | IGANTZI

La Rhune - 2 sarrera

Trini Urrutia Juanikotena | AMAIUR

WOW Park - 2 sarrera

Mª Angeles Ibarra Galarregi | SUNBILLA

BKZ abentura - 2 sarrera

Jesus Javier Sagastibeltza Zestau | LEITZA

Astizko Lezeak - 2 sarrera

Eva Lertxundi Agerre | ALMANDOZ

Mauka - diska bat

Gustavo Azkarate Lopez | GARTZAIN

Mauka - diska bat

Karlos Santiago Etxeberria | HONDARRIBIA

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

Galaxy Park

www.galaxypark.eus



2 sarrera

IRRISARRI LAND

www.irisarriland.com



2 sarrera


ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera

LI BU RU AK



Houston,
arazotxo bat daukagu!



Buruz Buru

Lanku
www.lanku.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.baztanescaperoom.com



www.galaxypark.eus